

DESKARGAKO ERREPIDEA, MARTXORAKO

Beasain eta Bergara lotzeko errepide
azkarraren lanak %85ean eginda daude / 4

Antzuola,
eta autobideko
lanen egoera
Deskargaraino.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**107 tona elikagai
batu dituzte
Bergarako elikagai
bankuan, abenduko
Bilketa Handian / 2**

SINADURAK

	AITOR UGALDE / 31
	URTZI AMIANO / 6
	PEDRO GARITANO / 34
	ANDERE ARRIOLABENGOA / 14
	ANDER ETXEBERRIA / 48

**Radarreko isunetatik
jasotako 25.000 euro
DYAri eta Gurutze
Gorriari eman dizkie
Arrasateko Udalak / 12**

**Lan-istripu batean
hanka galdu zuen
Josu Egaña oñatiarra
San Silvestre proban
ariko da, Legazpin / 38**



GABONAK + SANTAMASAK / 21



+

'Ahotsak.eus':
15 urtez ahozko
ondarea jasotzen

Fernando Velazquez
konpositoreari
elkarriketa

T-ROC BERRIA



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoen etorbidea, 38 • ARRASATE • 943.71.18.70





Boluntarioak, Bilketa Handian batutako elikagai guztiak sailkatzen, Bergarako elikagai bankuan. JOKIN BEREZIARTUA.

650 tona elikagai batu dituzte Bilketa Handian

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean egin zuten Bilketa Handia, eta Gipuzkoa osoan 650 tona elikagai batu dituzte, horietatik 107 Bergarako elikagai bankuan; hala ere, diote kopurua handitu egingo dela, oraindik hainbat kaxa ez dituztelako jaso

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Gipuzkoan bi elikagai banku daude: Oiartzungoa eta Bergarakoa. Lehenak hartzen du eremu handiena, eta 543 tona elikagai jaso dituzte han. Bergarakoan, berriz, 107 tona elikagai batu dituzte. "Kezka geneukan hasieran, San Andres eguna zelako lehen eguna eta guretzat potentzialki garrantzitsuak diren bi herritan jai eguna zelako, Eibarren eta Azkoitian. Hala ere, orokorrean aztertuta, iazko kopuru antzekoa batu dugu", azaldu du Jose Antonio Agirrebeñak, Bergarako elikagai bankuko arduradunak. "Olaberriako Carrefour da beste erreferentzietako bat, eta hor, adibidez,

iaz baino 1.000 kilo gehiago batu dituzte", azaldu du Agirrebeñak.

Behin elikagaiak batuta, hauek ordenatzen eta sailkatzen ari dira orain. "Elikagai guztiak bankura ekartzea izaten da lehen pausoa. Gero, edukiontzi guztietan dauden produktu guztiak sailkatzen ditugu. Izan ere, edukiontzi bakoitzean 30 produktu desberdin egon daitezke, eta hori guk ezin dugu dagoen moduan banatu. Ondoren, pisatu egiten dugu, eta inbentarioa egin. Azkenik, biltegira pasatzen ditugu". Hori guztia boluntarioek egiten dute. "Herri desberdinetatik etortzen zaizkigu laguntzera, eta hori eskertzekoa da", azaldu du bankuko arduradunak.

Entitate desberdinei banatzen dizkiete bankuko elikagaiak: etorkinen elkarteak, Caritas, Gurutze Gorria, Udalak, eta abar. "Haiek kontrolatzen dute zeintzuk diren benetako beharrak. Hilean behin etortzen dira, eta, eskatzen ditugunaren arabera, ematen joaten gara".

2011n jarri zen martxan Bergarako elikagai bankua eta 280 pertsona ingururengana iritsi ziren horko elikagaiak. Gaur egun, 4.400 pertsona nagusi dira bankuaren onura jasotzen dutenak, baita 400 ume ere –hiru urtetik beherakoak–. Agirrebeñaren esanetan, azken bi urteetan mantendu egin da kopuru hori.

Jostailuak batzen

Gabonei begira, jostailu bilketa hasi du Debagoieneko Gurutze Gorriak eta gaur eta bihar egongo dira Arrasateko Hiper Eroskiren sarreran. Batez ere 12 urte arteko umeendako moduko jostailuak gura dituzte jaso, eta "ez daitezela izan ez belikoak eta ez sexistak ere. Ahal dela berriak, edo oso ondo zaindutakoak bestela". Jostailuekin batera bost eta 50 euro arteko txekak ere banatuko dituzte eta diru horrekin jostailu gehiago erosi, "ahalik eta ume gehien artean banatzeko beste".

Iaz, esaterako, Gipuzkoan, 1.500 ume baino gehiagoren artean banatu zituzten jostailuak; 4.000 baino gehiago jaso zituzten. Gurutze Gorriko kolaboratzaile Leire Gonzalezen esanetan aurtien eskaera egin duten ume gehiago dituzte baina guztienagana iritsiko diren esperantza dauka, "herritarrek elkartasuna adierazi eta jostailuak batzeko kanpaina parte hartzen ari direlako".

Emaus-en enkante solidarioa

Emaus gizarte fundazioak, berriz, enkante solidarioa abiatu du, eta abenduaren 26ra arte egongo da martxan.

Enkanteko objektuak eta gauza bitxiak Emaus Social Faktoryn egongo dira ikusgai, Donostiako Mundaiz Bideko 6. zenbakian, 11:00etatik 14:00etara eta 17:0etatik 20:00etara. Eskuratutako dirua Emaus Gizarte Fundazioaren proiektu solidarioetara bideratuko da. Objektu bakoitzak bere hasierako prezioa du, merkeena 5 euro da eta garestiena, berriz, 600 euro.

Informazio gehiago, *comunicacion@emaus.com* webgunean edo 616 13 54 28 zenbakian.

Bisitarien datuak erregistratzeko modu berria

Produktu digital bat garatu du Oñatiko Pick to Light Systems enpresak, Baturarekin elkarlanean

E.A. OÑATI

Oñatiko Pick to Light Systems eta Bilboko Batura enpresek produktu digital berritzaile bat plazaratu dute elkarlanean: *ATE-Visitor Entry System*. Plataforma digital berri honek Smartcard-ak eta *app* bat erabiltzen ditu enpresek eta erakundeek jasotzen dituzten bisitarien datuak erregistratzeko.

Enpresa asko dira euren bezero edo hornitzaileen bisitak jasotzen dituztenean hauen datuak paper formatuan batzen dituztenak –izen-abizenak, zein enpresatatik datorren, nortasun agiri zenbakia, eta abar–. Horretarako, bisitariak berak idazten ditu sarreran eskatzen zaizkion datuak eta horrek aukera ematen dio bere aurretik etorri diren pertsonen datu pertsonalak ikusteko. Hain zuzen, hori da plataformaren helburua, datuen babesa bermatzea, eta datuak paperean jasotzen dituzten enpresendako da, bereziki.

Bi enpresen esanetan, *ATE*-k bisitarien datuen erregistro sistema automatizatu, seguru eta digitala eskaintzen du. "Bisitariarentzat prozesu arina izateaz gain, *ATE* kokatzen duen enpresaren irudi berritzailea sustatzen laguntzen du", azaldu dute.



akebaso

Bihotz - bihotzez
opa dizuegu
Gabonetako magiak zeuen bizitza
argitzea eta denon ametsak betetzea.
Zorionak eta urte berri on !!!!

San Juan auzoa 16, Ape 48292 Asteasu
94 658 20 60



"Euskal ekonomiak hazten jarraituko du"

JOSEBA MADARIAGA LABORAL KUTXAKO IKERKETA DEPARTAMENTUKO ZUZENDARIA Euskal ekonomiak datu onak utzi ditu 2018an, Madariagaren arabera, eta 2019ari begira ekonomiak hazten jarraituko duela uste du, Estatuan, Nafarroan zein EAEn

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

2019rako euskal ekonomiaren aurreikuspenen berri eman du Laboral Kutxak. Joseba Madariaga Laboral Kutxako Ikerketa Departamentuko zuzendariak aurreratu duenez, datorren urterako %2,4ko hazkunde aurreikusten dute Euskal Autonomia Erkidegorako.

2018a bukatzeaz da. Urte ona izan da euskal ekonomiarentzako? Zuen aurreikuspenen gainetik ala azpitik hazi da 2018an ekonomia?

EAeko ekonomiak 21 hiruhileko jarraian daramatza hazten, aparteko ziklo positiboa izaten ari da eta langabezia-tasa %10etik beherako mailalara gutxitzea lortu dugu. 2016an %3,4ko hazkunde-tasa izan dugu eta %2,9koa 2017an. Hala ere, urtetik urterako tasek indarra galdu dute, eta 2018ko hirugarren hiruhilekoan %2,6koa izan da hazkunde. Horretarako arrazoiak gure mugetatik kanpo bilatu behar ditugu. Izan ere, industriaren eta kanpoko sektorearen eskutik iristen zaigu egoera hori.

Industria-sektoreari dagokionez, zein bilakaera izan du?

Industria-produkzioa dezeleratuz joan da urteak aurrera egin ahala. Manufaktura-sektorean %5etik gorakoak izan dira hazkunde-tasa metatuak, eta %2,6ko balioetara igaro gara. Hiruhileko hiruhileko aztertuta, agerikoa da ekipamendu-ondasunetan eta manufaktura izandako dezelerazioa. Balantzaren alde positiboan daude kontsumo-ondasunak; batez ere, ez-iraunkorrak. Hala ere, moteltzea atzeraldi bilakatzeko probabilitatea txikia dela uste dugu.

Uztailen egindako aurreikuspenen, 2019rako %2,5 inguruko igoera aurreikusten zenuten EAEn, Nafarroan eta Espainian. Mantentzen duzue hori?

Gutxi gorabehera, bai. 2019rako %2,3ko hazkunde-tasa aurreikusi da Estatu osorako, %2,4koa



Joseba Madariaga. LABORAL KUTXA

"ERKIDEGOKO EKONOMIAK 21 HIRUHILEKO DARAMATZA JARRAIAN HAZTEN"

Euskal Autonomia Erkidegorako eta %2,8koa Nafarroako Foru Erkidegorako.

Beraz, langabezia-tasak behera egitea espero da?

Aurreikusitako tasen arabera, langabezia-tasa nabarmen jaitsiko da. EAEn eta Nafarroaren kasuan, %9tik behera geldituko da urteko batez besteko langabezia-tasa, eta Estatuan, berriz, %13,6koa izango da.

BPGaren ze hazkunde-tasa aurreikusten duzue 2019rako? Zein erritmotan haziko da ekonomia? Zeintzuk izango dira faktore erabakigarriak hazkunde hori gerta dadin?

2019an Barne Produktu Gordina %2,2 haztea aurreikusten dugu. Hazkunde hori 2018an izan dena baino 0,4 puntu baxuagoa izango litzateke, %2,6ko hazkunde izan baitugu aurrekoan. Beraz, Espainiako ekonomiak susperraldiari eutsiko dio, baina hazkun-

de-erritmoa moteldu egingo da, ehuneko puntu erdi inguru, batez beste.

KPlari dagokionez, nolako hazkunde aurreikusten duzue?

2019an %1,6koa izango da hazkunde-tasa, batez beste -2018an %1,8koa izan da-. Ekonomia potentzialaren gainetik haziko denez, esan moduan, langabezia-tasak beheraka jarraituko du eta prezioek, berriz, goraka, poliki-poliki, Europako Banku Zentralak nahi duen %2ko mailara hurbilduz.

Ekonomia globala hazi egingo dela aurreikusten da? Zenbat?

2018rako eta 2019rako aurreikusitako balioak alderatuz gero, datorren urterako hazkunde-aurreikuspenak 2018rako dauden antzekoak dira; bi hamarreko dezelerazio txiki bat besterik ez dago. Bestalde, inflazio-tasek patroia bera dute eta balioak 2018koen antzekoak dira. Batez beste, Barne Produktu Gordina %3 haziko da 2019ko urrirako, eta Kontsumo Prezioen Indizeak ere hazkunde-tasa hori izatea aurreikusten dugu garai bererako. Hori bai, herrialde batetik bestera aldeak nabarmenak dira.

2030erako %70 birziklatzea du xede Aldundiak, plan berriarekin

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra aurkeztu du Diputazioak, 2019tik 2030era artekoa

E.A. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra aurkeztu berri du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta orain, Batzar Nagusietara bidaliko dute, foru arau gisa tramitatu dezaten.

Proiektu horren helburuetako bat da 2030erako birziklapenean %70 lortzea, "Europako helburua baino bost puntu gehiago", Aldundiaren esanetan. "Prebentzioa eta ekonomia zirkularra sustatuko ditu, zabortegirik gabeko hondakinen kudeaketa eredua lortuz", azaldu du.

Batzar Nagusietako Ingurumen batzordeko EAJko bozeramaile Xabier Ezeizabarrenak azaldu du legealdi honetan hondakinen kudeaketa bere osotasunean itxiko dela. "Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokor berriak jasangarritasuna du oinarri, hondakinen bidez lortutako ba-

liabideak ahalik eta gehien aprobetxatuz, eta lehentasuna, birziklapenarekin eta balioes-tearekin batera, hezkuntzari eta prebentzioari emanez", dio.

Gaineratu du plan berriak gipuzkoarren interes orokorrari egiten diola mesede, "legealdi hasieran Foru Gobernuak emandako hitza beteaz eta aurreko legealditik jaso genituen arazoei irtenbide emanez".

"Adostasunik gabe"

EH Bilduk adierazi du plana adostasunik gabe eta gizarte hausturan sakonduz gauzatu duela Diputazioak: "Udalak ez dituzte aintzat hartu, hain zuzen ere, hondakinen kudeaketaren eskuduntza zuzena dutenak".

Hori dela eta, partaidetza prozesu serio, homologatu eta egiazkoa diseinatzeko eta martxan jartzeko eskatu dio.



Halcon

bidaiak

2019rako gure IRTEERA BEREZIAK zain dauzkazu, ARRASATETIK:

Martxoa – LANZAROTE

Aste Santua / Pazko astea: NEW YORK

Aste Santua: MAROKO

Maiatza: SEVILLA

Sanjuanak: ERRUSIA

Uztaila: KUBA, Kultura & Senderismoa

Abendua: LURRALDE SANTUA eta JORDANIA

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

Erdiko kale 16 • 943 79 29 88
halcon99@halcon-viajes.es

Obraren %85 amaituta dago

Bergara eta Deskargako mendatea batzen dituen autobidea martxorako zabaltzea espero dute, neguan zehar ezer okertzen ez baldin bada, aurreikuspenak betetzen ari baitira. GOIENA eskusiban izan da obren nondik norakoak bisitatzen

Jokin Etxebarria ARRASATE

Urteak dira Beasain eta Durango herriak batuko dituen errepidearen ideia gauzatzen hasi zirenetik. Gipuzkoako parteari dagokionez, autobidearen lehen zatia Beasain eta Ormaiztegi batu zituen izan zen. Hura 1995ean hasi ziren eraikitzen eta 1998 arte ez zen zabalik egon. Bigarren zatia –Ormaiztegi eta Zumarraga artekoa– martxan ikusteko zazpi urte gehiago pasa behar izan ziren. Beste zazpi urte pasa ziren Legazpi eta Urretxu arteko errepidea iristeko eta 2015eko martxoan inauguratu zen Deskargako portuaren azpitik pasatuz portuaren erdiraino iristen zen errepidea.

Tarterik gatazkatsuen eta zailena, ordea, Bergara eta Deskargako portua batzen dituen 5,2 kilometroko eremua izan da. Azken aurreikuspenak betetzen ari dira, baina, eta Aintzane Oiarbide Gipuzkoako Bide Azpiegitura diputatuak GOIENARI baieztatu diotenaren arabera, eta, betiere, "negu honetan ezustekorik gertatzen ez bada", martxorako zabalik egongo da autobidea, "obraren %85 dagoeneko amaituta baitago". Behin hori amaituta, Beasain-Durango korridorearen Gipuzkoako tarte guztia amaituta egongo da, eta Bizkaiko tarte egitea bakarririk faltako litzateke.

Bi urtez lanak geratuta

Bost kilometro eskasek banatzen dute Bergarako Bonbulu eremua eta Deskargako gaina, baina Gipuzkoako orografia mota horretako obrak egiteko orduan errazena ez dela adierazten duten adibiderik garbientakoa izan daiteke. Arazoz josita egon den tarte da hori. "Obra guztiaren %80 mendiari eusteko lanak dira",

jakinarazi du Aintzane Oiarbide GOIENAREkin egindako bisitan.

21 hilabete pasa dira obrak hasi zituztela, eta, nahiz eta pasa den urteko negua oso gogorra izan zen eta normalean baino euri gehiago egin zuen, obrek aurrera jarraitu ahal izan dute. Gogoratu beharra dago obra geldirik egon zela bi urtez, lurrak ematen zituen arazo geologikoen ondorioz. 2015ean, obren gainkostuagatik, bertan behera geratu ziren lanak, Gipuzkoako Foru Aldundiak –orduan EH Bildu zegoen Gobernuan– enpresa eraikitzaileekin kontratua eten eta gero.

Gipuzkoako Foru Aldundian gobernu berria sartzearekin bat, Deskargako obra berriz ere martxan jartzea erabaki zuten. Horretarako, eta lurrak ematen zituen arazoak kontuan hartuta "ikerketa geoteknikoa egitea erabaki genuen, eta handik sortu proiektu berri bat", dio Oiarbidek. Hala ere, proiektu berriarekin hasi aurretik eduki zuten lan potolo bat egiteko: "Bergararik Antzuolarako bidea hartu eta segituan ezponda handi bat egin behar izan genuen, lurra mugitu eta errepidea arriskuan jartzeko aukera zegoelako". Lehen, errepidetik oso gertu gelditzen zen pareta.

'Lur-erazketa bako eremu'

Arrasatetik eta Bergararik doazen ibilgailuentzat, Bonbulu-ko eremua da obrek aurrez aurre topo egiten den lehen eremua.

IKERKETA GEOTEKNIKOA EGIN ZEN ETA HAREN EMAITZATIK SORTU ZEN PROIEKTU BERRIA

Azken egunetan, gainera, batek baino gehiagok epelak botako zituen bere ibilgailuaren barruan, auto-ilaran denbora luzea eman behar izan duelako obrak direla eta. Leku hori, baina, *lur-erazketa bako eremu* izendatu dute obrako arduradunek. Izan ere, errepidearen alde batera dagoen mendi eremua guztiz josita dago piboteekin eta habeekin. Besteak beste, buloi batzuk ere ageri dira: "Kablez beteta daude eta haien funtzioa mendiaren tentsioa neurtzea da. Datuak etengabe ematen dituzte eta arazoren bat balego segituan jakingo genuke zer den eta zer egin beharko litzatekeen".

Hormigoiarekin josi dute harria, eta grisen kontrastea ikaragarria da, mendia izanda ere. Horrenbeste grisen artean, baina, berde zantzuak ere ikusten hasiak dira dagoeneko. "Obrak berreskuratze paisajistiko bat izango du, paretetan belarrak eta landareak botatzen ibili dira urteko bolada desberdinetan eta dagoeneko belar berdea ateratzen hasia dagoela ikus daiteke", gaineratu du diputatuak.

Erreka gaineko biribilgunea

Bergarako muga pasa eta Antzuolako lurretan sartuta, dator obra tarte honetako beste puntu gatazkatsuetako bat, Igiribar-errota baserriaren inguruan, hain zuzen ere. Aurreko proiektuan aurreikusita zeuden ezponda batzuk puskatu egin ziren, eta, soluziorik ez zuten, proiektu berrian, autobidera sartzeko baliagarri izango diren biribilguneen kokalekuak aldatu egin behar izan zituzten, leku faltagatik. "Antzuola hasieran dago orain kokatuta bigarren biribilgunea, eta berezia da, erreka gainean egin delako, eta hori ez



Mendiari eusteko lanak obra guztiaren %80 izan dira. JOKIN ETXEBARRIA



Mendi zati handi bat erorita, proiektua berritu egin behar izan zen. GFA



Ibai gainean biribilguneak ez dira ohikoak obra mota horietan. JOKIN ETXEBARRIA

Ordainpekoa, bai ala ez?

Gipuzkoako Foru Aldundiak betidanik esan du GI-632 autobidea izango dela, eta, hori erakusteko, N-1ean instalatuta dauden moduko arku bat ezarri zuten Deskargan. Ideia da auto guztiek ordaindu behar izango dutela, errepide berria izanda, baina, Abiatu sistemaren barruan sartuko litzatekeenez, gehienez 29 euro ordaintzen dituenak berdin ordaintzen jarraituko luke.

Hala ere, azkenean, ordainpekoa izango den edo ez erabakitzeke dago oraindik. Gaia aztertzen ari da Aldundia eta Europako komisioarekin egiten ari diren lanketan ere gai hori lantzen ari dira. Gainera, edozein ordainleku martxan jartzeko foru arau berri bat egin behar da, eta, oraindik errepidea bukatuta ez dagoenez, ezin dute foru araurik martxan jarri.



Antzuolako Eztala futbol zelaia-aren eremua izan da obrako tarterik gatazkatsuenetako bat. GFA

da oso ohikoa obra mota haue-
tan", adierazi du Aintzane Oiar-
bidek.
Zona horretan nabarmena den
obraren beste ezaugarrietako
bat lubetak dira: "Lur eremu
hori ez zen horrelakoa eta izu-
garritzko betelanak egin dira;
tarte batzuetan, 20-25 metroko
paretak ere aurkituko ditugu".
Eztala futbol zelai inguruak
Ez dago dudarik, obra hori he-
rriren batek sufritu baldin badu,
hori Antzuola izan da. Gainera,
tarterik gatazkatsuenetako bat,

gatazkatsuen izan ez bada, ber-
tan izan da, Eztala futbol zelaia-
ren inguruetan, hain zuzen. "Lur
horiek, historikoki, mugimen-
duan izan dira. *Antzuolako le-
rradura mugimendu historikoa*
deitzen zaio", jakinarazi du di-
putatuak. Geoteknikoki sakon-
ki aztertu zuten eta konturatu
ziren lur azpian ur emari handia
zegoela, hori lurrarekin batze-
rakoan buztina sortzen zela eta
hura gogortzean lurra mugitzea
eragiten zuela. Horri irtenbidea
emateko, lur azpiko putzuak
sortu dituzte hogeit metroko sa-

**ERREKA GAINEKO
BIRIBILGUNEAK EZ
DIRA OHIKOAK**
**LUR MUGIMENDU
HISTORIKO BATI
IRTEERA EMATEN ZAIO**
**BERGARA-BEASAIN
TARTEA 11 MINUTUAN
EGIN AHAL DA**

konera eta elkarren artean
hamabi metroko distantziarekin.
Guztiak elkarren artean lotuta
daude eta guztiek erreka bidea
hartzen dute.
Eztala futbol zelaiarekin lotu-
ta, aurreikusita ez zeuden ho-
bekuntza batzuk ere egingo dira.
Sareak handitu eta hobetu,
aparkalekuak hobetu eta beste
aparkaleku batzuk sortu eta
aldageletako zona konpondu,
besteak beste: "Antzuolakoe-
k asko sufritu dute, denbora luzean
jasan behar izan dute obra hau,
baina, behintzat, obra honek

emango die soluzioa lurren mu-
gimenduei", dio Aintzane Oiar-
bidek.
Bergara-Beasain 11 minutuan
Martxotik aurrera, behin obra
guztia amaituta, Bergara eta
Beasain arteko errepide tarte-
a 11 minutuan egin ahal izango
da. Urteetan obra eremuen on-
dotik pasa behar izan eta gero,
beraz, Goieritik Debagoienera
datozenek eta alderantzizko bi-
dea egiten dutenek ere beste
arintasun batekin egingo dute
bidea.

Sikol
lentzeria
*Opari berezien
garaia...*
Urte berri on!
Tel.: 943 79 89 32
Olarre kalea 7 - ARRASATE



ZABALIK

URTZI AMIANO

3.882

Mmmmmmm, zenbaki polita! Edo ez. Jaiotza-data ote? Ez. Autoko matrikula? Ezta ere. Preso baten zenbakia? Agian. Kreditu txartelaren pasahitza? Ez, bat sobera. Badakit, Gabonetako loteriako zenbaki bat? Izan daiteke, bero zabilta. Kontuan izan zenbakia, bukaeran jakingo dugu-eta zein den bere benetako esanahia.

Bai, Gabonetako loteriaren garaian gaude, oraintxe gabilta gehienok zoratzen. Ez dugu ondoan ditugun zenbaki gabe geratu nahi. Ondokoari tokatu eta niri ez? Baita zera ere!

Kirol elkarteko zenbakia hartuta daukat, gosaltzen dudan tabernakoa ere bai, lagunekin erdi bana daukadana poltsikoan, oporretan egondakoa ere kaxan, lehengusuekin hartzen duguna ere prest, amamak urtero oparitzen didana ere ezin ahaztu eta lantokikoa, nola ez!

Zenbakiak zenbaki eta zoriak zori. Lagun min batek urtero esaten dit: "Urtzi, neuk, loterixan ez juat sekula jokutzen". Uste dut gaur konturatuko dela, nahi gabe bada ere, une oro jokutzen duela loteria erraldoi baten. Nik

BIZIMODUAK, GENETIKAK ETA BESTE HAINBAT BALDINTZAK AREAGOTZEN DUTE PROBABILITATEA

aldiz, munduan egon daitezkeen gaitz guztiak daude, izurriteak, gerrateak, gaixotasunak... burura etor daitezkeen gaitz guztiak.

Gabonetakoan sariak daude. Gabonetako sarietan tokatzeko probabilitate aukera hartutako zenbakien arabera da.

Bestean, aldiz, jaiotako lekuak, eramandako bizimoduak, genetika eta beste hainbat baldintzak areagotzen dute probabilitatea.

Batean, norberak erabakitzen du partaidetza.

Bestean... bai edo bai zenbakitxo edukiko duzu bonbo barruan.

Goian dagoen zenbakia 2017an Gipuzkoan erregistratutako minbizi kopurua da: 3.882, hain zuzen ere. Beraz, gozatu une oro ondokoekin eta norberaren buruarekin. Inoiz ez dugu-eta jakingo noiz, nori, zein *bonbotako* zenbakitxo tokatuko zaigun.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Ortografia akatsen izurritea

MIKEL GARCIA IDIAKEZ
HTTPS://LABUR.EUS/O3WL2
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Edukia zuzen baldin badago, adierazkortasunari eta ortografia akatsei garrantzia kentzen zaiela eta unibertsitateraino ikasle ugari gaizki idatziz iristen direla dio *El País*-eko artikulu batek; ortografia akatsen izurritea bizi dutela Espainian. Nago, euskararekin ere antzera gabiltzala, WhatsApparen aroan.

Gaur egun gutxi irakurtzen dela, idazlanek eta diktaketek protagonismoa galdu dutela eskolan, ordenagailu eta

mugikorretako testu-zuzentzaileek (Xuxen dugu euskaraz) automatikoki egiten dutela zuzenketa eta sarri ez garela akatsez jabetzen, WhatsAppen eta sare sozialetan laburdurak erabiliz eta hizkiak janez idaztera ohitu garela, eta are gehiago, horietan zenbaitek nahita idazten omen duela gaizki, *moloia*goa delakoan... Horra egungo ortografia maila arrazoitzeko ematen diren hainbat argudio. [...]

Hezkuntzan, gainera, irakasle batzuei leporatzen zaie exijentzia maila txikia dutela gai honetan, eta edukia zuzen baldin badago, adierazkortasuna eta ortografia bigarren mailan

geratzen direla, sintaxiari ez zaiola garrantzirik ematen. Okerragoa: adierazkortasun eta akats horiek lantzeko eta hobetzeko mekanismorik ez dela martxan jartzen. [...]

El País-eko artikuluko pasarte bat bereziki esanguratsua iruditu zait: Espainian irakasle izateko oposaketetara aurkeztu direnen artean ere, ugariak eta larritzeko modukoak izan dira idazkera akatsak. Jakin nahiko nuke zein den Euskal Herriko irakasle eta irakaslegaien errealitatea (helduona, oro har), nekez irakatsiko baitu ongi espresatzen, espresatzeko baliabideak menperatzen ez dituenak.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitate
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oiñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BERBAGAI

"Oztopo nagusia Espainiako Futbol Federazioa da orain"

RAMON AZKARATE EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

Eneko Azkarate ARRASATE
FIFAn eta UEFAn sartzeko eskaria egitea onartu du Euskadiko Futbol Federazioak. Etorkizunean nazioartean partidu ofizialak jokatu ahal izateko bide "zaila" hasi da. Durangon egin zuten batzarra, eguaztenean, eta han izan zen Mondragon Futbol Elkarteko presidenteordea, Ramon Azkarate.

Atzoko botazioaren ostean, bide zaila hasten da orain?
Duela urtebete hasi genuen bidea. San Mamesko azkeneko partiduak utzi zigun zapore mingotsarekin, estrategia berria abiatzea erabaki genuen. Lurralde lurralde eta legearen ikuspegitik, ofizialtasuna eskatzeko zer egin behar den, ze ondorio izan dezakeen... azaltzen aritu ginen, lege aholkulariekin batera. Eguazteneko batzar orokorrak beste mugarri bat ezarri zuen. Orain hasten da zailena. Beste kirol federazio batzuek egindako bide bera egin behar du futbolak.



Ramon Azkarate, artxiboko irudi batean. GOIENA

Eta orain?

Eskaera ofiziala egingo diogu, lehenbizi, Espainiako Futbol Federazioari, haren mende gaudenez eta Euskadi herri independentea ez denez, horrela eskatzen dutelako

UEFAk eta FIFAk. Horrekin batera, aipatutako Europako eta munduko futbol federazioei ere egin beharko diegu eskaera.

Nola amai daiteke hau guztia? Baikorra zara?

Ez da epe motzean erabakiko. Ezezkoa jasoz gero, beste bide edo erakunde batzuetatik joko dugu. Zaila da, baina itxaropenik badut. Orain, urrats hauek ezinbestekoak dira helburua lortzeko.

Zein da oztopo nagusia?

Espainiako Futbol Federazioa. Honek baietz esango balu, UEFAk eta FIFAk ere baietza emango lukete.

Espainiako Futbol Federazioaren aldetik errepresaliak etor daitezke?

Halakorik gerta liteke, ezin ukatu. Baina, esaterako, diru-laguntzetan murrizketak izatea zail ikusten dut. Halakorik gertatuko balitz eta euskal futbol klubetara diru gutxiago etorriko balitz, Eusko Jaurlaritzak ere zerbait esan beharko luke, eta galera hori konpontzen lagundu.

Zergatik hartzen da erabaki hau orain eta ez, esaterako, Angel Maria Villar edo Juan Luis Larrea Espainiako Futbol Federazioko presidente zirenean?

Ez dakit, ni berria naiz-eta Euskadiko Futbol Federazioan. Dena den, Juan Luis Larreak jarraituko balu Espainiako Futbol Federazioan, ziur nago gure helburu hauetan gehiago lagunduko ligu keela egungo presidente Luis Rubialesek baino.

HAU BE BADOGU!

Berri Txarrak taldeak, etenaldi mugagabea



Taldeak 2019ko biraren ostean etenaldi mugagabea egingo duela iragarri du:

@joniubeda: "Talenta ez da galtzen, eraldatu egiten da 'Beude ikasten, jaio, musika, hil ta payola... Beude denbora, haria eta infrasoia... Beude neguan epela eman ziguten doinuak zuekin bizitako kontzertuak'. Eskerrik asko Gorka eta taldekide izandako guztiei".

@MeriLing1: "Mila esker belunaldi oso bat(zu)en soinu banda izateagatik eta emandako guztiagatik".

'#Ofizialtasuna' eta '#EuskalSelekzioa'

Eguaztenean Durangon egindako batzarraren ostean, Euskadiko Futbol Federazioak eskari ofiziala egingo dio FIFAri eta UEFAri:

@SA_aitor: "Behin bidea hasi dela, orain gogorrena etorriko da. Presio mediatikoa, instituzionala, oztopoak, aitzakiak, uste faltsuen zabaltzea, manipulazioa... Aurrera lagunok! #ofizialtasuna".

@Erriga : "Agian ez da ezertan geratuko, baina ilusioa ez gaitzela kendu!".

Gabonak eta Olentzero hizpide sare sozialetan

Gabonak gertu daude eta Olentzero hizpide da sare sozialetan:

@dantzak: "Nork esan du Olentzero soilik gizona izan daitekeela? Zergatik utzi behar dugu emakumea Mari Domingiri eman diogun laguntzailearen bigarren plano horretan eta ez da izanen emaztea Olentzero bera?".

@LVPibai: "Gelditu umeak engainatzen. Santa Claus, Olentzero eta Errege Magoak existitzen dira!".

ITURRI ONETIK

Arrasatear bat gazte ekintzaileen artean

Etorkizunean beren belaunaldiko erreferente izateko dohainak erakutsi dituzten eta 2018an nabarmendu diren 30 gazte ekintzailearen zerrenda argitaratu du *Forbes* aldizkariak. Eta zerrendan daude Oñatiko MUko Leinn graduari ikasten aritutako hiru gazte –Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza–; adibidez, Eider Etxebarria, BiziPoz enpresaren sortzailea. 24 urteko arrasatearraren enpresaren helburua da, besteak beste, zahartze aktiboa sustatzea.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-12-09

Basque Culinary Center eraikitzeko lehen harria

Mondragon Unibertsitateko orduko errektore Josu Zabalak lehen harria jarri zuen etorkizuneko lehen euskal Gastronomía Fakultatea izango zen Basque Culinary Center eraikitzeko. Donostiako Teknologia Parkean kokatuta, 8.000 metro koadroko lursaila eraiki zen, 17,1 milioi euroko aurrekontuarekin. 2011n zabaldu zuten. Odol Elorza, Markel Olano, Isabel Zelaa, Cristina Garmendia, Juan Mari Arzak... ere izan ziren.



Baserritarren bitxikeriak

IZASKUN URIZABEL ETA JOSE RUIZ
OÑATIKO NATURZALIEN IZENEAN
OÑATI

Baserritarrak egunero daude naturarekin kontaktuan, landare eta animaliei buruz asko dakite. Lagun batek esaten zigun: "Baserritarrek badakigu tomate landareak erdoiak edo gorrinak jotzen baditu, kobrearekin tratamendu bat baino gehiago eginagatik landare hura ez dela bere onera itzuliko. Mahats landareak dituzten baserritarrek ere badakite mahats aleak jaso nahi badituzte, 8, 10 edo 12 tratamendu egin beharko dituela eguraldiaren arabera".

Hau jakinda, baserritarrek benetan sinisten dute datorren udaberrian helikopteroz oxido kuprosoarekin tratamendu bat eginda 20-25 metroko intsinis pinuak sendatu egingo direla? Ez ote da sinistu baino, sinistu nahia gehiago izango?

Euskaraldiko batzordeak eskoriatzarrei

MARI CARMEN ARRIETA ARMENDARIZ
BATZORDEKIDE GUZTIEN IZENEAN
ESKORIATZA

1. *Ahobizi* eta *Belarriprest*, denok izan gara beharrezkoak hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa hau egiteko. Eskoriatzan 545 *Ahobizi* eta 301 *Belarriprest* izan gara. Zorionak guztioi!

2. Arau berria sortu da Euskal Herrian: "Ulertzen badigute, egin dezakegu, komunikazioa posible delako" edo "ulertzen badut, egin diezadatela euskaraz".

3. Euskaraz egin nahi izatea ez da inor baztertzea. Euskal Herrian, euskararen herrian, euskaraz egin nahi izatea gauza naturala da.

4. Oraindik ere euskararik ulertzen ez dutenak asko dira. *A los que no entienden euskera, les invitamos a formarse, a prepararse para la próxima edición. ¡La comprensión es ya un paso!*

5. Sorpresarik hartu dugu? Bai! Espero ez genuen jendea ikusi dugu txapa jantzita.

6. Zailtasunak ere izan ditugu. Betiko ohiturak aldatzea; deserosotasunak egon dira; beti ez naiz kapaza izan... Lasai. Hasi baino ez gara egin. Lehenengo aldian exitoak lortzea gutxitan gertatzen da.

7. Madrilen espainolez bizi denaren normaltasunez bizi nahi dugu Euskal Herrian euskaraz. Naturaltasunez, normaltasunez.

8. Bizipenak eskatu ditugu eta herritar batek idatzi zuen: "Erdaraz egiten nion lagun bati, euskaraz egin diot". Bati bakarrik? Esango luke norbaitek. Bai, bati. Bateko askok piloa osatzen dute. Poliki, baina aurrera egingo dugu.

9. Euskaraldiak batu egin gaitu. Hamaikakoa da Eskoriatzan horren adibide. Herritar desberdinak, helburu komun batek batuta. Sare berriak eraikitzen ari gara.

10. Herritarrak, udala, merkatariak, ostalariak, hainbat enpresa... denak elkarlanean, denak helburu berarekin bat eginda, bakoitza bere neurriko ahalegina eginez.

11. Euskaraldiaren lorpena Eskoriatzan izena eman dugun 846 pertsonok gara. 846 pertsona mobilizatu gara: izena eman dugu, txapa jaso, txapa erabili... 846 esker guztioi.

Eta 12. Arnas luzeko bidea da hau. Bakoitzak bere abiapuntutik egin behar ditu aurrerapausoak. Inertziak astindu, ohitura berriak hartu. Euskaraldia itxi dugu, baina ez da ezer bukatzen. Hasi baino ez gara egin. 12, 13, 14... 365 egun behar ditu euskarak, normalizatzeko. Animo guztioi!

Amiantoak hil egiten du

AINHOA LARRAÑAGA
BERGARA

Nazioarteko adituek diote 2035era bitarte 400.000 lagun hilko direla Europan amiantoaren eraginez.

Euskal Herrian ere amiantoaren eraginak oso larriak dira eta badirudi isilpean daramagun gaitza dela. 2018an 31 hildako eragin ditu amiantoak Hego Euskal Herrian eta 1993tik hasita 1867 dira hildakoak –zoritxarrez ez daude guztiak kontabilizatuta–.

Amiantoa mineral naturalez osatutako zuntz bat da. Bost motatako amiantoa aurki daiteke izadian, baina kristolito izenekoa erabili izan da gehien, eta hori da arriskutsuena. Kanada, Errusia eta Hego Afrika dira munduko amianto ekoizlerik handienak. Aspaldion, herrialde txiroei saltzen diete hauts pozoitsua. Hozberoari erraz eusten dio, eta nahiko merkea da. Europan asko erabili dute siderurgian, eraikuntzan, autogintzan eta etxetresna elektrikoan enpresetan.

Zuntz horren erabilera guztiz debekatuta dago Euskal Herrian eta, orobat, Europako Batasunean.

Hiru urte dira debekua indarrean sartu zela; poliki-poliki, amiantoa kendu dute lantegi gehienetatik. Aurretik, ordea, leku askotan zegoen, eta langileek, gainera, ez zekiten ez amiantoa zer zen, ez zer kalte zekarren.

Batez ere, 70eko hamarkadan erabili zen amiantoa.

Enpresek amiantoa erabiltzeari utzi badiote ere, oraindik arriskuan daude eraikin zaharrak eraisten lan egiten dutenak, eta lantegietan, bulegoetan, etxebizitzetan eta antzekoetan mantentze eta konponketa lanetan dabilztanak. Igeltseroak, iturginak, arotzak, argiketariak, garbitzaileak, berogailu instalatzaileak eta halakoak.

Asbestosia, mesotelioma eta, oro har, biriketako minbizia sortzen du amiantoak. Amiantoak orban modukoez betetzen ditu birrikak, eta erretzailea izanez gero gaixotzeko

arrisku askoz handiagoa da, adituen arabera.

Tamalez, ez daude kontabilizatuta amiantoren eraginez hil diren pertsonen kopurua eta ez dira asko epaitegietara jo izan duten kaltetuak. Ez da bide erraza izaten; hala ere, egin beharreko bidea da injustizia honekin amaitu nahi badugu.

Jaurlaritzaren aurrekontuak

MAIDER OTAMENDI ETA ION ALBIZU
ESKORIATZA ETA ARETXABALETA

Jaurlaritzak aurrekontu proiektua aurkeztu zuen lehen unetik, herritarren interesei erantzungo zien akordioaren bila jarrera zintzoa izan du EH Bilduk. Jendearen arazo errealak –pentsioak, enplegua, emakumeen eta gazteen egoera– agenda politikoaren erdigunean izatea lortu dugu. Gobernuaren lehen erantzuna izan zen ez zeukala ez dirurik ez eskumen politikorik guk proposatutakoak aurrera ateratzeko; denborak aurrera egin ahala, ordea, agerian geratu da gure proposamena errealista eta egingarria zela, borondate politikoa izanez gero. Tamalez, hori da Gobernuari falta izan zaiona.

Gure proposamenak hiru oinarri sendo zituen:

1.- Jaurlaritzak dituen eskumenak baliatuta, pensio baxuenak 858 euro bermatzerainoosatzea, horixe baita 2008ko legea murrizketarik gabe aplikatzetik eratorriko litzatekeen kopurua.

Aurrekontuen %0,16 baino ez zuen behar horretarako.

2.- Pentsioen osagarria jasotzeko eskubidea zabaltzen hasteko konpromisoa. Egun 190.000 pensio inguru gutxieneko soldataren azpitik daude, baina osagarria 15.000 pentsiodunek bakarrik kobratzen dute. Bistakoa da hor badagoela zer egin.

3.- Kalitatezko enpleguaren alde, 1.200 euroko gutxieneko soldatak bermatzea kontratazio eta lizitazio publikoetan, Jaurlaritzak

ezin duelako prekarietatea elikatu bere esku dauden kontratazioetan.

Zoritxarrez, Urkulluk horri guztiari esan dio ezetz. Bere esku izan du eskubide sozialak zabaltzea, baina aurrekontuak luzatzea nahiago izan du.

Tristeia. Ulertezina.

Bidasoaldeko alardeetako emakumeen kontrako bazterkeria

JUAN RAMON GARAI
ALTERNATIBAREN IZENEAN
ARRASATE

Alternatibak hitzaldia antolatu du Arrasaten hilaren 18rako, Hondarribiko eta Irungo alardeetan emakumeen kontra izaten den bazterkeria aztertzeko. *Emakumeak jaietan, lotsaren alardea* izenburupean, solasaldiak Jaizkibel konpainiako bi kide izango ditu hizlari. Batetik, Oihana Etxebarrieta; eta bestetik, Iñigo Goikoetxea.

Etxebarrietak bere esperientziaren berri emango du, Jaizkibeleko kapitain gisa, maila desberdinetako bitartekaritza ondo ezagutzen baitu. Goikoetxeak, bestetik, iaz argitaratutako lanean bildutako alardearen sorreraren inguruan, tradizioaren garapena eta egungo harrera soziopolitikoa izango ditu hizpide.

Hitzaldia Alternatibaren 10. urtemugaren harira antolatutako hitzaldi sortaren lehena izango da. 2008ko abenduaren 13an jaio zen Alternatiba, Bilboko Bidebarrieta liburutegian eginiko batzar irekiarekin. Data gogoratzeko ekitaldia egingo da larunbat honetan, abenduaren 15ean, Bilboko Itsas Museoa.

Alardearen aferari helduko dion solasaldia datorren asteartean, abenduaren 18an, egingo da Arrasateko Kulturaten (Azoka kalea 1), 18:30ean. Julia Monge ekintzaile memorialista eta feministak aurkeztuko du. Guztiz irekia izango da, aretoaren edukiera bete arte.



Garagartzara egin zuten txangoan 25 lagun batu ziren. SASOIBIDE

'Sasoibide'-rekin bizipozari eusten

'BiziPoz' programatik sortu zen 'Sasoibide', paseoak ematea gustuko dutenen elkargune izan nahi duen proiektua. Dagoeneko bost irteera egin dituzte, eta 25 lagun inguru biltzen dira; urteko azkena abenduaren 20an egingo dute

J.E.-X.G. ARRASATE

Azken datuek diote Euskal Herrian pertsona gehiago hiltzen direla jaio baino, eta gizartearen adinaren batez bestekoa geroz eta altuagoa dela. Adinean aurrera doazen pertsona askok ez dute parte hartze aktiborik izaten; beste askok bai, ordea, adindun izateak ez du-eta indartsu eta ilusiodun pertsonak izatea eragozten.

Arrasateko lagun talde batek ederki erakutsi du teoria hori. Euren ezinegonari irtenbidea emateko asmoarekin, 55 urtetik gorako pertsona edo zahartzaroaren sektoreko agenteen beharren arabera zerbitzu espezializatuak diseinatzeko dituen *BiziPoz* programan eman zuten izena. "Ikastaroaren barruan ikentzenaren bat burutu beharra geneukan, eta, zer gustatzen zitzaigun galdetu zigutenean, guri paseatzea gustatzen zaigula erantzun genuen", kontatzen du Margari Gorrotxategik. *BiziPoz*-koek Madrilen ematen

diren beka batzuetara proiektua aurkezteko animatu zituzten eta han ere hautatuak izan ziren.

"Beka honek gauza guztiak nola antolatu eta egituratu behar ditugun jakiten lagundu digu", adierazi du Gorrotxategik, eta hortik sortu zen *Sasoibide*.

Hasieran, hamaika; orain, 25

Azaroaren 8an hasi ziren txangoekin. Ekilorera joan-etorria egin zuten orduan eta hamaika lagun bildu ziren: "Hamar aurkeztuz gero arrakastatsua izango zela pentsatzen genuen, eta azkenekoetan 25 lagun bildu gara. Gainera, adin tarte guztietakoak, eta egunetik egunera jende berria etortzen da. Badirudi jendea horrelako zerbaiten esperoan ze-

goela", diote *Sasoibide*-tik. Txangoek 5-8 kilometroko distantzia izaten dute eta bi orduko iraupena, gutxi gora-behera.

Ludikotasunaz gain, kultur kutsu bat eman ere nahi diote: "Ekiloren adibidez, bertako lanak azaldu zizkiguten, Garagartzan egon ginenean Ibarretako gurutzeen historia ezagutu genuen gurekin txangoan joan ziren partaide batzuen partetik. Denon arteko jakintzak partekatzen ditugu eta parte hartzea sustatu".

Hurrengo txangoa, hilaren 20an

Bost txango egin dituzte dagoeneko, eta urtea amaitu aurreko azkena abenduaren 20an izango da, beti bezala, goizeko hamarretan hasi eta hamabiak bitartean, gutxi gorabehera. Beti bezala, Biterin elkartuko dira eta herriko beste txoko bat ezagutu eta ezagutaraziko dute. Parte hartu nahi dutenei nortasun agiria eramateko eskatu diete, egingo duten bisitarako beharrezkoa izango baita.

KULTUR KUTSUA ERE EMAN NAHI DIETE TXANGOEI, DENON ARTEKO JAKINTZAK PARTEKATUTA



AGAKO

Lapurreta egin dute gaztetxean

Antza denez, pasa den asteleheneko eguerdi partean sartu ziren lapurrak, sarrera nagusiko atea indarrez zabalduta, eta, behin barruan, dirua ostu eta kalte materialak eragin zituzten. Astelehenean 12:00 eta 17:30 artean gaztetxe ingurutik pasa ziren lekukoen laguntza eskatu dute, lapurrak atzeman ahal izateko.

OHARRAK

2.167 euro Harreman-i

Zarzuolako zozketarekin 2.000 eurotik gora batu ditu Harreman elkarteak Mozanbikeko eta Mumbaiako proiektuetara bideratzeko.

'Pinu krisia' hitzaldia

Pinudietan *banda marroi* gaitza zabaltzen ari dela-eta kezka handia sortu da. *Horren aurrean zer?* galderari erantzungo diote, Kulturaten, Aitziber Sarobek, Kiko Alvarezek eta Naiara Corcuerak, abenduaren 19an, 18:30ean.

Pentsiodunak

Astelehenean, elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan, 12:00etan.

Otarreen zozketa, txu-txu trena, eta abar, Ibai-arterekin

Gabonetarako Ibai-arteko lagunak ekimen pila antolatu dituzte. Besteak beste, 50 otarreren zozketa, herrian zehar ibiltzeko txu-txu trena eta gazteendako animazioak. Zozketatuko diren otarreen banaketa abenduaren 15ean egingo dute, 19:00etan, Herriko Plazan. Ekitaldia girotzeko, ekimena Harresian Zuloaren kontzertuarekin hasiko da. Bestalde, abenduaren 15ean eta 29an, haur eta gazteek disfrutatzeko animazioa jarriko dute Seber Altube plazan, 11:30etik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. Eta, horrez gainera, erosketen unean Erregeetako loteria-txartelak oparituiko dituzte bereziki artean.





EAJko eta PSE-EEko zinegotziak, aurrekontuen aldeko botoa emateko unean; EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik aurka botatu zuten. XABI GOROSTIDI

Xabi Gorostidi ARRASATE

Abenduko osoko bilkura Jose Miguel Salaberriren kargu hartzearekin hasi zen. EH Bilduko zinegotzi berriak Amaia Larrañagak utzitako eserlekua hartuko du abendutik maiatzer bitartean.

Emendakin partzialik gabe

Hainbat puntu interbentziorik gabe onartu ostean, 2019ko udal aurrekontuen onarpenari ekin zioten. Udal Gobernuaren aldeko botoekin onartu zituzten, eta oposizioa hiru alderdiek aurka botatu zuten. Hala, agintaldiko azken aurrekontua 35.225.000 euro ingurukoa izango da -1.777.362 euro Iturbide egoitzaren kudeaketarako dira-; iazkoa baino %3,5 handiagoa. Igoera hori Gipuzkoako Aldundiko Foru Fondoaren aurreikuspenak eragin du. Udal Gobernuak azaroan aurkeztu

Agintaldiko azken aurrekontuak onartu dituzte

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoek ahalbidetu dute hori, eta, aurreko urteetan ez bezala, oposizioak ez du zuzenketa partzialik aurkeztu. Besteak beste, San Andresen bidegorria jarriko dute eta Erguingo igogailua exekutatzan hasiko dira 2019an

zuen bere aurrekontu proposamena, baina EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik ez dute inongo zuzenketa partzialik aurkeztu -Baleikek eta Irabazik osoko zuzenketa bana aurkeztu zuten, baina ez ziren onartu- eta Udal Gobernuaren proposamena bere horretan onartu zen, nahiz eta EAJk eta PSE-EEk autozuzenketa txiki batzuk egin dizkioten.

Aurrekontuan hainbat proiektu aipagarri daude. Besteak beste, Araba etorbidean bidegorria jartzea eta aparkalekuak berrantolatzea, Musakolako espaloiak konpontzea, Santa Barbarako ahateen putzuan ur-parke bat egitea eta Erguingo igogailua egiten hasteko 100.000 euroko diru partida. Azken hori aurrekontu parte hartzaileetan irabazle izandako proiektu bat da, eta Udal Gobernuak jarraipena eman

2019ko aurrekontuko partidak

HIRIGINTZA

- **200.000 euro** Araba etorbidea berriro urbanizatzeko.
- **200.000 euro** Asfaltatze-planak jasotzen dituen ekintzetarako.
- **200.000 euro** Santa Teresa eta Agerre kaleetako ezpona konpontzeko. Guztira, 800.000 euroko kostua izango du.
- **125.000 euro** Jolas parkeen exekuziorako, eta partida honetatik finantzatu da ahateen putzuko ur parkea.
- **100.000 euro** Gipuzkoako etorbideko espaloiak konpontzeko.
- **100.000 euro** Erguingo igogailua exekutatzeko. Kostu totala, 1.000.000 eurotik gora.

KULTURA

- **1.080.000 euro** Juan Arzamendi Musika Etxea ordaintzeko. Partida honekin %100ean finantzatuta geratuko da musika etxe berria.
- **500.000 euro** Kulturola eraikinaren birgaitzerako. Partida honekin birgaitze lanen kostuaren %70 aurreztuta geratuko litzateke.
- **50.000 euro** Amaia antzokiko hobekuntza lanak egiteko. Horien artean, hezetasun arazoak konpontzea aurreikusten dute.
- **6.000 euro** Herrian muralak egiteko. Horietako bat Makatzenan egingo dela aurreratu dute.

ENPLEGU SAILA

- **3.335.000 euro** lazko programak mantenduko dituzte, eta, *GazteLan* programaren ordez, *Lan-r bai* programa jarriko dute.

KIROL ETA GAZTERIA SAILAK

- **40.000 euro** Kiroldegi berriko proiektua idazteko. Anoetako birmoldaketa diseinatu duen enpresa berak egingo du.
- **6.000 euro** Kirol Plan Estrategikoaren barruan dagoen *Guztientzako kirola* proiektuan, kirol egokitua txertatzeko.
- **14.400 euro** Okendo Kirolak denda zegoen lokala behin-behineko txiki-txoko gisa erabiltzeko.

BESTE BATZUK

- **316.456 euro** Udalaren azken kreditua guztiz ordaintzeko.
- **280.000 euro** Bazterkeria egoeran dauden umeen identifikatze goiztiarra egiteko programarako.
- **250.000 euro** Aurrekontu parte-hartzaileentzako.
- **75.000 euro** Indarkeria matxistaren kontrako 2. plana eta plan operatiboa egiteko.
- **15.000 euro** Parte hartze prozesuak egin ahal izateko.
- **10.000 euro** Memoria, bakea eta bizikidetzat lantaldearentzat.
- **5.000 euro** Udalbatzan eta herrian, ikurren parekidetasuna lortzea helburua duen adituen batzordea martxan jartzeko.

Kiroldegi berria jomugan dute

Herriko bi alderdi botatuena -EAJ eta EH Bildu- agintaldi berrira jarri ziren, eta argi esan zuten kiroldegi berria egiteko nahi dutela.

Maria Ubarretxena: "Agintaldi honetan Juan Arzamendi eta Kulturola bezala, hurrengoan kiroldegia izango da gure proiektu izarra".

Eneko Barberena: "Alkatetza lortzen badugu, eta espero dut hala izatea, kiroldegia berritzea izango da gure proiektu nagusietako bat".

MARIA UBARRETXENA
EAJ

"Aurrekontu hauekin Udala Gobernuaren legealdiko programa borobilduko dugu. Juan Arzamendi musika etxea %100ean ordainduta geratuko da, Kulturola %70ean, eta Udala *zero zor* egoeran utziko dugu. Horrek eskuak libre uzten dizkigu hurrengo legealdian kiroldegia berritu ahal izateko".

ENEO BARBERENA
EH BILDU

"Aurrekontuei ezetz esan diegu, ez dietelako herritarren beharrei erantzuten: komertzioak etengabe ixten ari dira, langabezia eskualdeko altuena da eta goraka doa, hileta zibilak egiteko leku duinik gabe jarraitzen dugu, kaleek zikin jarraitzen dute, eta auzoetan behar handiak daude".

OSCAR GARCIA
PSE-EE

"Oposizioak leporatu digu ez ditugula euren eskariak kontuan hartzen, baina hori ez da egia. Aurrekontu parte hartzaileen bidez euren eskarietako batzuk errealitate bihurtu dira. Aurrekontu antisozialak egin ditugula ere esan digute, baina gastu soziala da gehien handitzen den arloa aurrekontu hauetan".

IGOR URIZAR
BALEIKE

"Berdintasun Sailera aurrekontuaren %1,2 bideratzen bada, nekez lortuko dugu gizarte feministago bat. Egia da aurrekontuak igo egin direla, baina benetan susmagarria iruditzen zaigu Gipuzkoako Aldundiko Foro Fondoaren igoera 2019ko udal hauteskundeetan atarian heldu izana".

JUAN LUIS MERINO
IRABAZI

"Aurrekontu kontinuitateak dira, eta ez dituzte kontuan hartzen Arrasateko herritarrek dituzten benetako beharrak". Beraz, ezin ditugu aurrekontu antisozial hauek babestu. Uste dugu EAJren eta PSE-EEren hauteskunde goseari eta irudikeriari erantzuten diotela, eta hori dela-eta jarri diegu osoko zuzenketa".

nahi dio egitasmoari. Horren harira, 2019an ere 250.000 euro bideratuko dituzte aurrekontu parte hartzaileetarako.

Aurrekontuen eztabaida

Aurrekontuak baloratzen lehen EAJko udal taldeko bozera-maila Anuska Ezkurra izan zen, eta hiru adjektibo jarri zizkion onartzetik gertu zeuden aurrekontuei: "Zuhurrak, errealistak eta eraikitzaileak".

Besteak beste, honako aspektu hauek nabarmendu zituen: Juan Arzamendi %100ean eta Kulturola %70ean finantzatuta geratuko direla, Erguingo igo-gailua egiteko prozesuak 100.000 euro izango dituela eta urtarri-lean *zero zor* egoera lortuko duela Arrasateko Udalak. Azken horrekin lotuta, esan zuen egoera pribilegiatuan utziko duela Udala etorkizuneko inbertsio estrategikoak egiteko, eta argi utzi zuen hurrengo agintaldiko EAJren proiektu izarra kiroldegia berritzea izango dela. Agintaldian zehar jolas parkeetan eta mugikortasunean egingako urratsak ere nabarmendu zituen, Makatzenako eta Erguingo igogailuak aipatuta.

EH Bilduko Eneko Barberenak hala azaldu zuen zuzenketarik ez aurkezteko erabakia. "2015-2019 legealdian zehar ia 100 emendakin egin ditugu aurrekontuetarako: 16 lehen urtean, 24 bigarrenetan eta 50 iaz. Hor bada lanerako materiala, uste dugu ondo ezagutzen dugula Arrasate eta erakutsi dugula prestutasuna herriari behar duenean elkarlanera iristeko. Zuek, ordea, ez". Aurrekontua Juan Arzamendik eta Kulturolak "bal-dintzatuta" dagoela esan zuen, eta faltan igarri zituen "auzoak, komertzioa, hezkuntza edo Emakume Txokoa bezalako gaiak"

ez indartzea. "Aurrera egiteko eta herritarren ilusioa pizteko elkarlanerako prest" jarraitzen dutela esan du, eta, horri lotuta, argi adierazi zuen EH Bilduk kiroldegia berritzea duela jomugan datorren agintaldirako. "Uste dugu oraindik badagoela zer eztabaidatu eta zer ikusi erabiltzaileekin, eta baita kirol klubenekin."

Baleikeko Igor Urizarrek esan zuen "adierazgarria" dela Ezkurarren hitzaldian "enplegua, ingurumena edo gizarte zerbitzuak hitzak" ez entzutea. Gizarte feministagoa lortzeko partidak falta direla esan zuen, euren ustez, Berdintasun Sailera aurrekontuaren %1,2 bideratzea ez delako nahikoa. Horrez gain, "susmagarritzat" jo zuen Gipuzkoako Aldundiaren Foro Funtzaren igoera 2019ko udal hauteskundeetan atarian heldzea.

Irabaziko Juan Luis Merinoren ustez, langabezia, auzo eta ingurumen gaiak ez dira kontuan hartzen, eta "adar jotze" hitzekin definitu zuen aurrekontu parte hartzaileetara aurrekontu osoaren %0,75 bideratzea. "Zementua lehenetsi duzue, baina arazo nagusia 1.173 langabe arrasatearrak dira".

Kargu uztea, bertan behera

Berdintasun batzordeburu Ander Garayren kargu uztea eskatu zuten bigarren jarraian Baleikek eta Irabazik. Aurreko osoko bilkuran emandako argudioei, agintaldian zehar eraso matxisten aurkako udal plana berritu ez izana gehitu zitoten. EAJko Ezkurak oso larritzat jo zuen mozioa, eta hura erretiratzeko eskatu zien. Botatzeko orduan EAJren eta PSE-EEren aurkako botoek bertan behera utzi zuten mozioa –oposizioa hiru alderdiek alde botatu zuten–.

Gabonak... ARRASATEN

Abendua 2018

15-29

26-29

15

Gabonetan

Ume eta gazteentzako animazioa

11:30-13:00
16:00-20:00

Seber Altube plazan

Txu Txu Trena

Arrasateko kaleetan

11:00-14:00
17:00-20:00

Zerrajerako eriojutik abiatuta

Harresian Zulo

Kontzertua

Otzaren banaketa

19:00

Herriko plazan

Erregeetako loteria banatuko da

IBAI-ARTEko bazkideen artean erosketa unean

Establezimendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu deitu 688 73 41 49 telefonora



Maider Makatzaga, Jon Cencillo, Maria Ubarretxena, Amaia Aspiazu, Alba Casares eta Jose Miguel Guridi. XABI GOROSTIDI

12.500 euroko bi txeke, radarreko isunetatik

2017ko abenduan hasi ziren martxan Arrasateko hiru radarrak. Ordutik hona, 1.447 isun jarri dira, harrapaketak eta kexek behera egin dute, orokorrean, eta batutako diru kopurutik 12.500 euroko txeke bana eman diete DYAr eta Gurutze Gorriari

Xabi Gorostidi ARRASATE

Urtebete igaro da abiadura neurtezko radarrak martxan jarri zirenetik, eta jasotako datuen berri eman zuten Maria Ubarretxena alkateak eta Amaia Aspiazu Ongizate zinegotziak, asteazkenean. Ez ziren bakarrik egon, ordea, alboan izan zituzten DYA elkarteko Jon Cencillo eta

Maider Makatzaga eta Gurutze Gorriko Miguel Angel Guridi eta Alba Casares.

Radarrak martxan jartzerakoan argi esan zuten hauen helburua harrapaketak gutxitzea zela, eta ez, ordea, dirua batzea. Batutako dirua errepideko istripuak saihesteko lanean ari diren elkarteei emango zietela iragarri

zuten, eta hala egin zuten asteazkenean, 12.500 euroko txeke bana eman baitzieten DYAr eta Gurutze Gorriari.

1.447 isun urtebeteen

Funtzionamenduan hasi zirenetik 1.447 isun jarri dituzte, eta horietako 905 ordainduta daude. Abendutik azarora 122.300 euro

batu dira, baina bertatik 97.300 gastuak ordaintzera bideratu dituzte: neurgailua jartzeko kabinak -18.130 euro-, zinemometroaren alokairua -73.607 euro- eta brigadako langileen gastuak -5.000 euro inguru- eta argindarra -550 euro-. Batutako diruari gastuak kenduta, 25.000 euroko mozkinak geratu dira Udalaren esku, eta horiek bi elkarteei bideratu dizkiete.

Isunak eta kexak

Hiru radarren artean Araba etorbidekoa izan da eraginkorrena harrapaketak gutxitzeko orduan. 2017an sei harrapaketa izan ziren eta 2018an, aldiz, bi. Uribarri harrapaketa kopurua mantendu egin da -iaz bi, eta aurten bi-, eta Garibain, aldiz, igo egin da -iaz bat, aurten bi-. "Harrapaketei dagokienez, argi dago eraginkorrena Araba etorbidekoa izan dela. Besteetan ez dugu harrapaketa kopurua gutxitzerik lortu, baina kexa kopurua asko jaitsi da. Gurasoen aldetik jasotako kexak izan ziren radarrak jartzek arrazoietako bat, eta aurten, adibidez, ez dugu kexarik jaso", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Araba etorbidekoa, finko

Behin datuak esku artean, eta, datorren urtera begira jarrita, bi radar lekuz aldatzeko aukera udaltzaiekin batera aztertzen ari direla esan zuen Ubarretxena. Araba etorbidekoa ez dute

aldatuko, eraginkorrena izan delako, eta, hain zuzen, ez dute baztertu hiru radarreko kopurua handitzea.

DYA eta Gurutze Gorria

Bi elkarte horietako ordezkariak erabat eskertuta agertu ziren, Udalaren aldetik jasotako bultzada ekonomikoak asko lagunduko dielako.

DYAkoe Arrasateko Lehen Hezkuntzako ikasleei formakuntza emateko baliatuko dute dirua: "6 eta 8 urte arteko haurrekin ikurrak eta seinaleak identifikatzen hasteko lanketa egingo dugu; 8 eta 10 urte artekoekin bizikletan edo oinez mugitzeko arauak landuko ditugu; eta 10 eta 12 urte artekoekin, drogen efektuekin gidatzearren arriskuei buruz jardungo dugu", adierazi du Maider Makatzagak.

Gurutze Gorrikoek, berriz, momentu honetan dituzten hainbat behar finantzatzeko erabiliko dute. "Egoera kaxkarrean ditugun ibilgailuak konpontzeko, jostailu kanpainarako eta muletak eta gupil aulkiak doan alokatzeko dugun ekimenerako erabiliko dugu dirua", azaldu du Jose Miguel Guridik.

ARABA ETORBIDEKOA EZ DUTE ALDATUKO, BAINA BESTE BIAK LEKUZ ALDATZEA AZTERTZEN ARI DIRA

GORA ETA BEHERA



Umeak, pintaketak garbitzen

Makatzenako jolas parkea eta frontoia ia amaituta daude, baina, ofizialki inauguratu baino lehen, jada txirristetan lehen pintaketak agertu direla salatu du irakurle batek. Hori ikusita, auzoko gaztetxo batzuek pintaketak garbitzea erabaki zuten, argazkian ikusten den bezala.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



GOIENA

Memoriaren txostena eta dispersioaren aurkako adierazpena

Isaias Carrascoren omenaldia egin ostean, urratsak egiten jarraitzen du Udaleko Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaia. Hala, herritarrei irekitako bi ekitaldi prestatu dituzte datorren asterako. Hilaren 18an, martitzena, dispersio politikaren aurkako adierazpen instituzionala irakurriko dute. Udaletxeko osoko bilkura aretoan izango da, 18:30ean. Bestalde, Argituz elkartearekin egindako *Memoria bateratu baterantz 1956-2018, Arrasate-Mondragon* txostena aurkeztuko dute, egunean, Kulturaren, 19:00etan. Urte horietan zehar Arrasaten izandako giza eskubideen urraketak biltzen dituen lana da.

OHARRAK

Maravillas gaztetxea

Iruñeko gaztetxeko kideek hitzaldia egingo dute Jai-Zale tabernan, gaur, 18:30ean.

Ludotekek 30 urte

Hori ospatzeko, auzolanean zumezko jolas-parke bat egingo dute bihar, zapatua. Hitzordua; Biteri Plazan, 10:00etan.

GPS ikastaroa

Besaide Mendizale Elkartetik hilero antolatuta dute gailu hauek erabileran sakontzeko ikastaro bat. Aurtengo azken saioa zapatuan egingo dute, 09:00etatik 13:00etara. Joan nahi dutenek Android mugikor bat eta USB bat eraman beharko dituzte.

Txatxilipurdiren Jostailu Truke Azoka, bihar goizean

11:00etatik 13:00etara egingo dute Biteri Plazan, eta urtero bezala "ahalik eta azkarren" bertaratzeke aholkua eman dute Txatxilipurdiko lagunek, "jostailu aukera ahalik eta zabalena izateko". Aurtengo jostailu bilketa ondo joan dela adierazi du kanpainaren ardura duen Arantxa Osorok, eta 50 jostailutik gora batzea lortu dute.

Jostailuak trukatzeko aukeraz gain, birziklatutako materialekin jostailuak egiteko tailerra ere jarriko dute, beste behin.

Gurasoentzako, ordea, euskal jostailuen katalogoa jarriko dute, interesa dutenek euskara ardatz duten jostailuen zerrenda esku- ra izan dezaten.

Ane Zuazubiskar bigarren, Xenpelar sarian

Bertsolari gazteengan sona handia duen sariaren finala pasa den domekan jokatu zen, Oreretan, eta sei bertsolari aritu ziren lehian. Zuazubiskar azken buruz buruzkoa jokatzera heldu zen Eli Pagolarekin batera, eta pozik azaldu zen emandako mailarekin

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Zailtasun handiko ariketez betetako saioa izan zen, fin aritzea eskatzen duten horietakoa. Buruz burukoan asko gozatu nuen, Pagolarekin batera abestea asko gustatzen zaidalako", azaldu zuen Zuazubiskarrek astelehenean, finalaren ondoko egunean.

Maila handiko finala

Hiru kanporaketa egin eta gero, honako seikote honek lortu zuen finalerako txartela: Ane Zuazubiskar –Arrasate–, Jon Gurrutxaga –Azpeitia–, Joanes Illarregi –Leitza–, Jokin Bergara –Eibar–, Aitor Salegi –Zestoa– eta Eli Pagola –Ereñotzu–.

Aurkarien mailagatik bakarrik, fin eta trebe aritzeko moduko saioa zen, baina, horrez gain, kontzentrazio handia eskatzen duten ariketez jositako saioa izan zela azaldu Zuazubiskarrek: "Ariketa asko izan ziren buruz burukoaren aurretik: bi ofizio, bi puntukako erantzun, bederatziko txikian bertsoak aurrez hitz bat eman ostean, puntuka eta bakarka. Denetan zailena, akaso, bederatzikoa izan zen. Ez da erraza izaten hitz bakarrekin jarritako gaiei neurria hartzea. Batzuei, *legea* bezalako hitzak egokitu zitzaizkien; beraz, pentsa... Nire kasuan, *adina* hitza jarri zidaten.

Lehen ariketen ondoren, Eli Pagolarekin batera sailkatu zen txapela poltsikoratzeko buruz burukora. "Azken txanpan erosoago aritu nintzen lehen fasean baino. Pagolarekin batera oso gustura aritzen naiz, eta pozik nago egindako lanarekin".

Santamas bezperako saioa

AEDk prest du urteroko bertso saioa. Gonbidatuak hauek dira: Igor Elortza, Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Odei Barroso, Amiar Karrika eta Amaia Agirre. Sarrerak AEDn, Jai-zalen, Iratin eta Monten daude salgai, 10 eurotan –8, AEDko bazkideek eta 5 euro 14 urtetik beherakoek–.

OHARRAK

Hardcore kontzertuak

Black Knives, Broken Legacy, Viborv eta Holy Txala taldeen zuzenekoak gaur gauean, gaztetxean. Sarrera 3 euro da.

Txorbela otxotea

Zapatuan, 20:00etan, kantaldia egingo dute San Frantzisko elizan, 15 abesti berezirekin.

Margolan erakusketa

Therese Ibarrolaren margoak Hilbehera tabernan ikusi ahalko dira abenduaren 14tik urtarrilaren 11ra.

Artisauen azoka

Abenduaren 23an egun osoz, eta 24 goizean, artisauen azoka izango da Seber Altuben, opari errepikaezin ugarirekin.

Erregeen kabalgata

Parte hartzeko, apaiz-etxera joan hilaren 18an, 19an edo 20an, 17:30etik 18:00etara. Entseguak hilaren 26an, 27an eta 28an izango dira.

Besaide ME, zuzendaritza berritzeko kide bila

Gaur egungo zuzendaritzak 2019. urte hasieran amaituko du bere ibilbidea, eta gutuna bidali die bazkide guztiei, zuzendaritza berria osatzeko lagunak bilatzeko. "Historia luze eta handiko elkarte da gurea eta antzeko etorkizuna gura dugu beretzat. Atzetik datozenei mendizaletasuna ezagutarazteko ezinbesteko tresna da".

Santamas pilota txapelketako finalak gaur, Uarkapen

Herriko pilotari gazteek asko dute gaur jokoan, eta 19:00etan ekingo diote lau finalak jokatzeari. Hauek arituko dira lehian: nenjamin aurreko mailan, Aner Rodriguez eta Peru Orue edo Danel Zubia; benjaminetan, Lukken Martin eta Lier Torres; alebinetan, Aner Martin eta Izortz Llodio; eta infantiletan, Aritz Heriz eta Ekain Madina.

Gabonetan irribarre bat opari



Kontsulta eta
aurrekontua
konpromiso
barik

CLINICA DENTAL
BERGARA

Kuadrillako Berdintasun Plana amaituta dago ia

Gaurko aurkeztu behar zioten Emakunderi, eta aurkeztu diote zirriborroa. Abendu amaieran edo urtarrilean erabat itxi, eta uda arteko tartean Kuadrillako Batzarrak eta udalek onartu beharko dute. 'De facto', dena den, amaitu orduko hartuko dute aintzat

Julen Iriondo ARAMAIO

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea eta berdintasun ezaren ondorioak desagerraraztea; horra gaur egungo gizartearen erronka handietako bat. Bide horretan, aurrerapausoa egin nahi du Gorbeialdeko Kuadrillak ere, eta horretarako landu du azken hilabeteetan eskualde mailako lehen Berdintasun Plana, Emakunderen eta Arabako Foru Aldundiaren diru laguntzarekin.

Aramaiok eta kuadrillako beste hiru herriek, Legutiok, Zigoitiak eta Murgiak, izan dute orain arte bakoitzak bere plana. Aurrerantzean, baina, plan bera izango da laurentzat eta Arratzua-Ubarandia eta Urkabustaizentzat, kuadrilla osoarentzat; finean, Berdintasun zerbitzua kuadrilla mailakoa da, eta politikak ere berak dira herri guztietan –irizpide ekonomikoak ere hala egitea aholkatzen zuen–.

Gorbeialdeko Berdintasun Plana egiteko, beraz, bazegoen aurrez oinarri bat, eta, berria lantzerakoan, aurrea egin dutena izan da lehengo ebaluazioa: "Aramaioko kasuan, ebaluazioaren ondorio nagusiak izan dira: Berdintasun Zerbitzua sortu zela 2016 amaieran edo 2017an, eta Berdintasun Plana 2015etik zegoen, ia bi urte pasa ziren plana bultzatzeko pertsonarik gabe, giza baliabiderik gabe, eta hori oso adierazle garrantzitsua da; eta, bestetik, ondorioztatu dugu azken bi urteotan sekulako garapena izan dela, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko", dio Gorbeialdeko Berdintasun teknikari Aritz Palaciosen. Azken baieztapena azaltzeko, adibideak: "Udalaren jardunean, kontratazioan eta diru laguntzetan, berdintasun klausulak txertatu dituzte; Aramaioko Udala Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxista-



Josebe Iturriotzekin egindako saioetako bat. GORBEIALDEKO KUADRILLA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA DU HELBURU KUADRILLA MAILAKO PLANAK


ren kontrako euskal udalerrien elkarteak sartuko da; edo Aramaioko San Martin eskola, hezikidetzako programa duen kuadrillako ikastetxe bakarra da.

Bestalde, egin dutena izan da plan berria izan behar litzatekeenari buruz hainbat lantaldeekin jardun: alkateekin; Kuadrillako arlo desberdinetako teknikariek; eta herritar eta eragileekin. Azkenari dagokionez, Josebe Iturriotz eta Irantzu Varela ekintzaile feministek dinamizatutako bi saio egin zituzten Murgian eta Zigoitian, eta Aramaion beste bat herriko talde feministak eta Itur Zuri emakume elkarteak ordezkariak. Bilerak horietatik irtendako ondorio nagusietako batzuk ondorengoak izan ziren, Aritz Palaciosen hitzetan: "Genero indarkeriak asko kezkatzen duela jendea. Baita hirigintza arloak

ere: emakumeok eramaten ditugu umeen kotxeak eta gorpil aulkia, eta arazoak ditugu hirigintza modu honekin, oso patriarkala eta matxista delako. Eta asko aipatutako beste gauza bat izan zen emakumeok ditugun lan kargak, soldatapeko lanetik aparte, etxean ere sekulako lan pila egiten jarraitzen dugula, gizonen jarraitzen dutelako esparru publikoan egoten eta ez direlako sartu etxeko eginbeharretan, umeen edo pertsona nagusien zaintzan.

Hau guztia kontuan izanda osatu dute edo ari dira osatzen Gorbeialdeko lehen Berdintasun Plana. Lau ardatz nagusi izango ditu: gobernu ona, berdintasun irizpidea transbertsala izanik erakundeetako sail denetan aintzat hartuz; emakumeen ahaldundutza, gizartearen eraldaketarako; zaintza-lanen berrantolaketa –honek beste hainbat esparrurekin duen harremanarekin; lan arloarekin, esaterako; eta indarkeria matxistarekin lotutako lana, prebentzioa, detekzioa eta arreta.

Kuadrilla mailako plana 2019tik 2022ra artean egongo da indarrean.



Antzezlaneko pasarte bat. IMANOL SORIANO

'Hamaika amaren seme (alaba)' etzi, domekan

Eusko Ikaskuntzaren eta Euskal Herriaren historia oinarri duen antzezlan da Dokek taularatuko duena

J.I. ARAMAIO

Mendea bete duen Eusko Ikaskuntzaren enkarguz Josemari Valez de Mendizabalek idatzitako antzezlan da. Oñatin eta Arrasaten eman eta gero dator Aramaiora –19:30ean, kultura etxean–, eta Euskal Herriko lau hiriburutara bidaiatu aurretik.

Doke taldekoen antzezpenaz gain, eszena bereziak eta bideoak ere baditu lanak. Eta Aramaiok protagonismo berezia du: esan bezala, aramaiarra da egilea, eta baita musikaren egokitza-penak egin dituen ere, Sabin Salaberri –musikak presentzia handia du obran, garaian garai-ko pieza esanguratsuak moldatuta–; doinu horiek abesten Papargorri abesbatzakoek jardungo dute, eta antzezle lanetan ere bai; denera, agertokian izango diren hamahiru pertsonetatik hamar aramaiarrak dira.

Josemari Valez de Mendizabalek balioa ematen dio –antzerki taldearen blogean argitaratutako artikuluan– Aramaiok, antzezlan honen bitartez, Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenari egindako ekarpenari, bai eta Doke antzerki taldeak herriarekin duen harremanari ere, bereziki eskertuz Udalaren laguntza, euren entseguetarako aretoa uztearren.



NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA

Urteroko matraka

Urtea amaitzean dagoen honetan, azken hamabi hilabeteetako balantzea egitea ekidin ezina da. Gure burua nahi gabe hasten da eginak, galduak, egin beharrekoak, damuak, irabaziak, ahaztuak... auditatzen, abenduaren 31n benetan zerbait amaituko balitz bezala.

Aldi berean, urte berriarekin batera martxan jarriko ditugun erronken zerrenda egiten hasiko gara. Badira inoiz huts egiten ez duten bi: tabakoa uztea eta kirola egiten hastea.

Baina, hotzean pentsatuta, ez al dugu urte baten amaiera eta bestearen hasiera aitzakia bezala hartzen? Hartzeko kapaz ez garen erabakien lubaki ez ote dugu bihurtzen?

Horaciok bere Odan ospetsu egin zuen *Carpe diem*-a bizitzako mantra bihurtu beharko genuke. Norbere buruarekin zintzoak izan eta erabakiak orain eta hemen hartzen ikasi. Gure egunerokotasunean zerbait aldatu nahi badugu, zergatik itxaron urtarrilaren 1era? Eta, zerbaitek kalte egiten badigu, zergatik luzatu abenduaren 31 arte? Urte zahar eta berria urtero joan eta etortzen dira, baina bizitza bakarra da.

ZUZENKETA

Aurreko astean, Manex Agirrerren argazkia jarri genion, akatsez, Manex Arriolabengoaren zutabeari. Lerro hauen bitartez, barkamena eskatzen diegu biei.

OHARRAK

Birringailua

Udalaren birringailua (trituratzailea) erabiltzeko derrigorrezko formakuntza saioa egingo da abenduan. Astelehena baino lehen eman behar da izena udaletxean.



Neguko azokari begira udal ordezkariak hainbat merkatariekin eta artisaurekin ateratako talde argazkia. IMANOL BELOKI

Neguko azokan, bertako produktu eta ekoizpenak

Gaur iluntzean UDAkoek egingo duten buzkantz-dastatzearekin emango zaio hasiera azokari, eta bihar eta etzi, herriko merkataria, artisauak eta ekoizleak batuko dira plazan jarritako karpan, dituzten produktuak herritarrei eskaintzeko asmoz

Imanol Beloki ARETXABALET
Neguko azoka laugarren urtez egingo dute Aretxabaletan, aste-buru honetan. Herriko merkatari eta ekoizleak bultzatzea helburu duen ekimen hori arrakastatsua izan da aurreko edizioetan, eta aurreko ere halakoa aurreikusten du Udalak. Hori horrela, karpa izango da jarrita hainbat egunetan, herriko plazan,

eta bertara doazenez produktu ezberdinez gozatu ahal izango dute. Honela adierazi du Naia Agirrek, Enplegu eta Garapen teknikaria: "Neguko azokaren helburua herriko merkataria, artisau eta ekoizleei laguntzea da. Horrekin batera, herritarrei, Gabonetako erosketak herrian bertan egiteko gonbidapena egin nahi diegu".

Zapatuan eta domekan, guztira, 23 postu jarriko dituzte herriko plazan, asteburuan egingo den neguko azokaren baitan, eta ordutegia honako hau izango da: zapatuan 10:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era izango da azoka zabalik eta domekan, goizez bakarrik. Hala ere, gaurtik egongo da karpa jarrita, eta, eguaztenera bitartean, beste

hainbat ekintza ere antolatu dituzte.

Motorrak berotzeko, buzkantzak
Neguko azokari hasiera emateko, gaur, buzkantz-dastatzea eskainiko dute UDA kirol elkar-tekoek. 18:30ean izango da, eta, haiekin batera, Aretxarte Merkatari Elkartekoek haurrentzako joko ezberdinak aterako dituzte plazara.

Ogia egiten ikasteko aukera
Astelehenean eta eguaztenean, abenduaren 19an, bestalde, ogia egiteko tailerra egongo da karpan arratsaldeko bostetatik aurrera. Aretxabaleta okindegiko Antonio Herruzo okina izango da tailerra ematen, eta herritar ororentzat izango da. Hori horrela, ez dago izena eman beharrik.

Martitzenean, bestalde, urtero egiten den Gabonetako kontzertua eskainiko dute Leizarra musika eskolakoek. Emanaldia 18:00etan izango da, herriko plazan, eta ordubete inguru iraungo du.

GKEen presentzia
Herriko ekoizle, artisau eta merkatariekin gain, Hiruatx gobernuz kanpoko erakundea eta Harreman denda ere izango dira azokan. Hotz Oñati taldekoek abian duten kanpainarekin bat egingo du Hiruatxek, eta salmentan jarriko ditu Grezian egindako tazak. Ateratako dirua Greziako proiektu ezberdinak finantzatzeko erabiliko da. Bestetik, Oñatiko Hermansoloña GKeri ere lagunduko dio Hiruatxek. Saharako kanpamentuen alde eta Oñatin dauden etorkinen alde produktuak batuko dituzte herriko plazako arkupeetan jarritako kaxetan.

Neguko azokako postuak

23 postu izango dira Aretxabaletako herriko plazan, askotariko produktuak saltzeko asmoz.

Merkataria

- Belar Meta.
- Lie.
- Kiloka.
- Tinta Beltza.
- Titare.

Ekoizleak

- Mendibitzu.
- Etxe Zuri.
- Jakion.
- Jose Lombide

Artisauak

- Okila
- Gu Haziak Gara
- Kontxi Gonzalez
- Iban Urreta
- Nerea Maskariano
- Mari Luz Osorio
- Lara Garcia
- Izaro Sanchez
- Yael Eva

Idazleak

- Josune Murgoitio

Musikaria

- Ibai Mujika

Beste Batzuk

- UDA
- Orly taberna

Hiruatx eta Harreman gobernuz kanpoko erakundeak ere izango dira bertan.

Basotxo elkarteak egitarau zabala antolatu du abendurako

Gaur, Trintxerpen izango dira kantuan Basotxokoak, hantxe egingo den Abesbatzen Topaketan

I.B ARETXABALET

Basotxo elkarteak hainbat ekintza izango dituzte abenduan. Eguaztenean, Tabakalera bisitatzera joan ziren elkarte kideak. Atzo, berriz, 90 urtetik gora dituzten bederatzi herritar

omendu zituzten. Oroigarriak eman eta dantzak eskaini zituzten, eta, ekitaldiaren amaieran, txokolate-jana izan zuten. Gaur, bestalde, abesbatza taldekoak Trintxerpen izango dira kantuan, Gipuzkoako erretira-

tuen elkarteak antolatutako Abesbatzen Topaketan. San Tomas egunean, bestalde, Gabonetako 40 saskiren zozketa egingo dute, 17:00etan, Basotxoko artean. Amaitzean, txistor-jana izango da guztientzako.

Abenduaren 24an 10:00etan batuko dira Basotxoko abesbatzakoak haurrekin batera, Aretxabaletako kaleetan zehar abesteko.

Abenduaren 31n, 17:00etatik aurrera izango den krosarekin bat egingo dute.

Blanca Martinezen margo erakusketa ikusgai Arkupen

Blanca Martinez margolariak *Urdinetik bioletara* erakusketa prestatu du Arkupen. Teknika desberdinak erabili margotzen du: olio, akrilikoz... eta bere lanak abenduaren 29ra arte ikusi ahal izango dira: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, aste barruan. Zapatuetan, berriz, goizez. Eta domeka eta jaiegunetan itxita izango da.



Erakusketako lan bat. MIRARI ALTUBE



Azaroaren 16an Arlutz tabernan egindako sarekada. GOIENA

Hiru sarekada egin dituzte hiru astean

Aretxabaletako Udaleko Prebentzio Sailak eskutitz bat bidali zion Ertzaintzari, eta orain arte hartu diren neurriak honako hauek izan dira: hiru astean, hiru sarekada. Haizea, Ezkutu eta Arlutz tabernetan izan dira, eta hainbat isun jarri dituzte horietan

Imanol Beloki ARETXABALETA

Hiru astean hiru sarekada egin ditu Ertzaintzak Aretxabaletako hiru tabernetan: azaroaren 3an Haizean, azaroaren 10ean Ezkutu eta, azkenik, azaroaren 16an Arlutzen.

Aretxabaletako Udaleko Prebentzio Sailak Ertzaintzara bidalitako eskutitz baten ondorioz hartutako neurriak izan direla adierazi du Unai Elkoro Aretxabaletako alkateak. "Presentzia polizial gehiago egoteko eskatuz, eskutitza bidali genuen Ertzaintzara, baina hartu diren neurriak, pertsonalki, ez dut uste egokienak izan direnik. Herrian komentatzen da zerbait egin beharra dagoela, baina ez dakit bidea hori denik. Kexa formalik ez dugu jaso, baina badakit hainbat herritar porra egiten aritu direla, hurrengo sarekada zein tabernetan egingo zuten...", adierazi du Elkoroak. Hala ere, herrian dagoen inpunitea bukatu beharra dagoela gaineratu du alkateak: "Iden-

tifikatuago izan behar ditu Ertzaintzak, eta ausazko sarekada horiek sustotxoren bat emateko balio dute, baina, egun batzuk pasata, jendea ahaztu egiten da".

Harridura herritarren artean

Ez dira hain ohikoak halako esku-hartzeak herrian, eta, sarekada egin zuten taberna bateko jabearen esanetan, harrituta daude Ertzaintzak hain denbora gutxian hiru sarekada egin izanaz: "Bezeroentzat ez da batere atsegina sarekada baten egotea. Izan ere, 6 edo 7 patruila, 10 edo 12 ertzain etortzea, taberna eta bezeroak miatzen hastea, nortasun agiriak eskatzea... Egoera hori desatsegina

HAINBAT ISUN ADMINISTRATIBO IZAN DIRA ARETXABALETAN EGINDAKO HIRU SAREKADATAN

da, eta horrek herriko giroan eragiten du. Sarekada izango den beldur, tabernetara ez da egun batzuek inor arrimatzen, nahiz eta hori aldatzen joaten den poliki-poliki. Dena behar bezala badago, ez da ezer gertatzen, baina izan litezkeen eta izan diren isunak gogorak izan ohi dira...".

Tabernan zeuden hainbati isuna

Ertzaintzaren Segurtasun Sailak adierazi duenez, droga aurkitzean, delitua leporatu edo salaketa administratiboa jarri daiteke. Hala, hauek izan ziren jarritako isunak, denak ere administratiboak: "Haizean, hiru salaketa jarri ziren: bi bezerori, droga gainean eramateagatik, eta jabeari, droga kontsumitzea toleratzeagatik. Ezkutun, lau salaketa izan ziren; lau bezerok kontsumo propiorako zituzten drogengatik. Azkenengoan, Arlutzen, bertan zeuden hamalau pertsona identifikatuak izan ziren, baina ez zen isunik izan".



Bertso-liburua jaso zutenek ateratako talde argazkia, Arkupen. MIRARI ALTUBE

2017an jaiotakoek Lekaixokaren bertso-liburua jaso dute

Lekaixoka bertso-eskolako kideek Aretxabaletako 39 umerendako prestatu dituzte aurten bertsoak

I.B ARETXABALETA

2017an jaiotako haurrek opari ederra jaso zuten eguaztenean, Arkupen, Lekaixoka bertso-eskolako partetik. Izan ere, laugarren urtez egin dute jaioberriendako bertso liburua Lekaixokakoek, eta aurten, 39 umeek jaso dute. Horiendako bertsoak gertatzen Lekaixokako hamar kide ibili dira urriaz geroztik. Umeen datuak eta haien gaineko argibideak jaso zituzten ize-na ematerakoan, eta horiek osatu dituzte bertsoak. Argazki bana ere jarri diete alboan.

Bertso-liburu banaketaren ekitaldia Igor San Juan musikari aretxabaletarrak girotu zuen, eta bertaratu zirenei, bertso eskolako hainbat kidek egin zieten harrera. "Bizkai aldeko herri batetik datorren ohitura dela esango nuke, ez daukat gogoan zein herritatik datorren, baina guk ideia har-

tu, eta Udalarri proposatu genion Aretxabaletan egitea. Orduan, hitzarmena sinatu genuen, eta orain arteko emaitza oso positiboa izan da. Gurasoek eskertu egiten dute egindako lana, eta ekitaldia momentu polita izaten da. Lana egiteko, berriz, gurasoei haurren gaineko datuak eskatzen dizkiegu, eta hortik ateratakoarekin osatzen dugu haur bakoitzarendako bertso bana".

Koplak, baserriz baserri

Abenduaren 24an ere ohitura dute Lekaixoka bertso-eskolakoek goizean batu eta koplata base-rriz baserri aritzeko. Hori horrela, aurten, Izurieta eta Galartara joango dira 24 goizean, trikitilarien eta gazte taldekoen laguntzarekin koplak abestera. Horrekin batera, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ekime-nean parte hartzera.

Abenduan zehar hainbat antzerki izango dira Arkupen

Datorren eguazten eta eguenean, Kurtzebarri eskolakoek antzerkiak ikusteko aukera izango da. Eguaztenean, 17:30ean, Kurtzebarri eskolako ikasleek eta Apropox Sormen Iturri-k *Kirol Etxea* lana taularatuko dute Arkupeko Zاراia aretoan. Ikusi nahi duten guztientzat irekia izango da saioa, eta sarrera, berriz, doakoa izango da.

Eguenean, *Zaletasuna*, *neurtu beharreko sentimendua* lana taularatuko dute, ordu berean, Arkupen.

Kurtzebarri eskolakoek lanez gain, bihar, zapatua, abenduaren 15ean, Pantzart taldearen *Kolorez kolore* 3 eta 6 urte bitarteko umeentzako antzezlan izango da, 11:30ean.

Urtea amaitu aurretik, abenduaren 27an, Txalo Produzioen *Zoaz pake santuan* antzezlan ikusteko aukera izango da Arkupen, 19:30ean.

"Baso beltz bat da Gabon sasoia askorendako"

EIDER OTXOA DOLU-LAGUNA

Doluaren gainean jardungo du abenduaren 17an, Kuku Miku elkartearekin, Maite Urzain terapeutarekin batera, eta biolin doinuekin goxatutako saioa eskainiko dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Irailaz geroztik du bulegoa Aretxabaleta Aralar kalean, eta terapia lanak egiten ditu han. Astelehenean Kuku Miku elkartearekin egingo duen saioa herritar guztiei dagoela zabalik adierazi du; horretarako, izena eman behar da aurretik.

Kuku Mikun egingo duzun saio horretara edonor gertura daiteke...

Bai, bai, herritar guztiei dago zabalik, pentsatuta jende asko dagoela doluan dagoena. Gero, argibide batzuk ere emango ditugu umeei zelan landu gaia.

Eta zer landuko duzue?

Doluari izena jartzen hasiko gara; izan ere, askotan, ez dakigu zer den. Heriotza baten ondoren sortzen da eta *dolere* berbatik dator, mina sentitzea; garai gogorra da eta inork ez du bizi gura izaten. Horregatik, gaineratik pasatu izan gara, ea joaten den esanaz; gure barruan, baina, ezinegon handia dago, eta galduta sentitzen gara. Terapia bidez laguntza emateko dago dolu-laguna, eta saioa izango da terapia kolektibo bat. Maite Urzain terapeuta arrasatearra eta biok egongo gara bideratzeko. Alba Payasek sortutako metodologia jarraitzen dugu, eta horrek oso kontuan hartzen du hildakoarekin izan den harremana.

Gabonak ate joka ditugu; ez da izango garai samurra, ezta?

Oso garai zaila da doluan dauden pertsonendako. Urte guztian minduta baldin badaude, Gabonetan hirukoiztu edo lauukoiztu egiten da min hori. Garai zaila da, mundu guztia pozik dagoelako eta pertsonak elkartzeko sasoia delako; eta etxe batzuetan norbait falta da. Falta den horren behar handia sortzen da: emozioek gain hartzen gaituzte, zulo beltz batean sartu... Baso beltz bat da doluan dagoenarendako Gabon sasoia.

Hortaz, Gabonak zelan bizi argibideak emango dituzue?



Eider Otxoa, Aretxabaleta Aralar kalean duen bulegoan. MIRARI ALTUBE

"ASKO KOSTATZEN ZAIGU BERBA EGITEA, ETA HORRETARAKO ESPAZIO BAT ZABALDUKU DUGU"

Familiek zer egin izan duten egunotan jakingo dugu lehenengo. Galeraren bat izan duten familia batzuk kanpora joan izan dira, etxean ez pasatzearren, eta beste batzuek ezer gertatu izan ez balitz moduan jokatzeko dute. Guk hirugarren proposamen bat egingo diegu: Gabonei beste zentzu bat eman, falta diren horiek ez daudenetik. Hala, doluan dagoen pertsonak eskaera egingo die senideei zelan ospatu erabakitzeko eta akordio batera iritsiko dira. Horretarako, bilera bat egiten da lehenengo, eta arau gutxi batzuk zehaztu. Doluan gaudenok gure minaren berri ematen dugu, eta besteari ere minaren gainean berba egiteko baimena ematen diogu. Sentimenduen gainean berba egiteko unea izaten da. Eta Gabon egunotan zer egin erabakitzeko unea da: falta denaren argazki bat

jarri zuhaitzean, umeei parte hartzeko aukera eman eta berba batzuk idatzeko edo esateko unea eskaini... Sentitzeko baimena ematen da eta guztiok egingo dugu negar.

Isilean gordetakoa kanpora ateratzeko aukera ematen duzue zuek?

Hitz egiteko espazio bat zabaltu gura izaten dugu guk, asko kostatzen zaigulako berba egitea. Ederrak izaten dira hitzaldiak, falta den horrekin konektatzen dutelako datozenek, eta ederra da gero konpartitzea. Amaia Arzamendi eta haren ikasle bat etorriko dira biolin doinuekin girotzeko, musikaren bidez erregulatu egiten direlako sortzen diren emozio horiek guztiak.

Dolua lantzeko ohiturarik ez dago...

Dolua lehen zen: ahaztu eta pasatuko da. Baina horrek pertsona isolatu egiten du, mina duelako barruan, bakardadea, berba egin beharra. Lehen, ez zegoen baliabiderik, baina orain, profesionalizatuta dago, metodologia bat dago, eta terapia bidez lantzen da. Terapia emozioak errehabilitatzeko modua dela esaten diet nik, barruan gordetzen joaten den horrek, gerora, beste osasun arazo batzuk dakartzalako.

Idazten trebatzeko ikastaroa antolatu du Loramendik

Leintz euskaltegiko irakasle Karmele Agirregabiriak gidatuko du eta urtarilaren 12an hasiko dute

M.A. ARETXABALETA

Idazkuntza tailerra antolatu du Loramendi elkarteak datorren urterako. Karmele Agirregabiria eskoriatzarra –Leintz euskaltegiko irakaslea– izango dute euskaraz idazten hobetzeko lanetan erakusle, eta, besteak beste, honako kontu hauek landuko dituzte: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, puntuazioa eta argitasuna. "Edonori dago zuzenduta; hain zuzen, horregatik antolatu dugu zapatu goizetarako, adin ezberdinetako jendearekin zabalteko", diote Loramendiko kideek.

Lau zapatutan (09:30-12:00) egingo dituzte eskolak: urtarilaren 19an eta 26an eta otsailaren 2an eta 9an.

Izena emateko epea zabalik dago; hona hemen bideak: Loramendiren bulegoa –udaletxe zaharra– 685 75 67 29 euskara@loramendielkartea.eus. Bazkideek 15 euro ordainduko dituzte eta gainerakoek, 18. Taldea osatzeko, gutxienez, sei ikasle eman beharko dute izena. "Ikasleen nahien arabera, posible izango da luzatzea, gaiak sakonago lantzeko", diote antolatzaileek.

Mendi federatze aukerak aldatzeko epea hilaren 18a arte

Murrukixoko mendizale elkarteak, urtero lez, federazio aukeren berri eman die bazkideei gutun bidez. Aurten, baina, datuak ezin izan dituzte eguneratu, bazkideen kudeaketa programa aldatu egin duelako Federazioak, eta oraindik ez zegoelako erabilgarri gutuna bidaltzerakoan. Hori horrela, aldaketak egin gura izanez gero abenduaren

18a dela azken eguna jakinarazi dute: "Epe hori dute bereziki lizentzian edo kontu korrontean egin beharreko aldaketek", diote. Helbidea edo datu pertsonalak aldatu gura izanez gero, ostera, epea zabalik izango da.

Zalantzak argitzeko eta aldaketak egiteko, hona bideak: murrukixo@outlook.com eta Murrukixoren egoitza (Durana kalea), martitzenetan (19:00-20:00). Mendi Federazioaren gaineko informazioa, ostera, honako webgune honetan dago: Emfeus.com.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Irisgarritasuna bermatzeko lanak

Azken asteotan zebra-bideak errepideen mailara egokitzeko egiten dabiltzan lanak txalotu gura ditu herritar batek, bereziki, "gurpil aulkian dabiltzanek asko igarriko dutelako".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



2019ko aurrekontu proposamenaren barruan, kiroldegi aurreko jolas-parkea berritzea aurreikusten dute. IMANOL BELOKI

Aurrekontu prestaketan adostasuna lortu dute

2019ra begirako aurrekontuak abenduaren 18an izango dituzte hizpide osoko bilkuran. Aurreikusten duten inbertsio nagusietako bat da San Pedro auzoan Manuel Muñoz kiroldegi aurrean dagoen 'Partxis' jolas-parkea berritzea

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzako ordezkariak abenduaren 18an izango dituzte hizpide 2019. urtera begirako aurrekontuak. Udal Gobernuak proposamena eskaini zien beste alderdietako kideei, eta horien bueltan lanean izan dira azkenaldian. "Elizateen elkartearekin eta Bildukoekin aurrekontuak babestu ditugu. Pozik gaude, akordio zabalarengatik, eta osatu dugun aurrekontu proposamenarekin", adierazi du Josu Ezkurdiak, Mugikortasun eta Hirigintza batzordeburuak.

Diru gehiago erabilgarri

Diru sarrerei dagokienez, Foru Funtza handitu egingo da datorren urtera begira. 138.000 euro handituko da. Iaz baino %5 gehiago. Inbertsioei dagokienez, berriz, diru kopurua asko handituko dela adierazi du Ezkurdiak: "230.000 euro izatetik 310.000 euro izatera pasako gara, %34 gehiago. Gastu sozialean ere,

Gizarte Zerbitzuetan asko handitu dugu diru kopurua: 600.000 eurotik 777.000 euro izatera pasako gara; hau da, %27 gehiago".

Inbertsio nagusiak

Inbertsioen barruan, honako lan hauek egitea aurreikusten dute: San Pedro auzoan *Partxis* izeneko jolas-parkea goitik behe-ra aldatu nahi dute. Horretarako, 80.000 euroko aurrekontua aurreikusten dute. Horrekin batera, brigadako langileentzat ibilgailu berria erosi nahi dute -74.000 euro-. Eta elizateetan, berriz, 60.000 euro izango dituzte argiteriarendako eta bideen konponketarako, eta kaleko argiteriarako 43.000 euro erabili nahi dituzte.

EH BILDUK PROPOSATUTAKO EKARPENAK ONARTUKO DITU ALDERDI JELTZALEAK

EH Bilduren ekarpenak, aurrera EH Bilduko Aitor Zubizarreta bozeramaileak adierazi duenaren arabera, akordioa egingo dute alderdi jeltzalearekin eta Elizateen elkartearekin batera, eta, sinatzeko dagoen arren, aurrekontu proposamenean landu denarekin "pozik" agertu dira.

"Oinarrizko hiru puntu gaineratu nahi izan ditugu aurrekontu proposamenean. Prekarietatearen kontrako akordioa, hau da, Eskoriatzako argazki bat egiteko mahai bat osatzea, eta gaia lantzea. Kale hezitzaileekin batera, nerabeei arreta ezartzeko urratsak egitea. Eta, azkenik, Euskal Presoek pairatzen duten egoeraren, disperzioaren, konpromiso irmoa".

Horrez gain, beste hainbat konpromisorekin bat egiteko eskaera ere egin diete EH Bildukoekin Udal Gobernuak kideei: Atxorrotzeko indusketak, Gatz Bidie eta talde zapatistari urtero ematen zaion laguntza bikoiztea, besteak beste.

Etorkizuneko Eskoriatza egiteko ekarpen jardunaldiak, zapatuan

EH Bilduk herritar guztiei zuzendutako saioa antolatu du; kultura etxean izango da, goizeko hamarretan

I.B ESKORIATZA

Herritarren ekarpenak jasotzeko asmoz, EH Bilduk herri-bilera antolatu du zapatarako. 2030ean, nolako Eskoriatza izan nahi dugu? lelopean, kultura etxean izango da hitzordua, 10:00etan, eta 12:00etarako amaituta izatea aurreikusten dute. Bertan, lau taldetan banatuta, honako lau puntu hauek landuko dituzte: hirigintza, herri integratzailea; herri bizia: kirola, kultura, euskara, hezkuntza; herri soziala, denona; eta garapen ekonomikoa, herri bizitza.

"Gure bailaran eta mundu osoan aldaketa handiak gertatzen ari dira eta gertatuko dira; horren aurrean, herri egitasmo sendoa behar dugu. Proiektu estrategiko honekin, irismen handikoa izango den abiapuntua martxan jarri nahi dugu, eskoriatzarren beharrak gizarteratu eta herri eztabaida isiotuz", adierazi dute EH Bilduko ordezkariak. Hori horrela, herri bilera irekita joan ezin nahi duenak ekarpenak egin ditzake mezua bidaliz eskoriatza@ehbildu.eus helbidera.

Angel Bañares banda zuzendariari omenaldi kontzertua

Angel Bañares Eskoriatzako musika bandaren zuzendaria izan da 35 urtez, eta orain, haren testigua Jesus Urrutiak hartu du. Hori horrela, Angel Bañaresi hainbeste urtean egindako lana aitortzeko antolatu du Beheko Errota Musika Eskolak kontzertu omenaldia. Zapatuan 19:30ean izango da, Manuel Muñoz kiroldegian.

Horrekin batera, musika eskolak urtero antolatzen duen Gabonetako kontzertua eskaintzeko ere aprobetxatuko dute. Beraz, ikasleek eta irakasleek hainbat abesti joko dituzte. Batzuk; bakarrik; beste batzuk, taldean. Hala, instrumentu ezberdinen musikaz gozatzeko aukera izango da.

Antolatzaileek adierazi dute sorpresak ere izango direla, baina ez dute nahi izan ezer aurreratu; herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte bertara.

GORA ETA BEHERA



Intxaurtxueta ere Gabonetarako apaintzen

Hainbat herritarrek sare sozialetan zabaldu dutenaren arabera, Udalak ez ditu Intxaurtxuetan Gabonetako apaingarriak jarri. Hori horrela, hainbat auzotar familian batu, eta Gabonetako zuhaitza apaingarriekin jantzi dute, herri sarrerako belardian.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



SUSANA GOMEZ

Gabonetako parkerako begiraleak behar dituzte

Abenduaren 27an eta 28an haurrentzako Gabonetako jolas-parkea izango da kiroldegiko kantxan. Bertan, eskulanak, puzgarriak, eta abar izango dituzte haurrek. Abenduaren 26an, berriz, igerilekuan puzgarriak jarriko dituzte


Imanol Beloki ESKORIATZA

Urteroko ohiturari jarraituz, aisialdirako aukera zabala izango da abenduaren 27an eta 28an Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian egingo den Gabonetako parkean. Adinaren arabera hainbat gune izango dira, eta aukera ezberdinak izango dituzte haurrek bertan disfrutatzeke. Orduetgia, berriz, 11:00tik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da. Hori horrela, begiraleak behar dituzte bertan lan egiteko, eta Udalak deialdi zabala ireki du, bertan lan egin nahi duen ororentzat.

Begiraleen eginbeharrak honako hauek izango dira: eskulan tailerrak antolatu, puzgarrieta-rako txandak eta zainketa antolatu, sarrerak saldu eta parkea garbi mantentzeaz arduratzea, besteak beste.

Begirale izateko

Begirale izan nahi duen gazte orok curriculuma bidali dezake



Begiralea, haurra margotzen. GOIENA

gazteria@eskoriatzka.eus helbidera, edo Eskoriatzako kultura etxera joan beharko du. Horrez gain, informazio gehiago nahi duenak kultura etxera deitu dezake, 943 71 46 88 telefono zenbakira. Curriculumak entre-

gatzeko azken eguna abenduaren 19a izango da. Hainbat baldintza bete beharko dituzte bertan lan egiten dutenek, eta lehentasuna Eskoriatzako gazteek izango dute. Hori horrela, ezinbestekoa izango da euskaraz hitz egiten ondo jakitea eta baita 18 urte beteak izatea. Titulu ezberdinak eta lan esperientzia izatea ere baloratuko dira puntuazio sistema bidez; horiek Eskoriatzka.eus webgunean kontsultatu daitezke.

Betikoak eta jolas berriak

Plastikozko koloretako pieza txikiekin egindako irudiak, puzgarriak, aurpegia margotzeko tailerra, ohe elastikoak, kontsola ezberdinekin jokatzeko bideojokoak, ping-ponga, mahai futbola... izango dira bertan.

Orotara, hamahiru begirale egongo dira lanean Gabonetako parkean, eta, ohikoa den moduan, abenduaren 26an igerilekuan puzgarriak egongo dira.



ARESKO

June Guenetxea, selekzioarekin

Aresko errendimenduzko infantil mailako Eskoriatza eta Aretxabaletako emakumezkoen saskibaloi taldeko June Guenetxea jokalaririk –hirugarrena, ezkerretik hasita– Euskal Selekzioarekin ere jokatu du, infantil mailan. Hori horrela, asteburuan, hainbat lagunarteko partidu izan dituzte, Asturiasen, Gaztela eta Leonen eta Galiziaren aurka.

Txistorra-jana Eskoriatzako jubilatueendako

Olazar Jubilatu Elkartek txistorrada antolatuko du abenduaren 18an, datorren martitzenean, kultura etxean. Urtero egin ohi duten moduan, ardo pixka batekin lagunduta jateko, txistorra pintxoak egingo dituzte elkarreko hainbat lagunek, bertan batzen diren guztientzako. Giro ederra izaten dute bertan, eta aurten ere, halakoa aurreikusten dute. Hori horrela, 18:30etarako egin dute hitzordua antolatzaileek.

Iaz, 500 txistorra pintxo egin zituzten, eta 140 lagun inguru batu ziren kultura etxean egindako hitzorduan. Hala, aurten ere, horrenbeste horrenbeste egingo dituzte.

LEINTZ GATZAGA 19

"Gauza berriak ikusi eta ikasi behar dituzte, errutinatik aterata"

ANE ARRAETA LUDOTEKAKO BEGIRALEA

Azaroan hasi zen lanean, beste metodologia batekin

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako ludoteka berrikuntzekin hasi da ikasturte honetan. Izan ere, Gurel guraso elkarteko kideek metodologia aldatzea erabaki zuten iaztik hona. Metodologia aldaketaz gain, ludotekari berria ere estreinatu dute. Ane Arraeta eskoriatzarra da Leintz Gatzagako ludotekari berria. Azaro hasiera ezker ari da herriko gazte-txoenekin ekintzak egiten, eta orain, Gabonak gertu, egunotarako ekintzak prestatzen eta gauzatzen ari da.

Lan handia ematen al dute Gatzagako haurrek?

Niretzat, ez dute lanik ematen. Gustuko dut nire lana; beraz, beraiekin disfrutatzen dut. Egia da batzuetan pazientzia handia behar izaten dela, baina oso gustura nago.

Ludotekan txoko ederra duzen arren, kanpoko ekintzak ere sustatzen dituzue, ezta?

Aurten, azaroan hasi gara ludoteka zerbitzuarekin; horrenbestez, eguraldia dela-eta ez gara kanpoan ibili. Aurrera begira, baina, eguraldiak laguntzen digunean, kanpora joateko asmoa daukagu, herriko txoko ezber-



Ane Arraeta. GOIENA

dinak bisitatuz, hala nola pilotalekua eta baratzea.

Gatzagan haur gutxi dauden arren, beharrezko zerbitzua da, ezta?

Bai. Haur gutxi izan arren, hauek ere beste herri batzuetako umeei dituzten eskubide berberak dituzte; beraz, ludoteka beharrezko zerbitzua dela uste dut.

Aurrera begira, zein ekintza egitea duzue buruan?

Aurrera begira, ekintza desberdinak egitea interesgarria izango litzateke. Haurrak beraien errutinatik atera eta gauza berriak ikusi eta ikasteko.



GATZ MUSEOA

Gatzagako gatzak, Donostian

Konstituzio zubian, *Sagardo apurua* izeneko egitasmoa izan da Donostian, eta Leintz Gatzagako gatzak ere izan du presentzia. Izan ere, Gatz Museokoak bertan izan dira. *Sagardo apurua*-n, garai bateko sagardotegi bat berregiten da Bulebarrean, orduko Donostiako sagardotegi eta baserrien itxura eta giroa biltzen dituen.



La fiesta de la Madonna antzezlan, martitzenean, Espaloian. L.Z.

Erretiratuen kultura asteak, parte hartze polita

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, bingo saioa, 'La fiesta de la Madonna' antzezlan eta Alai Taldearen kontzertua izan dituzte erretiratuek asteen. Gaur emango diote amaiera 2018ko kultura asteari, Ozkarbi elkartearen egingo duten txistor-janarekin

Larraitx Zeberio ELGETA

Urteroko ekintza sorta antolatuta du Elgetako erretiratu elkarteak kultura asterako, eta 50 bat lagunek hartu dute parte gehienetan. Martitzenean, esaterako, *La fiesta de la Madonna* antzezlan eskaini zuten ONCE erakundeko kideek, eta, tonu umoretsuan bada ere, egunerokotasun handiko gaiak jorratu zituzten.

Adinez nagusi diren sei emakume dira istorioaren protagonistak, eta bi nagusienak, bereziki, semeen zaintzapean bizi dira. Zaintza hori, ordea, ez da egokiena. Erresidentzia batean bizi da Antonia eta oporretarako etxerik etxe ibiltzen dute. Sofia, berriz, etxetik irten barik bizi da, semeak dituen zorrei aurre egin ezinik. Egoerak bul-

tzatuta, bat egiten dute sei emakumeek. Elkar laguntzeko eta faltan sumatzen duten maitasuna elkarri eskaintzeko modua aurkitzen dute.

Alai Taldeko kideak ere izan dira, aurren, Elgetan. Eguaztenean 50 bat ikusleren aurrean egin zuten emanaldia, eta Gabon sasoiko kantuekin amaitu zuten kontzertua.

Medikuaren ordezkapenak kezka iturri, berriz ere, Elgetan

Arduradunek jakinarazi dute azarokoa egoera puntuala izan zela eta gaixoen arretarako daudela Bergaran ere

L.Z. ELGETA

Azaroko bizpahiru egunetan Elgetako medikuaren ordezkapenik egon ez zela-eta kezka zabaldu da herrian. Erabiltzaileak beldur dira etorkizunean egoera errepikatuko ote den; izan ere, murrizketen beldur dira. Kezka ez da berria. Herriarrek sinadura bilketa bat abiarazi zuten iaz. Une hartan, Joseba Iñaki Urgoitia erretiroa hartu berri zegoen eta sendagile berria izendatzeko zegoen.

Debagoieneko ESiko sendagile zuzendari Ana Bustinduyk

jakinarazi du Bergarako Lehen Arretako Unitatean beste hamar familia sendagile daudela. "Sendagile bakarra dago Elgetan, eta, horregatik, irizpidea da ordezkapenak %100 betetzea. Ordezkorik libre ez dagoen kasuetan —oraingoa bakarrik gertatu zaigu—, Bergarako sendagileak gertu daude Elgetan sor daitezkeen pazienteak artatzeko. Irizpide berbera erabiltzen dugu profesional bakarra duten gure osasun erakundeko postu guztietan, modu horretan arreta zerbitzuan kalterik ez eragiteko".



L.Z.

Tokiko haziei garrantzia ematen

Tokiko hazien ugalketari, bilketari eta kontserbazioari buruzko bi orduko tailerra egin zuten, eguaztenean, udaletxean. Euskal Herriko Hazien Sareak gidatuta, hainbat gomendio jaso zituzten bertaratu ziren herriarrek. Elgetako baratze parkeko erabiltzaileak izan ziren, gehienbat. Tokiko haziak ereiteko kita ere jaso zuten opari.

Bingo eta txistor-jana bazkideendako

Bingozaletan dira Elgetako erretiratuak eta aurtengo kultura asteen ere egin dute saioa. Kartoi bakoitzeko 50 zentimo jokatzeko dituzte, eta isiltasuna izaten da nagusi Manu Sarasua zenbakiak ematen hasi orduko.

Gaur, 18:00etan, txistor-jana egingo dute Ozkarbin eta Gabonetako mahai-joko txapelketa hilaren 27rako iragarri dute.



Erretiratuek astelehenean egin zuten urteroko bingo saioa, Ozkarbin. L.Z.

PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUAK, GAUR 18:30EAN

Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea / Mikel

Elkoro-Iñaki Ugarteburu

Maitena Mañarikua-Olatz Olaortua /

Ainhoa Zeziaga-Eneritz Larrea

Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar / Iban

Retolaza-Jose Mari Zubiaurre

Mikel Beretxinaga-Ibon

Unzetabarrenetxea / Alain Valle-Eneko

Ormaetxea

Diego Cantabrana-Txomin de Vega /

Josu Mañarikua-Beniat Arabaolaza

OHARRAK

Bertso jaialdia, gaur

Udalak antolatuta lehen mailako bertsolariak, 22:30ean, Espaloian. Sarrera doan. —Ikus 41. orria—.

Gaztelekua & ludoteka

Zapatuan eta domekan sofak egiteko tailerra, gaztelekuan. Ludotekan, berriz, ate irekiak egunean —2-6 urte— eta barikuan —7-12 urte—, 17:00etatik 19:00etara.

GABONAK 2018

+ SANTAMASAK



- Txikitako Gabon haiek
- Gabonetarako proposamenak
- 'Kixki' txerria, santamasetarako gertu



gelatzu s.l.

Gabon Zoriontsuak!

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxe: 943 78 15 51



Egurra, zeramika... Zer da?

Ene, Gabon haiek!

Gabonek txikitako oroitzapen asko ekartzen dituzte; ilusioa, maitasuna, magia, eta abar. Izan ere, zelan bizi ziren Gabon egunak? Zein oroitzapen geratu dira?

Imanol Beloki



OLATZ PAGALDAY
AKTOREA

"Familia guztia batuz, bihurrikeria askoko garaia"

"Angiozarko Hiruain baserrian pasatzen genituen Gabonak. Oroitzapen ederrak ditut. Argazkian, besoetan hartuta dagoen haurra naiz ni, eta familiakoei rock kontzertua eskaintzen ari gara 27 lehengusuetatik gutxi batzuek.

Bitxikeria moduan, gogoan daukat Gabon zahar egunean, hamabi mahats aleak jan ostean, nola egiten genuen apustua, urteko lehenengo iragarkia zein izango zen. Horrez gain, lehengusu guztiok batzen ginenez, bihurrikeriaren bat edo beste beti egiten genuen; izan ere, gure osabak Bergarara jaisten ziren parrandan, eta hurrengo egunean ez zeukaten umorerik errietarik egiteko..."

IÑAKI MATA
ARTISTA

"Ametsak bilatzeko momentuak izaten nituen"

"Umea nintzeneko Gabonetako oroitzapen oso onak ditut, nahiz eta oso txikia nintzenekoak ez ditudan hainbeste gogoratzen. Hala ere, nire gustukoak izango ez zirela susmatzen nuenean, irtenbideak bilatzen saiatzen nintzen. Argazkian ikusten denez, lo-kuluxka bat egin, eta honako hau barneratzen saiatzen nintzen: 'Baliteke momentu hau onena izatea nire ametsak bilatzeko'. Batzuetan, betetzen ziren, hurrengo egunean opari ederrak jasota; beste batzuetan, aldiz, ez. Baina oroitzapen goxoak ditut".



EZ DUGU FAMILIA ASMATU,
BAINA BAI HURA ERAMATEKO AUTOA.

Ondo pasa santamasetan!



CITROËNBERLINGO BERRIA

BERLINGOREN SORTZAILEEK EGINA

2 neurri, 5 eta 7 plazaokak
19 gidatze-laguntza
4 konektibitate-teknologia
Maletategiaren edukiera: 1.050 litroraino
3 eserleku individual erkutagarri
28 leku berezi objektuak gordetzeko
Modutop® barne
Atzeko luneta zabaltzeko

14.990€⁽¹⁾
Eusko auzoa

INSPIRED BY YOU

CITROËN makina eta TOTAL

(1) Soluzio geroendak, pertsona eta Bilerretan, Berlingo Berria -Minuta- (Berlingo 75 FEEL autotik, 14.990 euro-eragik, geroendak eta Sustapen Oporretan barne, Inklusio Citroën auto bat erosten duten lehen pertsonakentzat, gutxienez hiru hilabetez erabiltzen izan dira, gutxienez 6.000 euroko kapitala finantzatuta PSA Financiar Sorkas Spain EPC S/Askin, 36 hilabetezko gutxienezko injezio konpromisoarekin. Ez duzue barne finantzaketarik izateko gaitasunik. Elikatze-kontrakzio ita interesak; webgure honetan kontsulta daitezke: <http://www.citroen.es/conf/guidera.html>. Elikatze balagente indar: 100 3000 egindako edozein urte eta 2018ko urteren 31 baino lehen mantentzeko. Soluzio geroendak finantzaketak egongo ez duten bilerretan: 15.790 euro. Irteerak dagoen moduko Citroën Berlingo Berria -M1 neurri- SHINE XTR, geroendak eta pinua erabiltzeko, 17.300 euroko auzoa. Autotik Citroën Espora SA, Doctor Espora kalea 62, 28007, Madrid, EPC A-62844473.

BERLINGO BERLINGO Garna: batzuek besteak kontsumoa*
(l/100Km): 4 - 6. CO₂ igorpenak (g/Km): 106 - 130

*Behar-beharreko datuak, homologazioaren zati

DEBAGOIENENKO CITROËN ZERBITZU OFIZIALA: TALLERES CHAPIME S.C.L. San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE



HAIZEA ETA OIHANA ARANA BERTSOLARIAK

"Neguaren berotasuna dira Gabonak"

"Haurrak garenean, Gabonetako gauzarik ederrenak Mari Domingiren eta Olentzeroren opariak izaten dira. Argazkian ikusten da ze pozik hartu genituen gitarra horiek. Baina ez da hori benetan oroitzen duguna. Eskoriatzako plazako gaztaina errearen usaina dira, guretzako, Gabonak, Txoronpiaren eta

Txoronpiaren altzoan eseri eta lotsatzea, Mari Domingiri eta Olentzerori txupetea ematea, azken hauen desfilean inoiz jaten ez diren gozokiak biltzea... Familia ere badira Gabonak, eta baita amonaren kroketak ere. Azken finean, neguaren berotasuna dira Gabonak".



ARATZ LOSADA KIROK KAZETARIA

"Gabon gaua lo gutxi egitekoa zela oroitzen naiz"

"Gabonetako argazki hau ditudanetatik gutxienetako bat da. Amamaren etxean, opariekin jolasten ari naiz bertan.

Urtero ospatzen genuen Gabon gaua, amaren partekoek, —amamaren etxean izaten zena—. Familian batzen ginen guztiok, eta anaia eta ni, biok urtebete eramaten garenez, opariak jasotzeko eta zabaltzeko irrikan egoten ginen. Hori horrela, amamarenean bapo afaldu, eta, gure etxera joandakoan, Olentzerori jatekoa eta edatekoa utzi, eta hurrengo egunean jasotzen genituen opariak. Hori horrela, lo gutxikoa izaten zen, betiere, abenduaren 24tik abenduaren 25era bitarteko gaua".

ALDEDI

Ondo pasau santamasak!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

Gabonetan hamaika proposamen koloretsu

Gabonak gainean dira eta maitekiroago bihurtzen da jendea, kaleak argiz eta Gabon doinuz betetzen dira eta egunerokoa alde batera utzi eta ospakizunez betetzen da agenda; turroia, xanpaina eta opariak bihurtzen dira protagonista

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Azken urteotan eguberrietako protagonistetako bat bihurtu da Mari Domingi, gero eta gehiago ageri baita Euskal Herriko kaletan Olentzerorekin batera opariak banatzen. Eskoriatzara, esaterako, 2012an iritsi zen, emakumeen figurari presentzia emateko helburuarekin, eta Arantxa Unzueta Kultura teknikariak dio geroztik Gabonetako "ezinbesteko" pertsonaia bihurtu dela Olentzerorekin batera.

OPARIAK GUZTIONTZAT

Opariek ere gero eta indar handiagoa dute Eguberrietan, eta, Arrasateko Olgeta jostailu den-

dako Itsaso Pagoagaren esanetan, "ortzadarra" izan da azken urteotako jostailu izarra: "Egurrezko ortzadar bat da, eta, jolas libre eta sortzailerako denez, adin guztietarako balio du". Azpimarratu du jostailurik egokiena, ordea, haur bakoitzaren gustuei dagokiena dela, eta, amaitzeko, gaineratu du mahai-jolasak, esaterako, beti direla aproposak, familian jolasteko bidea ematen dutelako.

Jostailua haurren garapenerako beharrezkoa den elementu bat izan arren, gaur egun, tamalez, eskubide hori ez dago haur guztien esku. Hori dela eta, Debagoieneko Gurutze Go-



Mari Domingi, Eskoriatzan. IMANOL BELOKI

riak jostailu berriak biltzeko Jostailu Hezitzailea izeneko kanpaina jarri du martxan eta hainbat egunetan aritu dira Arrasateko Eroskin horiek batzen. Iaz, Debagoieneko 256 haurren ametsa bete zuten eta aurten, 201 haurren eskaerari erantzutea dute helburu.

Familiakoei eta lagunei ere ilusio handiz egin ohi zaizkie opariak Gabonetan, baina, askotan, zaila izaten da opari egokiarekin asmatzea, eta, ondorioz, gero eta gehiago bilatzen da praktikotasuna edo esperientziak oparitzea. Arrasateko Amagara estetika zentroan, esaterako, aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak saltzen dituzte opari moduan. "Ordu eta erdiko tratamendu osoak dira eta hiru rogei euro inguru balio dute, oso harrera ona izaten dute eta jendeak, normalean, bikotekideari, familiakoei edo lagunei oparitzen dizkie", dio Maite Agirrek, zentroko zuzendariak.

ITXAROPENAREN LOTERIA

Loteria erostea edo oparitzea ere ohikoa da Gabonetan; dena den, batez beste pertsonako eros-



Ortzadarra, jostailu izarra. OLGETA

ten den kopuruak nabarmen egin du behera azken urteetan, Aretxabaletako Ibar Loterietako Arantzazu Elkororen esanetan. Zenbaki salduenak zein diren galdetuta, berriz, ziurtasun osoz dio bakoitiak direla: 3, 5, 7 eta 9 zenbakiak, hain zuzen.

JAKI ETA KUTIXI GOXOAK

Ospakizun egun handietarako plater goxoak prestatzen orduak pasatzen dira, sarritan, sukaldean; aurtengo Gabonetarako, ordea, plater erraz eta goxo baten proposamena ekarri du Oñatiko Zelai Zabala jatetxeko Alberto Elortza sukaldariak. "Zurrukutuna izena du eta zopak

Gabon zoriontsuak!



carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

ogiarekin edo bezperan sobratutako ogiarekin berakatz-zopabatz egin eta ondoren honi bakalaoa gehitzean datza. Duela urte batzuk, urte sasoi honetan ohitura handia zen eta primerako platera da", dio Elortzak. Eroski dendetan, esaterako, eskuragarri dago kalitatezko bakailaoa prezio onean.

ONDORENGO GARBIKETA

Eguberrietan familiarekin, lagunekin eta lankideekin otordu ugari izan ohi dira; ondorioz, gorputza bere onera bueltatzeko modurik onena da ondorengo egunetan normal eta garbi jatea, gorputzak eskatzen duena emanez;



Usoa Toledo, Thaiandian. USOA TOLEDO

nez; hori gomendatu du Mireia Alberdi dietista bergararrak. Gorputza garbitzeko dieta bereziren bat egin behar al den galdetzean, berriz, ezetz esan du, eta gorputzak garbiketa berak bakarrik egiten duela argitu du. Gaineratu du garrantzitsua dela otordu berezi hauek egun zehatzetan egitea, eta ez luzatzea Gabon guztietara.

GABON EZBERDINAK

Bada, ordea, Gabonak modu ezberdinean bizi izaten duenik, edo, besterik gabe, ospatzen ez dituenik; horietako bat Mohamed Bohouch da. Marokoarra da izatez eta 9 urterekin etorri zen Elgetara familiarekin; erlijioz musulmanak dira, eta, ondorioz, ez dituzte Eguberriak ospatzen, soilik Gabon zaharra. "Egun honetan lagun ezkutua-ren bitartez opariak egiten dizkiogu elkarri, baina musulmanok, izatez, urtea hasi eta amaitzeko sistema ezberdina dugu. Aurten, esate baterako, urrian ospatu dugu, eta orduan bai, familia osoa bildu eta ospakizun eta otordu handiak egiten ditugu".



Platerkada bat zurrukutun. HOGARMANIA

Ikasten edo lanean atzerrian dabilzan debagoiendarrak ere asko dira munduan barrena; horietako bat Usoa Toledo antzuolarra da, 26 urte ditu eta Thaiandian Pattaya hirian Haur Hezkuntzako irakaslea da. Aurten lehen aldiz Gabonak atzerrian igaroko ditu. "Hiru urte egon naiz Finlandian bizi izaten, baina Eguberrietan beti itzuli izan naiz etxera; aurten,



Gabon zaharrerako janzkera. CHARM

ordea, distantzia dela eta, herri- bueltatu beharrean bidaia- tzeko aprobetxatuko ditut opor hauek eta mutil-lagunarekin Kanbodia zeharkatuko dut iparraldetik hegoaldera". Aitortu du, hala ere, faltan igarriko duela familiarekin eta lagunekin elkartu eta ospatzea.

GABON ZAHARREKO JANTZIAK

Urtezahar eguna berezia izan ohi da; urteari errebasoa egin eta datorren berrirako helburuak ezartzeko garaia, hain zuzen. Gaueko jaia ere ez da gutxiagorako izaten, eta, ziurrenik, janzkerari dagokionez, buruhauste gehien sortzen dituen urteko parranda izango da. Oñatiko Charm irudi aholkularitzako Olatz Agirrek azpimarratu du emakumeen kasuan aurtengo joera distiradun soinekoak izango direla, eta, look-a leuntzeko, kotoizko edo puntuzko zerbaitekin konbinatzea gomendatu digu. Gizonezkoen kasuan, berriz, pajaritak eta amerikana estiloko jakak eraman ohi direla dio. Azpiko arropa gorriei dagokionez, berriz, ohitura mantendu egiten dela esan du Agirrek.

magia partekatu

BEZa

oparituko dizugu

Atal hauetako produktuetan:

Elikagaiak Freskoak

hala nola edarietan, arrandegian, lurrin-dendan, harategian, urdaiazpiko piezetan... ospakizun guztietarako

abenduak

15

larunbata

Zure EROSKI club txartelean itzuliko dizugu

Euskadi, Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Aragoi, elikagaien eta produktu freskoen ataletan egindako 30€-tik gorako erosketetan EROSKI Supermerkatuetan, eta 60€-tik gorako erosketetan EROSKI Hipermerkatuetan.

*Ordaintzean EROSKI club txartela aurkeztuta, elikagaien eta produktu freskoen ataletan egindako erosketari dagokion BEZa sortuko dizugu txartelarekin lotutako EROSKI club kontuan. EROSKI club kontu bakoitzean gehienez sar daitekeen zenbatekoa: 250 euro. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko saltokian.

ARRASATE

Musakola ARRASATE

Tel.: 943 71 10 30



Kixki-ri egun batzuk bakarrik gelditzen zaizkio Galartza auzoko bere txokoa egoteko. JOKIN ETXEBARRIA

Tradizioari eutsiz, baina berritasunez josiz

Galartza auzotik etorriko da 'Kixki' txerria, eta, zapatua izanda, santamas jendetsu bezain parte-hartzaileak espero dira. Berritasunak asteburu honetan bertan hasiko dira, familia guztia rentzat pentsatutako eskulan ikastaroekin

Jokin Etxebarria ARRASATE

Ez dago dudarik, arrasatearren dako, urteko jai kutunenetakoa dira santamasak. Garai bateko festak oroitu nahian, urteko azoka jendetsuena ekintzaz inguratzen da. Egun horretarako espresuki gordetako baserritar trajea soinean jantzi eta tradizioari eutsi nahian, txorizo edo hirugihar taloa jan eta sagardoa edanez, Seber Altube, Biteri eta Jose Maria Arizmendiari plaza eta egoten diren animalia eta barazki postuak bisitatu eta Herriko Plazan euskal dantzekin disfrutatzea da ohikoena.

Tradizioari eustea, baina, ez dago kontrajarrita jaiari berritasunak sartzearekin, eta horretan saiatzen da urtero Santamas Komisiñua.

Tradizio zaharrak, ikasgai berri Santamasak ezin dira ulertu azoka barik, herri-kirol erakustaldi barik edo dantza saiorik barik. Ekintza horiek tradizio bihurtu dira, baina euskal kulturaren parte den ohitura ez desagertzeko ere lan egin behar da. Horregatik, 1978a ezker antolatzen du Santamas Komi-

siñuak artisauen azoka, artisauek nola lan egiten duten ikusi ahal izateko. Aurtun, beste pauso bat eman nahi izan da, eta, norberak lan horiek etxean egiten ikas dezan, artisautzarekin lotutako bi tailer antolatu dituzte zapatu honetarako, hilak 15, Kulturaten. Batetik, txotxongilo tailerra, eta, bestetik, familian egiteko xaboi eta ponpa tailerra. Bietan plaza kopurua mugatua denez, aurrez eman beharko da izena, 717 71 49 33 telefonora mezua bidaliz, eguna bera baino lehen.

Hori da aurtengo berritasunetako bat, baina aipatzekoa da baita ere Deabru Beltzak antzerki taldearen *Leus tambours de feu* emanaldia. Abenduaren 21ean eskainiko dute suzko kale antzerkia, 21:00etan, Herriko Plazatik abiatuta. Aurtun, berriz ere bueltatuko da herri bazkaria Musakolako kiroldegira, baina, jendea animatu eta nagikeriari aurre egiteko, doako autobus zerbitzua jarri dute, bai bazkaria joateko, eta baita bertatik herriraino itzultzeko ere.

Eta euskal tradizioaren oinarrietako bat pertsonaia mitologikoak direla ezin ahaztu. Olen-

GABONETAN EDERTASUNA OPARITU

Aurpegiko 2 tratamendu eskuratuz gero,

2.saioa %20ko deskontuarekin

AMAGARA
Estetika Zentroa

*Gabon
zoriontsuak opa
dizkizuegu!*



Erdiko kale 54, behe 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara



ETORRI OPEL COMBO LIVE BERRIA EZAGUTZERA

Ondo pasau Santamasak!



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10

tzero, Txoronpio eta Txoronpia urteroko bisitariak dira Arrasateko kaleetan. Aurten, laguntzaile berezi bat edukiko dute: Sorgina. Sendabelarretan aditua, osasun erremedioen jakintsu eta basoa ondo ezagutzen duen emakumeak Olentzeroren gutun banaketan lagunduko du, lehenik, zapatuan, hilak 15, 13:00etatik aurrera, Herriko Plazan. 24an, berriz, hegaz etorriko da Arrasateraino Txoronpiari eta Txoronpiori laguntzeko.

'Kixki', Galartzatik

Eta ezin festako protagonista nagusia ahaztu. *Kixki* Aretxabaletako Galartza auzotik etorriko da. Basurde itxura du, eta, 250 kilora iristen ez bada ere, bere luzera aipagarria da. Hilaren 21era arte egongo da bere txokoan, orduan aurkeztuko baitute Herriko Plazan, 19:00etan.

ARTISAUTZAREKIN LOTUTAKO BI TAILER ANTOLATU DITUZTE ZAPATU HONETARAKO KULTURATEN

Santamasetako egitaraua

Abenduak 14, egubakoitza

- **18:00** Herriko Plazan, umeentzako herri kirol jolasak.
- **19:00** Uarkapen, santamas pilota txapelketako finalak.
- **20:00** Parrokian, Goikobalu abesbatzaren kontzertua.

Abenduak 15, zapatua

- **10:30** Kulturateko klaustroan, txotxongilo tailerra.
- **10:30** Kulturateko Loramendi gelan, *Familian egin ahal diren xaboi eta ponpak* ikastaroa.
- **11:00** Biterin, jostailu truke azoka.
- **13:00** Herriko Plazan, borobileko dantza saioa. Gero, Olentzeroren gutun banaketa.
- **17:30** *Sorgiñeketan...etan...etan* ipuin kontaketa Kulturateko areto nagusian.
- **20:00** San Frantzisko elizan, Txorbela Otxotea.

Abenduak 16, domeka

- **09:30** Santamasetako padel txapelketako finalak.

- **11:00** Haurren santamas krosa.
- **12:30** Kuadrillen arteko santamas krosa.
- **17:00** Amaia Antzokian Go!azen ikuskizuna.

Abenduak 17, astelehena

- **18:30** Kulturateko areto nagusian, *Etxea. Ondarea. Historia. Mintzoa* hitzaldia.

Abenduak 21, egubakoitza

- **18:00** Erakusleiho lehiaketaren sari banaketa.
- **18:30** Etxafuegoak.
- **19:00** Herriko Plazan, *Kixki* txerriaren aurkezpena.
- **19:00** Portaloitik hasita eta herriko kaleetan, kantu kalejira.
- **19:00** Herriko Plazatik hasita, Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa.
- **20:00** Amaia Udal Antzokian, bertso saioa.
- **21:00** Herriko Plazatik hasita, *Leus tambours de feu* suzko kale antzerkia.

Abenduak 22, zapatua

- **09:00** Etxafuegoak.
- **09:30** Diana.
- **10:00** Arizmendarrieta plazan, ganadu eta hegazti feria.
- **10:00** Seber Altuben, fruten, barazkien eta herriko saltokien erakusketa eta lehiaketak.
- **10:30** Jokin Zaitegi plazan eta Biteri etorbidean, artisau langintzen jardura feria.
- **11:00** San Frantzisko elizan, Belenen erakustaldia.
- **11:30** Iturengo joaldunak.
- **11:30** Herriko Plazan, Arrostitz taldearen saioa.
- **12:00** Seber Altube plazan, fruta eta barazki lehiaketaren sari banaketa.
- **12:10** Herriko Plazan, Arrasateko trikitilarien saioa.
- **12:30** Zaldibarren, herri kirolak.
- **12:50** Herriko Plazan, Lore Gazteak taldearen saioa.
- **13:30** Herriko Plazan, Duguna Iruñeko dantzariak trokeo dantzen erakustaldia.

- **13:45** Herriko Plazan, txerri dantza herrikoia.
- **14:45** Musakolako kiroldegian, herri bazkaria.
- **18:00** Uarkape pilotalekuan, profesional mailako pilota partiduak.
- **19:00** Arbolapetatik Herriko Plazara, Batzen dantza herrikoia.
- **19:30** Herriko Plazan, Iarrain dantza eta txerri dantza herrikoia.
- **20:00** Herriko Plazan, txerriaren zozketa.
- **20:00** Herriko Plazan, Ilargi Beltza taldearekin dantzaldia.
- **23:00** Gaztetxean, DJ Makala.

Abenduak 23, domeka

- **10:00** Corazon de Encina zentroan, 30. santamas xake txapelketa.
- **11:00** Seber Altube plazan, Eskuarlean elkartearen artisau azoka.
- **12:30** Seber Altube plazan, *Herrixa dantzan* saioa Jainaga eta Narbaiza musikariekin.
- **19:30** Amaia antzokian, antzerki emanaldia: *Erlauntza*.

Zenbaki Aholkulariak - Abokatuak osatzen dugunok Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu; eskerrik asko gugan jarritako konfiantzagatik.



KONTABILITATEA



FISKALITATEA



ENPRESA BERRIAK



GESTORIA



ABOKATUAK



LABORALA



2019

Oparitu ongizatea eta edertasuna



*Biomer gorputzeko detox tratamendua
Mar Menorreko produktu ekologikoeekin*
90 €



*Mima ezazu zeure burua
Aurpegi hidratazioa + masaje erlaxagarria*
80€



*Gorputz peelinga: c bitamina
Gorputzeko azalaren esfoliazioa, azala
guztiz hidratatuz eta leunduz*
60 €



*Ion Bao masajea: 5 sentimenez gozatuz
Masaje erlaxagarria olio esentzialekin*
50 €



Gabon jai zoriontsuak



LIRAIN

ESTETIKA ZENTROA



RPS: 48/14

Ez da osasun
zentroa

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17



Makinak, espaloian pilatutako harriak eta lokatza kentzen. GOIENA

Bidegiri erreklamazioa egingo dio Udalak

Ekainaren 3ko uholdeek eraginda asegurat gabe dauden kalteen erreklamazioa egingo dio Antzuolako Udalak Bidegiri. Euzko Alderdi Jeltzalea ere ados azaldu da eta erreklamazioa egitearen aldeko botoa eman du abenduko ohiko osoko bilkuran

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako EH Bilduk eta EAJ -k aho batez onartu dute abenduko ohiko osoko bilkuran uholdeek herrian eragindako zenbait kalte-ordain formalki erreklamatzeari Bidegiri. Kalte horiek, gainera, asegurat gabeak daudenak dira eta Udala kargu egin dena. Izan ere, orain artean harremanetan jardun du Udalak Bidegirekin; baina ezezkoa jaso berri dutela dio Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak: "Bidegiren ahozko ezezkoa jaso dugu; harriek eragindako eta asegurat gabeko kalteez ez di-rela kargu egingo diote. Eta guk uste dugu obraren promotoreak bere gain hartu behar dituela".

Bidegiren erantzukizun zibileko aseguruari eskatuko diote kalteen kargu egiteko. Erreklamazioa aho batez egitea, baina, EAJk eskatutako puntu bat erantsita onartu dute. Hau da, erreklamazioari kalteen zerrenda gehitzea. "Sei hilabete pasa dira eta oraindik ez dago kalteen

zerrenda idatzita. Bidegiri eskatzen zaio erantzukizun zibilaz kargu egitea, baina aurretik jakin behar du Bidegik zeintzuk diren kalteak", dio Basili Ormazabal bozeramaile jeltzaleak.

Alkateak gaineratu du herriaren aldeko erabakia izan dela eta norberaren koloreak ahaztuta elkarlanean jardutea ezinbestekoa dela. "Hondatutako lorategiak, estolderiak, alokatu ziren makinak, asegururik ez zuten lokaletako kalteak... Norbait horren kargu egitea eskatzen dugu", nabarmendu du Antzuolako alkateak.

Antzuolako Udal Etxegintza SA Bigarren gai arantzatsu bat ere izan zuten eztabaidagai osoko

ANTZUOLAKO UDAL ETXEGINTZA SA DESEGITEKO LEHEN URRATSA ONARTU DU UDAL GOBERNUAK

bilkuran. Antzuolako Udal Etxegintza SA enpresa desegitearen auzia. Sasoiko Udal Gobernuak herriko etxegintzaren kudeaketan laguntzeko eta bultzatzeko sortu zuen enpresa. Sagastiko etxeak, Torresorua, babes ofizialeko etxeak... egin zituen. Egun, jarduera handirik ez dela aitortu du alkateak, eta enpresa desegiteko aukera orain sortu dela: "Torresoroaren balioa jaitsi egin da eta orain da unea enpresa desegiteko. Torresorua Antzuolako Udal Etxegintzarena da. Erakunde publiko bat SA enpresa baten obraren kargu egitea ere ez da normala; ez da txukuna. Diputazioak, gainera, horrelako enpresak desegiten joateko gomendioa eman du", argitu du Kortabarriak.

EAJ ez dago ados: "Udalari 260.000 euro suposatuko dio enpresa desegitea eta diru hori udal zorra kentzeko erabiltzea hobesten dugu". Enpresaren balioa orain jaiste, ordea, erabakigarria izan da desegiteko.

Jokatu dute karta txapelketa

Aurtengo Landatxope elkarteko karta txapelketak badiu irabazleak: Jose Ramon Urzelai eta Mariano Urrutxi, punttuan; tutean, Jose Mari Lezeta eta Migel Anjel Montori; briskan, Sabina Agirre eta Karmen Egaña; eta musean, Mariano Urrutxi eta Jose Ramon Urzelai. Sariak abenduaren 21ean banatuko dituzte, txistor-janarekin batera.



LANDATXOPE

A8M probarako izen ematea, urtarrilaren 7tik aurrera

Goienak aurreratu bezala, 2019ko otsailaren 17an egingo da Antzuolako 8 Miliak lasterketa. Izen ematea urtarrilaren 7an irekiko da, goizeko bederatzieta, *Kirolprobak.com* atarian.

Eta aurten ere doako hamar izen emate zozketatuko dira antzuolarren artean urtarrilaren 4an. Zozketan parte hartzeko, mezu bat bidali beharko zaie

antolatzaileei, helbide honetara: antzuolako8m@gmail.com. Bertan, izen-abizena eta kontakturako telefono zenbakia jarri beharko dute parte hartzaileek.

Helduen lasterketa 10:30ean hasiko da, eta, ondoren, txikien minimotor lasterketari emango zaio hasiera. Azken horretan parte hartzeko, plastikozko motortxoia eta kaskoa parte-hartzaileek eroan beharko dute. Sinatutako gurasoen baimenak antolakuntzari egunean bertan eman beharko zaizkie.

Arrolak Aizkorriko mendizerrara egingo du irteera, bihar

Arrola Mendizale Elkartek, Aitxurira irteera antolatu du. Aizkorriko mendizerrako mendia da eta 1.551 metro ditu. Bihar, zapatua, egingo dute egun osoko irteera.

Izena emateko, arrolant@gmail.com helbidera mezu bat bidali behar dute interesa dutenek, era telefono zenbaki honetara ere deitu dezakete gaur, eguba-

koitza: 615 73 16 19. Olarandik egingo da biharko irteera, goizeko zortzietan, eta, esan moduan, egun osoko irteera izango da.

Eta, urtero legez, aurten ere Arrolaren eskutik urte berriari ongietorria egingo zaio Arrola mendian. 2019ari antzuolarrek elkarrekin emango diote hasiera. Hala, urtarrilaren 1ean, 09:00etan plazatik abiatuko dira Arrola gainera. "Herriar oro gonbidatu gura dugu. Salda eta txorizoa banatuko dugu animatzen diren herriarren artean".

"Ez dute antzuolar ororendako gobernatu"

MIREN ARRATE GALLASTEGI ALDERDI SOZIALISTAREN BOZERAMAILEA

Antzuolak aldaketa behar duela esan du Miren Arrate Gallastegi zinegotzi sozialistak; udal kudeaketa oso gustuko duela aitortu du. Agintaldiaz jardun du GOIENArekin

Maidar Arregi ANTZUOLA

Agintaldian zehar gainontzeko alderdiekiko harremana zuzena izan dela azpimarratu du Miren Arrate Gallastegi zinegotzi sozialistak.

Agintaldia amaitzeaz dago. Nolako balorazioa egiten duzu?

2019ko udal hauteskundeak geroz eta gertuago daudela ikusita, Antzuolak aldaketa behar duela uste dut. Egungo Udal Gobernuak gehiengo nagusia dauka, eta, maiz, euren boto emaleendako soilik gobernatu duten sententzia izan da. Ez dute antzuolar ororendako gobernatu, alegia.

Zer izan da Alderdi Sozialistarendako onena? Eta txarrena?

Alderdi Sozialistaren muinean dago udalerrietan lan egitea. Izan ere, udal kudeaketa da poztasun handiena ematen diguna. Eskertzekoa da herritarrekin gertuko harremana edukitzeko aukera hori. Horregatik, zinegotzi lanetan gustura aritu naiz. Eta unerik zailena niretzako, ardura eta kezka handiena eragin didana, ekainaren 3ko uholdeak izan dira. Intentsitate eta larritasun handiz bizi izan nituen. Txalotzekoa izan da herritarren erantzuna. Azpimarratu behar da Ingurumen Sailko meteorologiaren parteek eta alertek duten garrantzia kasu honetan.

Antzuola eitten ekimena aurkeztu dute. Zein iritzi duzu?

Pasa den urriaren 4an, egunkari batek jaso zuen bezala, parte hartzea "gorabeheratsua" izan da. Hiru urtetan Udal Gobernuak proiektua aurkeztu ez izanak harritu nau. Hain zuzen ere, orain, udal hauteskundeetan atarian aurkeztu dute parte hartze prozesua. Agian, hauteskunde estrategia bat jarraitzen ariko ote da Udal Gobernuak? Herritarren parte hartzeari dagokionez, azpimarratu gura dut agintaldiaren hasieratik parte hartze



Miren Arrate Gallastegi, Antzuolako udal banderaren aurrean. MAIDAR ARREGI

"ALDERDI SOZIALISTAREN DNA-N TXERTATURIK DAGO GIZARTE-ONGIZATEA BERMATZEA"

politikak sustatu ditugula, Gipuzkoako Diputazioarekin elkarlanean gobernatuz.

Antzuolarrek ongizateari garrantzia eman diote. Baita zuek ere.

Gizarte Ongizatearen defentsa eta, bereziki, behar gehien duten pertsonen babes soziala eta euren ongizatea bermatzea Alderdi Sozialistaren DNA dago txertatua. Eta lan egiten dugun toki guztietan, hori erakusten dugu. **Eta, horri dagokionez, zein hobe-kuntza egin daitezkeela uste duzue?** Antzuolan, uste dut modu sozialago eta efikazagoan kudeatu beharko lituzketela udal dirulaguntzak. Bereziki, lehen mailako premia dutenendako laguntza sozialak.

Antzuolarrek alokairua sustatzeko ekimenak gura dituztela ere azaleratu du parte hartze prozesuak. Euskadiko Alderdi Sozialistak, Etxebizitza sailburu Iñaki Arrio-

la buru duela, *Bizigune* programarekin buru-belarri dihardu lanean. Etxebizitza hutsak identifikatu eta horien alokairua sustatzea dugu helburu. *Gaztelagun* programarekin, gainera, gazteen emantzipazioan lagundu gura dugu. Hala, etxebizitza baten alokairua ordaintzeko laguntzak eskaintzen dira *Gaztelagun* ekimenaren bitartez. Horregatik, beharrezkoa izango litzateke Antzuolako Udal Gobernuak gainontzeko administrazioekin batera koordinatzea; izan ere, esperientzia handiagoa dute.

Urte hauetan egindako inbertsioen gainean zein iritzi duzu?

Beharrezkoak izan dira, baina hobetzeko gauza asko dago oraindik Antzuolan. Gogorazti gura dut Marisol Garmendia diputatu sozialistaren departamentuak 200.000 euroko inbertsioa egin duela bidegorriko tunelak konpontzeko. Mugikortasun jasangarriaren eta osasungarriaren aldeko apustu garbia izan da eta bidegorria berriro berreskuratu da. Berriro diot Udalak herritar ororendako lan egin behar duela, eta ez eurei botoa ematen dietenendako soilik.



Antxintxardi erreka Arrandari errekaekin bat egiten duen toki konponduta. A. E.

Landa-bideak konpontzeko lanak abiatu ditu Udalak

Hamar gunetan ari dira konponketa lanak egiten eta 120.000 euroko kostua izango dute guztira

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ekainaren 3an, ur handiek izugarrizko kalteak eragin zituzten Antzuolan. Herriko zenbait azpiegitura txikitu zituen urak, eta hainbat landa-bideetan kalte izugarriak eragin. Bada, da-goeneko hasi dira kalte horiek konpontzen. "Lizarragan, Irimon eta Uzarragan egiten ari gara lanak; obra handiena Irain erre-karen ondoan egiten gabilta", zehaztu du Valen Moñux udaleko aparejadoreak. Aurrez egin beharreko lanei euriteen kalteak gehitu zaizkiela ere badio: "Ara-zo larriagoak eragin dituzte

euriteek; 120.000 euroko kostua izango dute: gune gehiago sako-nago konponduko dira-eta".

Landa-bideak eta Torresoroa

"Egin diren konponketa gehienak bideko zulo handiak konpontzea izan dira; horrez gain, luiziak eta, azkenik, bi erreka-teen ibil-gua ondo bideratu da", azaldu du Moñuxek. Lan horiekin herriko eta landa-bideetako kalteak konpondutzat utziko dituzte; ondoren, Torresoroako kalteak konpontzen hasiko dira: "Proiektua eginda dago; orain, lanak esleitzea falta da", dio.

OHARRAK

Greba feminista

Martxoaren 8ko greba feminista antolatzeko batzar irekia egingo dute gaur Olarango ekintza aretoan, 18:30ean. Tokian tokiko indar eta gogoen arabera moldatuko duten greba feminista izango da, herri mailan, eta emakume herritarren artean antolatutakoa. Ideiak elkarbanatu, denen artean batu eta datorren greba feministan parte hartzeko bilera izango da.

Gospel emanaldia

Ispiritu hirukoteak kontzertua eskainiko du domekan elizan, 11:00etan. Oinarri espirituala daukaten soul eta gospel doinuak izango dira entzungai. Sarrera 5 euro da.

Barrena ezagutzeko ikastaroa

Nigan ikastaroaren saioa eskainiko du Jesus Mari Matak hilaren 18an; Olanaren 18:30ean izango da; helduendako.

Txistor-jana

Abenduaren 20an, San Tomas feria egingo dute eskolako patioan. 16:00etatik aurrera, txokolatea eta txistorra banatuko dute. Abenduaren 21ean, berriz, Landatxoepoko erretiratuek egingo dute txistor-jana, 18:00etan hasita.



Liburuaren aurkezpenean eta omenaldian parte hartu zuten kideak. TXOMIN MADINA

Arrikrutzeko lehoia oinarri hartutako liburua

Iñaki Zubeldiak eta Jesus Manuel Marotok haitzuloan galdua zeudela topatu zuten lehoia. Ordutik, 52 urte pasa dira, eta orain, liburua argitaratu dute. 'Arrikrutz' izena ipini diote, eta, besteak beste, Atapuercako zuzendariaren berbak jaso dituzte

Mireia Bikuña OÑATI

Arantzazuko ikasle zirela galdu ziren kobazuloan Iñaki Zubeldia eta Jesus Manuel Maroto. Barruan eman zituzten orduetan, Arrikrutzeko lehoia topatu zuten. Aurkikuntza itzela izan zen hura, eta, 52 urte pasatuta, orduko abenturak eta aurkikuntzaren garrantzia liburu batean jaso dituzte. *Arrikrutz* izena ipini diote liburuari, eta asteen aurkeztu dute.

"Ale aparta da"

Kobazuloaren sorreraz, aurkikuntzaz eta esplorazioaz gain, bertan eginiko aurkikuntza nagusienaren inguruko xehetasunak biltzen ditu liburuak. Horretarako, hainbat adituren testuak eta irudiak jasotzen ditu; esaterako, Atapuercako zuzendarikide eta Giza Eboluzioaren Museoko zuzendari zientifiko Juan Luis Arsuagarena. "Ale aparta da. Zerbait magikoa dauka. Desagertutako animalia bat da. Mito bat", esan zuen Arsuagak aurkezpenean.

Antzeko berbak erabili zituen argitalpenaren zuzendari lanak egin dituen Aranzadi Zientzia Elkarteko kide Juantxo Arregi Mauleonek: "Hemen bizi gare nondako eta kanpotarrendako liburua da. Irudi asko ditu, eta hizkuntza erraza. Gure hizkuntzaren, identitatearen eta izaeraren lekuko da hau. Auzolana eta herrigintza egiteko modua".

Liburua eta erakusketa

Arrikrutzeko lehoiari buruzko liburua salgai dago, hamar eurotan, Turismo Bulegoan. Bestalde, jatorrizko hezurdura ikusgai dago Donostiako San Telmo museoan, otsailaren 10era arte. Era berean, liburuaren aurkezpenean aprobe txatu dute, gaztetxoendako irteera berezia egiteko: hilaren 30ean, Arrikrutzen.

Omenaldi berezia

Arrikrutz liburuaren aurkezpenean aprobe txatu zuten hainbat lagun eta talde omentzeko. Felix Ruiz de Arkautek, Iñaki Zubeldiak, Jesus Manuel Marotok eta Aloña Mendi Espeleologia (AMET) taldeak aitortza jaso zuten. Azken horiek biziki eskertu zuten omenaldia. "Liburua idazteko orduan gurekin gogoratu izana pozgarria da guretzat. Berezik, kobazuloaren inguruko datuak eskatu zizkiguten: deskribapena eta esplorazioa. Bestalde, urte hauetan guztietan AMETen egon diren lagun guztiak gogora ekarri gurako nituzke. Horiendako aitortza ere bada aipamen hau", esan du espeleologia taldeko Santi Ugartek. Iñaki Zubeldia ere pozik zegoen. "Lehoia topatu genuenean ez genuen uste horrenbesteko oihartzunik izango zuenik", aipatu zuen.

EH Bilduko alkategai izendatuko dute bihar Izaro Elorza

Harittu prozesuaren azken batzar irekia egingo dute bihar, eta bukaeran egingo dute izendapena

M.B. OÑATI

Azken asteetan arlokako bilera irekiak egin ostean, bihar, zapatua, arlo guztiak landuko ditu EH Bilduk, Ekintza planaren baitan egingo duen tailerrean. Irekia izango da herritar guztiendako, 10:00etan, kultura etxeko zinema-aretoan. Batzarren ostean, 13:00etan, agerraldi publikoa egingo dute, udal hauteskundeetarako hautagaia behin betiko izaeraz aurkezteko. Izaro Elorza, hain justu ere. Azaroaren 29an, behin-behineko aurkezpenean egin zutenetik, ez

da beste hautagairik aurkeztu. Hortaz, Elorza izango da EH Bilduren zerrendaburua. Era berean, agerraldi publiko horretan, Harittu prozesuaren balorazioa egingo dute.

Esker ona

"Gauzak zail jarri dizkidazu, Mikel", esan zuen Izaro Elorzak behin-behineko aurkezpenean egin zutenean. Era berean, esparru ezberdinetan lanean diharduen jendearen babesa jaso izana "biziki eskertu" zuen orduko ekitaldian.

Gabonen atarian, bi azoka egingo dituzte aste bukaeran

Urteroko hitzorduak dira biak ala biak. Elkar Hezi ikastetxearen elkartasun azoka zapatuan egingo dute eta herriko artisauen feria, domekan. Biak ala biak, Foruen plazan. Elkar Hezikotan hainbat GKEren postuak egongo dira; eta herriko artisauenean, askotariko produktuak: bitxiak, kremak, lepokoak, jostailuak, arropak, poltsak...

Anastasio Zubiriari buruzko liburuaren aurkezpenean, Araotzen

Jose Antonio Azpiatzuk eta Miguel Angel Kortabarriak idatzitako liburua aurkeztuko dute bihar, Araotzeko saloian, 12:00etan. Urte askoan merkataritza lanak egitearren izan da ezagun Anastasio Zubiria. "Gurekin egon diren pertsona guztiek diote oso irribarretsua zela, eta oroitzapen onak dituztela", diote egileek.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

San Martinen

Oñatiko gune urbanoraino heltzen den naturaren luzapen bat da San Martingo hariztia, natura kaletik urrats batera. Udan gerizpea eta udazkenean orbel alfonbra jartzen digun zuhaizti atsegina, paseatzeko leku aproposa, irakurtzeko, bertan egoteko, jolasteko... Egiten duzuna egiten duzula, naturarekin kontaktuan zaudela sentitzeko unea. Kirola egiteko ere aparta da. Zenbat kilometro egin ote ditut nik bertan korrika? Alde batera bueltaka batzuetan, beste aldera hurrengoan eta zeharka ere bai, beste hainbatetan. Nik bezala, beste askok. Orain badira bertan korrika egiteko zirkuitu argiztatua egitea proposatu dutenak. Askotan erlojuaren arabera antolatuta daukagun gure bizimodua eta naturaren zikloa ez datoz bat. Korrika egin nahi duenak, esate baterako, zailagoa dauka urte sasoi honetan egun argiz egitea, baina gure nahiak asetzeko noraino da zilegi natura urratzea? Kasu honetan ezezkoan nago, ahalik eta gutxien ukitu behar dela San Martin. Natura, horixe eskaintzen digu San Martinek kaletik pauso batera eta horren truke, iruditzen zait urraketarik gabe zaintzea dela gure zeregina.

"Inflexiozko" aurrekontuak

Kiroldegiko eta Oilaitturiko proiektuak egiteko sei milioi euroko mailegua eskatuko du Udalak, eta hori da "inflexio puntua" EH Bilduren ustez. EAJk uste du egoera horrek ez duela esan gura aurrekontu "orekatua" denik, "kudeaketa falta egon dela ikusita"

Oihana Elortza OÑATI

Aurtengoa baino ia %19 handiagoa izango da datorren urteko udal aurrekontua Oñatin: 22,3 milioi euro, guztira. "Inflexiozko" aurrekontuak izango direla aipatu zuen kontu hartzaileak osoko bilkuran, eta horrekin bat datoz udalbatza osatzen duten alderdi biak, EH Bildu eta EAJ.

Sei milioi euroko mailegua

Mikel Biain alkateak adierazi zuen moduan, "autofinantziazio gaitasunagatik zorpetze maila jaisten joan da, zeroan utzi arte". Mailegurik eskatu barik egin dituzte orain arteko inbertsioak, baina, 2019an kiroldegiko eta Oilaitturiko proiektuak egin ahal izateko, mailegua eskatu beharko du Udalak; 6 milioi euroko mailegua.

Oposizioak, EAJk, kontrako botoa eman zien aurrekontuei, eta arrazoi nagusia "finantzen egoera" izan zen. Lourdes Idoia-ga jeltzaleen bozeramailearen esanetan, eurek egindako 34 proposamenen artean batzuk jaso ditu Udal Gobernuak aurrekontuen txostenean; Olakua-Olapoto eraberritzea eta mugarrien digitalizazioa, esaterako, "baina planteatu den arlo ekonomikoak desoreka" ekarriko duela deritzo; Idoigaren esanetan, inflexio puntua okerrerrako hartzen du kontu-hartzaileak berak. Jeltzaleek diote onartu diren aurrekontuetan negatiboak direla sei adierazleetatik lau. "Sei milioiko aurrekontua eskatu behar bada, ba, eskatuko da. Baina hurrengo urtean beste bat eskatu beharko da eta horrek zorpetze maila igoko du. Kontu hartzailearen datuek diote adierazle guztiak direla negatiboak, zorpetze maila izan ezik. Hori

ondo dago, baina aurtun hartzen den bideak datozen bizpahiru urteetan jarraituko du eta zorpetze maila gora doa, eta arriskua dago adierazle hori ere negatiboa izateko". Idoiak gaineratu zuen bi agintaldi hauetan Udal Gobernuak ez duela fondorik edo dirurik gorde proiektu honi aurre egiteko, eta hori "plangintza txarraren" ondorioa dela.

Udal Gobernuarendako, baina, Oñatiko Udalak badu oreka, alkatearen esanetan: "Bestela, ez zen horrelako zorretan sar-

tzeko moduan egongo. Inbertsio plan bat aktibatu da Zubikoako eta Oilaitturiko proiektuak egiteko, eta zorpetze maila igo egingo da inbertsio horiek finantzatzeko. Horrek diru zama ekarriko du, baina kontu hartzailearen txostenak jasotzen du aurrezki arrunt positiboa izango duela Udalak, 550.000 euro ingurukoa. Ez zen normala zor barik egotea, eta orain, esfortzu ekonomiko bat egitea dagokio Udalari", adierazi zuen Mikel Biainek. Maileguari lotuta, bes-

talde, alkateak aipatu zuen aurreikusten dutela mailegu osoaren beharrik ez edukitzea, "2108ko ekitaldiko emaitza positiboa" espero dutelako.

Egingo diren proiektuak

Partaidetzazko aurrekontuei dagokienez, ez zuten zehaztu herritarrek aukeratutako zein proiektu egingo dituzten datorren urtean eta zein bi urte barru; 500.000 euroak Partaidetza Departamentuan sartu dituzte eta handik bideratuko dituzte dagokion sailari.

Gazteen emantzipaziorako laguntzak ere gehitu egingo dira datorren urtean eta sail horrek, Gazteriak, 30.000 euro izango ditu gaztelekuaren 25. urteurrena ospatzeko. Aurreko mendia- ren paisaia plana ere egingo dute, esaterako, eta Auzotasuna programak jarraipena izango du. Mugikortasuna hobetzen eta hondakinen atez ateko sistema- ri eusten ere jarraituko dute.

Kulturan, bestalde, diru laguntzak emango dituzte datorren urtean ere herriko taldeetan banatzeko, eta sormenerako laguntzak ere izango dira. Bestal-

de, Arantzazu Gaur Fundazioa- rekin proiektu bat jarriko du martxan Udalak. Beratu musika jaialdiak ere izango du jarraipena, eta bigarrenaz ospatuko da 2019an. "Musika mota berriak" entzungo dira. Enplegua bultzatzeko dirua ere jasotzen du 2019ko aurrekontuak.

Partaidetzako aurrekontuak

Bestetik, zehaztu dituzte zeintzuk izango diren partaidetzako aurrekontuen baitan herritarrek aukeratuta 2019an egingo diren proiektuak. Honako hauek dira: erabilera publikoko komun irisgarriak ipintzea -110.000 euro eta 1.003 boto-; bizikletendako aparkaleku estaliak ipintzea ikastetxe eta ekipamendu publikoen inguruetan -60.000 euro eta 433 boto-; bide segurtasuna hobetzeko zebra-bideak argitzea -20.000 euro eta 433 boto-; herriko hainbat puntutan hondakinak gaika botatzeko launakako zakarrontziak jartzea -13.500 euro eta 416 boto-; eta Olakua auzoko kirol pista edo kantxa hobetzea: margotu, sareak berritu eta eremua argizatzea -47.000 euro eta 302 boto-.

Kiroldegia zabalik egongo da 2019an

Zubikoa kiroldegia proiektuak hartu du datorren urteko aurrekontuaren zatirik handiena: 2,5 milioi euro.

LKS ari da proiektua egiten eta asmoa da urtarilaren erdialderako prest egotea. Gero, lanak egiteko deialdia zabalduko dute, eta maiatzeko obrak esleitu gura dituzte. 2019ko bigarren seihilekoan hasiko dira lanak, baina kiroldegia ez dute itxiko. Borja Moiua Kirol zinegotziaren esanetan, datorren urtean zabalik egongo dira Zubikoako instalazio guztiak. Lehenengo egingo dituzten lanak kanpoaldekoak izango dira; lur mugimenduak berdintzekoak, esaterako.

Kiroldegi barruko lanak 2020an egingo dituzte. Lanak, baina, zatika egingo dituzte, kiroldegia ahalik eta denbora gutxien egon dadin erabat itxita. Igerilekuak handitzetik hasiko dituzten lanak -egun, bost kale daude, eta bederatzi egongo dira gero igerileku handian; putzu



Zubikoa kiroldegia kanpotik. OIHANA ELORTZA

txikia ere handitu egingo dute-, eta, bitarte horretan, kiroldegia zabalik egongo dira. Asmoa da galdara handi bat jartzea, kantxetako aldageletan ur beroa egon dadin. Kantxa berdean ere egingo dituzte hobekuntzak, eta horiek partidu gutxiago jokatzeko diren sasoian egingo dituzte; udan, ziurrenik.

Kostuaren inguruko debatea


Aurrekontuen eztabaidan, kiroldegia- ren kostua bost milioitik zortzira igo dela aipatu zuen

alderdi jeltzaleak, eta horren berri osoko bilkuraren bezperan jakin zutela. Mikel Biain alkateak azaldu du sarri egiten dituztela bilerak LKS enpresako kideekin, proiektua nola doan ikusteko, eta datu horiek lantzen azaroaren 30ean bukatu zutela. Aurrekontuak abenduaren 5eko osoko bilkuran eztabaidatu eta onartu zituzten eta Biainek esan du tarte horretan ez zela Kirol batzorderik egon eta horregatik ez zutela gaiaren inguruan berba egin osoko bilkuraren aurretik.

Alkatearen esanetan, zortzi milioi euroko -gutxi gorabehera- kostua duen proiektu horretan jasotzen da kiroldegia- ren berritze osoa, baita aurretik aurrekusi gabe zeuden hobekuntza batzuk ere. Horrek guztiak kostua igoko duen jakitun da Biain, baina jakinarazi du horrek ez duela esan gura hori horrela egingo denik orain. Lizitazioa aterako dena ez da hori. "Gure asmoa da eraikin nagusia, igerilekuak, aldagelak eta orain arte aipatu izandako gunea berritzea", gaineratu du.

Kiroldegia- ren proiektua lantzen bukatuko du laster LKS, eta obrak egiten hasten direnean gertutik jarraituko ditu Udalak. Aurrekontuak onartu ziren osoko bilkura berean onartu zuten udal zinegotziek obren jarraipena egingo duen batzorde bat osatzea. Helburua izango da kiroldegia ahalik eta denbora gutxien egotea itxita erabiltzaileendako, herritarrendako.

2019an egingo diren proiektu batzuk



Berdintasun teknikari plaza finkoa sortuko dute deialdi publiko bidez. Selma Huxley beka emango da bigarren.



Azkoagain futbol zelaiaren inguruko azterketa egingo da. Larrañako eta ur txorroten mantentzea ere sartu dute Kirol Sailean.



Olakua eta Olapoto auzoetan eraberritze lanak egingo dira, eta argiteria hobetu. Irisgarritasun lanek jarraipena izango dute.



Mugarriak digitalizatzeko partida bat egongo da Landa Garapeneko Sailean. Araotzeko ostatuaren aldeko apustua berretsiko da.



Natura Eskolako obrak egiteko 300.000 euro gorde dituzte. Eskolaren birgaitze proiektua eginda dago eta faseka egingo dute.



Kioskua eta inguruak aztertu eta eraberrituko dituzte. 20.000 euroko partida gorde dute, Lurralde Antolaketa barruan, lan horiek egiteko.

Ariane Nsilulu & Shine Gospel Family taldea gaur Santa Anan

Domekan, Gabonetako kontzertu berezia egingo dute parrokiaren bandak eta abesbatzek, 19:00etan

Eneko Azurmendi OÑATI
Ariane Nsilulu & Shine Gospel Family taldeak emanaldia eskainiko du gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Gospel berriaz gain, jazz, soula, Guadalupeko *gwo ka* afrikar-karibearra eta reggae musika uztartzen dituzte.

Ariane Nsiluluk sortu zuen taldea, 2004an, eta bera da konpositore eta ahots nagusia. Gai-nontzeko taldekideak Melody Nadal, Jonathan Jeanton, Benjamin Nadal eta Elvis Mgne dira. Frantsesez, lingalez –Kongon hitz egiten den hizkuntza bat– eta ingelesez dira abestien letrak. Sarrera hamar euro da, eta www.oñati.eus webgunean, Txokolateixian eta leihatila digita-lean eskuratu ahal izango da. Gastatu ez badira, leihatilan bertan ere egongo dira sarrerak, kontzertuaren aurretik.

Kontzertu berezia
Domekan, bestalde, Gabonetako kontzertu berezia eskainiko dute Oñatiko Musika Bandak eta herriko hainbat abesbatzak, azken urteetako ohiturari jarraituz. Oñatiko pastoral barrutiko misio taldeak antolatu du emanaldia eta batzen den dirua Caritas Oñatira bideratuko dute. Emanaldia dohainik izango da, baina gura duenak borondatea utzi ahal izango du. Oñatiko Musika Bandak, Oñatiko abesbatzak, Parrokiako Koruek, Ganbara Abesbatzak, Ganbara Txiki Abesbatzak, Hots Abesbatzak eta Txantxiku Ikas-tolako Abesbatzak hartuko dute parte kontzertuan. Lehenik, bandak hiru kantu eskainiko ditu. Gero, Ganbara abesbatzak beste horrenbeste egingo du. Azkenik, bandak eta abesbatza guztiek elkarrekin joko dute.

Lan berriarekin lehen kontzertua eskainiko du Lenaok Oñatin

22:00etan hasiko da jaialdia bihar, zapatua, gaztelekuan –Natural Project eta DePeculiars taldeak ere ariko dira–. "Espero dugu jendea gerturatzea. Gu oso gotsu gaude eta daukagun guztia emango dugu", dio Iñigo Biain *Bull* taldekideak. Sarrera zortzi euro da eta www.oñati.eus-en, Txokolateixian eta leihatila digita-lean erosi daitezke.

Soinu-jotzaileek emanaldia eskainiko dute Santa Anan

Bihar, zapatua, akordeoi doinuak izango dira entzungai Santa Ana antzokian, 19:00etan hasita. Maiatza ezkerreko entseatzen ari diren 40 akordeoi-jole inguru igoko dira ohol-tza gainera. Emanaldia dohainik izango da. Pelikuletako soinu-bandak eskainiko dituzte, eta atzeko pantailan proiektatutako irudiek dinamizatuko dute kontzertua.

Departamentu bakoitzaren aurrekontua

Sailaren izena	2019	2018	%
Komunikazioa eta Parte Hartzea	747.492,60	516.611,10	%44,69
Gizarte Zerbitzuak	1.694.252,03	1.781.669,28	-%4,91
Kirola	3.713.377,00	1.460.579,17	%154,24
Kultura	1.210.076,11	1.182.488,57	%2,33
Barne Antolaketa	7.118.120,63	6.532.977,43	%8,96
Sozioekonomia	534.389,80	551.239,26	-%3,06
Lurralde Antolaketa	6.116.596,82	5.416.592,80	%12,92
Aisialdi Hezitzailea	1.263.139,82	1.335.821,44	-%5,44

Ondo pasau Gabonak!!

Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44 • OÑATI

"Zubietako beharrak argi daude; gaur, eta 2010ean"

ELENA LETE ALKATEA

Zubietako zubia urtarril amaierarako erabilgarri egongo dela dio Letek, eta auzoaren egoera hobetzeko proiektuak idatzita daudela: "la bi milioi euroko aurrekontua lukete"

Jokin Bereziartua BERGARA

Abenduaren 17ko osoko bilkuran eztabaidatuko da 2019rako aurrekontu proposamena. "Lehen aldia litzateke horren goiz onartzen dena", aurreratu zuen Elena Lete alkateak *Harira* saioan. Amaitzera doan agintaldia eta aurrera begirako proiektuak izan ditu hizpide, besteak beste. **la bi urte egin dituzu alkate. Nolako esperientzia izan da pertsonalki?**

Ohore bat izan da. Ohore bat, eta erantzukizun handia. Aukera moduan hartu nuen hasieratik eta hala ulertzen dut egun ere; aukera oso polita, bizia eta aberasgarria. Herritarrek geratu lan egin ahal izan dut, eta hori izan da berezitasun nagusia.

EAJko alkategaia izango zara. Zerk bultzatu zaitu urratsa egitera?

Hasteko, alderdiak eskatu izanak. Eta, nola ez, familiak eman didan oniritziak; azken hori oso inportantea da halako karguetan. Horrekin batera, ezinbestean, jarraitzeko gogoia izateak bultzatu nau; gauza asko egin daitezke lau urtetan, baina beste asko garatzeko geratu dira.

Forma hartu duten proiektuei dagokienez, Boluko frontoia aipatu beharra dago. Nola doaz lanak?

Amaitzear daude, denboraz ibili gara. Teknikoki eta ekonomikoki oso ondo egin zaio aurre eta emaitza begi bistakoa da. Laster egongo da erabilgarri, askotariko erabileretarako.

Bizilagun batzuk kontra agertu ziren. Bai. Hasieratik esan genuen programan jasota genuela Boluko frontoia estaltzea; hala ere, ez zen gure asmoa izan hori edozein prezioztara gauzatzea eta, beraz, haserre ikusi genuenez eta bizikidetzara ez kaltetzeko, galdeketa bat egin genuen.

Lapurretak areagotu egin dira Bergaran ere. Kezkatuta zaudete?

Udaltzaingoa eta Ertzaintza jarraipena egiten ari dira eta emaitzak egon badaude; pertsona bati hainbat lapurreta inputatzen



Elena Lete, Goiena telebistako *Harira* saioan, martitzenean. JAGOBA DOMINGO

"ALDERDIAK ESKATU ETA FAMILIAK ONARTU DUELAKO IZANGO NAIZ ALKATEGAIA; OHORE BAT IZAN DA"

dizkiote, eta kasua epaiaren zain dago. Salatzen denean, emaitzak datoz. Autoarekin kristala apurtu ostean egindakoa harrigarria izan zen; badirudi kanpotik etorritako pertsonak zirela, autoa Aranda de Dueron [Burgos] agertu zen erreta. Hala ere, Bergarak herri lasaia izaten segitzen du. **Zubietako zubiko lanak hastean bizilagun batzuek protesta egin zuten. Nola bizi izan duzue egoera?**

Egoera kudeatu dugu. Gezurrak irakurri ditugu prentsan, baita zubia botako zela ere, baina gero, auzotarrek bildu izan naizenetan, ez didate halakorik esan; jaso dudana da proiektuarekin ados daudela, oro har. Ekarpenak ere egin dituzte, zubian gehitu beharreko argi puntu bat, kasu. **Bizilagun batzuek "informazio eza" salatu zuten, besteak beste.** Komunikazioan arazo bat izan genuen. Ia urtebetez eman genuen

proiektuaren berri: %60tik gorako diru-laguntza jaso genuela, esleitu genuela... Atzerapenen ostean, lanak lehenbailehen hasi nahi genituen—uraren maila baxua zelako, besteak beste—, eta ez genuen horren berri ematen asmatu. Berrir egin behar ko banu, bizilagunekin elkartuko nintzateke. Zubia urtarril amaieran bukatzea espero dugu.

Eta Zubietako Masterreka ardatzari noiz emango zaio irtenbide bat?

Masterreka eta Zubietako kaleetarako proiektuak idatzita daude, eta ia bi milioi euroko aurrekontua lukete. Inportantea da proiektuak idatzita lagatzea finantziatziorako dokumentu sendo bat izan dezagun; ardatz horrek hobetzeko duen beharraz ez dago eztabaidarik, ez gaur eta ez 2010ean; egin behar dena da une egokia aurkitu. Argi dago Ibargarai eta Zubietako aldi berean ezin ditugula obretan izan; beraz, hurrengo urtean ezingo da izan.

Ezingo da izan, seminarioko aparkalekuko obrak hasiko direlako. Herriar batzuk eta oposizioak ez dute begi onez ikusten mugikortasun ikuspegitik. Zer uste duzu?

2009ko Plan Orokorra jasotzen du bertan lur azpiko aparkaleku

bat egitea, eta hori garatzera goaz. Beharrezko jotzen dugu guk eta orduko udalbatzak, eta merkatariek behin eta berriz esan digute erdigunean aparkaleku gehiago behar direla. Erdiguneko trafikoaren zati handi bat aparkatu nahian dabilzan ibilgailuek ere eragiten dute.

Ze aldaketa izango dira gunean? Seminarioko patioa esparru publiko bat da eta bertako segurtasuna bermatuko dugu. Orubea libre utzi gura dugu instalaziotik, eta, horregatik, kolektorea bide publikotik eramateko interbentzioa egingo da. Gero, aparkalekua bera egingo dugu eta ondoren Ibargarai espaloia zabalduko dugu, proiektuak ahalbidetzen duelako. Asmo zehatzak proiektuan bertan garatuko dira, datorren urtean. **Antzuolako eta Elgetako alkateak haserre daude Agorrosin erabiltzearen beragarrek baino gehiago ordaintzen dutelako antzuolarrek eta elgetarrek. Ze iritzi duzu?**

Ez nago ados eskaera horrekin. Agorrosinek defizit handia dauka eta Antzuolako eta Elgetako alkateei eskatu zitzaizkion defizit hori ordaintzen laguntzeko, betiere, euren neurrian. Baina ez zeuden ados. Eta horregatik mantendu dugu tasa, besterik ez. Izan ere, Agorrosingo ekipamenduetarako, eta abarretarako inbertsioak guk egiten ditugu.

Noiz berrituko duzue Labegarieta?

Plan zuzendaria eta aurreproiektua ezinbestekoak izan ziren Diputazioaren diru-laguntza jasotzeko [ia 600.000 euro, 2019rako eta 2020rako]. Eraikina kirol jardueretarako eta auzotarren eskaeretarako egokitzen hasiko gara, datorren urtean.

Zer egin gura da Gureak-en eta Miguel Altuna berriaren gune horretan?

Oso pozik gaude industria-jardura bueltan datorrelako, bertako enpresa baten eskutik. Gureak eta Miguel Altunaren artean sinergiak sor daitezke. Bide horrek etapa asko izango ditu, baina abiapuntua emanda dago; ostalaritzarako gune bat aurreikusten da, bidegorria ere egin behar da goiko partetik... Miguel Altunak hurrengo ikasturtea bertan abiatzea espero du.

Arruriagarekin zer egingo duzue?

Ideien proiektu batekin gabiltza prozesua hasteko. Kultura ekipamendu baterako dago aurreikusita; datozen urteetako erronka izango da herrian kulturak sortzen duena neurtzea eta baloratzea.



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Filosofia praktikoa

Ez da izan behar Aristoteles, Sokrates edo Xabier Zubiri donostiarra jakiteko oinarri filosofiko eta gizatiar barik, pertsona bat nekez izango dela kultura edo ikasia. Azken garaiotan prestakuntza akademikoa alde batera laga da lan bat topatzeko prestakuntzaren mesedetan.

Horren ondorioz, gaur egun sekulako profesionalak dauzkagu gailu bat Martera bidaltzea lortu dutenak, edo giza enbrioieta DNA aldatzea lortu dutenak, eta oraindik ikusteko dauzkagun mila gauza egingo dutenak.

Ni ere orbitatik desbideratu naiz, zeren, benetan esan nahi nuena da pozik nagoela irakaskuntzan filosofia ikasgai moduan sartu dutelako, balio zibiko eta etikoaren ikasketak hartzen dituelako ikasgai honek, eta horren ondorioa gure herriaren onurarako izango delako, behintzat, kale eta espaloien garbitasunari dagokionez.

Zeren ordu batzuetan kale eta espaloia batzuk benetan lotsagarri eta zikin daude. Jabetzen naiz Udaltzatek zerbitzuek interesa jartzen dutela lan honetan, baina argi dagoena da lan honek herriarren lankidetzara eskatzen duela.

Filosofia praktikoa daukaten herriarren lankidetzara.

ZUZENKETA

Hilaren 5eko GOIENA aldizkarian, abenduaren 22ko Gabonetako kontzerturako (20:30) sarrerak abenduaren 5etik aurrera erosi ahaliko zirela iragarri genuen. Datu hori ez zen zuzena; sarrerok hilaren 14an, 15ean eta 20an erosi ahaliko dira Seminarixoko leihatilan (18:00-20:00), zortzi eurotan. Pertsona bakoitzak sei sarrera eskura ditzake, gehienez; Internetez (www.ticket.kutxabank.es) eta egunean frontoiko leihatilan (19:30) ere erosi daitezke.

Zubieta kalea berritzea lehentasunezkotzat dute

EH Bilduk ez du begi onez ikusten Gobernuaren aurrekontu proposamena, eta bi aldaketa nagusi eskatu ditu: Zubieta kalea berritzea eta Osintxu auzoa biziberritzea; gainera, herriko gazteak emantzipatzeko Gobernuak bideratu duen laguntza hirukoiztea gura dute

Jokin Bereziartua BERGARA

EH Bilduk emendakin partzialen bidez aurkeztuko ditu, abenduaren 17ko osoko bilkuran, 2019rako udal aurrekonturako proposamenak: "Gure proposamena Gobernuari azaldu ondoren, guretako garrantzitsuak diren partida batzuetan desadostasunak daude eta proposamen osoa onartzea ezinezkoa izango da".

Horrez gain, negoziazioarekin ez da gustura geratu oposizioeko talde nagusia: "Ia itxita eta prentsan publiko egitearekin batera aurkeztu digu aurrekontua Gobernuak, alde zuzeneko kontrasterik egin edo proposamenik jaso gabe. Aurrekontu parte-



EH Bilduko Ainhoa Lete, Gorka Artola, Aitor Arantzabal eta Joseba Moñux. A. TXINTXURRETA

hartzaileak bideratzeko eskaera aurreko urteetan ere egin izan dugu eta aurten ere ez dute inolako asmorik azaldu". Hala ere, adierazi dute "orain arteko jarriera eraikitzailearekin" jarraituko dutela lanean.

Etorkizuneko proiektua definitu

Bergararako etorkizuneko proiektua bergarar guztien artean definitzeko beharra ikusten du EH Bilduk, eta horretarako bide ezberdinak proposatu dituzte: "Plan estrategikoa garatu, erai-kin publikoen erabilera behar berrietara egokitu, eta udaltzain eredua zein Seminarixoen kudeaketa birpentsatzeko baliabideak aurrekontuan txertatzea eskatu dugu". Gobernuaren proposamenarekiko aldaketa nagusien artean, Zubieta kalea berritzea eta Osintxu biziberritzea proposatzen dute, eta baita honako hau gaineratu ere: "Berri- tzeke behar handiena duten kale eta auzoetan egiten diren lanek gizarte arloan eragin zuzena dute, eta gauzatu beharreko proiektuak dira. Zentzu berean, baserri bideak konpontzeko partida handitzea proposatu dugu".

Gazteen emantzipazioa sustatu Hamazazpi "proposamen zehatz" bideratu dituzte, turismoan, gizarte zerbitzuen arloan, berdintasunean, ingurumenean eta hirigintza arloan, besteak beste: "Bergara hobetzeko eta baliabideen erabilera ahalik eta eraginkorrena egiteko proposamenak dira".

Bestalde, bereziki gazteek emantzipatzeko duten zailtasunen aurrean, Gobernuak bideratuko duenaren hirukoizta bideratzea proposatzen dute.

Alkategaia eta programa

2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako prozesua martxan jarri du EH Bilduk. Alkategaia eta zerrendako ordezkariak aukeratzeko eta herri programa sortzeko lehen herri batzarra abenduaren 19an egingo dute, UNEDeko bigarren solairuan (19:00).



Ondo pasa Gabon jaietan!



ABENDUA	URTARRILA
OSTIRALA 21 Txu-txu tren 17:00-20:00 Herriko kaleetan zehar Musika Eskolako Gabonetako kontzertua 18:30 Udal Pilotalekuan	URTARRILAK 2, 3 ETA 4 JOLAS PARKEA 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Labegarieta kiroldegian. (7 urteik aurrerakoentzat. Eguneko sarrera: 4€. Bonua: 10€)
LARUNBATA 22 Eskubaloia eguna 10:00 Labegarietan Txu-txu tren 11:30-14:30 eta 16:30-20:30 Argiak bizikletaz piztu 18:00-20:00 Fraixozuri plazan	LARUNBATA 5 Bizarzuri 17:00 udalateko atarian Ondoren, San Josepe elkarteko kideek prestatuta, txokolata banatuko zuten haurrei Erosketa-txartelen zozketa 18:00 Bedekarrekin antolatuta Errege Kabaigata 19:00- Ibilbidea: Udal Biltzea, Maizterreka, Bideberri, Izangarai, Herriagunak, Domingo Irala, Inzar, Barmakalea, Plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Amuriaga, Udal Biltzea. Elosuko kabaigata 18:00. Plazan
IGANDEA 23 HORRA HORRA Gipuzkoako Haur Abesbatzen emanaldia 18:00 Frontoian Gabonetako kontzertua 22:30 Udal Pilotalekuan. (Sarrera: 8€)	IGANDEA 30 Saskibaloia txapelketa 10:00 Labegarietan Gabonetako pilota txapelketaren finalak 10:00 Udal Pilotalekuan Bergarako Orfeo! Gaztearen kontzertua 12:00 Seminarixoen
ASTELEHENA 24 Oientzero eta Mari Domingi San Martzialdik 11:30 Hamera azokan	ASTELEHENA 31 San Silvestre Txiki lasterketa solidarioa 11:30 Irala kalean, Peñalba parcan
OSTIRALA 28 Infantil mailako eskubaloia txapelketa 10:00 Labegarietan	
OSTEGUNA 27 Infantil mailako eskubaloia txapelketa 10:00 Labegarietan Familientzako paleontologia tailerra 11:00-13:00 Laboratorium musean (Plazak beteta) Hiruko saskibaloia txapelketa 10:00 Pilotalekuan KIBUBU haurrentzat antzerkia 17:00 Seminarixoen (Sarrera: 4€)	ASTEAZKENA 26 Lauko eta hiruko irristaketa-hockey txapelketa 09:00 Labegarietan LAU haurrentzat ikuskizuna 17:00 eta 18:30 Seminarixoen. (Edukiera mugatua: 60 lagun emanaldiko. Sarrera: 4€)
ONDORREN KALEJIRA PLAZARA 18:30 Haurren gutunak jasoko dituzte Osintxu: 19:00 zubian. Angiozari: 08:45 kanfu-eskeia plazatik 19:00 plazan	JOLAS PARKEA 11:00-13:00 eta 17:00-20:00 Udal pilotalekuan (6 urteik beherakoentzat. Eguneko sarrera: 4€) KATILLUKADAK haurrentzat antzerkia 17:00 Seminarixoen. Sarrera: 4€

Gogoratu... Gabonetan, Oientzerok eta Mari Domingik udalabeko atarian haurren gutunak jasoko dituzte!



Bidekurutzeta kaleko farolak piztuta, eguazten iluntzean; honako hau izango da aldatuko den puntuetako bat. JOKIN BEREZIARTUA

Alde zaharra argitzeko "kontratazio urgentea"

2014an eta 2015ean alde zaharrean jarri ziren led luminaria puntuak aldatu egin behar ditu Udalak, hondatuta daudelako edo arazoak ematen dituztelako: "Puntu horiek gero eta argi-fluxu txikiagoa ematen dute, eta kaleak gero eta ilunago daude"

Jokin Bereziartua BERGARA

Argiteria publikoak arazoak eman ditu azkenaldian alde zaharrean. Herritarrendako "funtsezkoa" den zerbitzu hori hobetu "behar den bezalakoa" izan dadin, "aukera guztiak" aztertu ditu Udalak, eta, azkenean, "ezohikoa" den kontratazio urgente bidez led berriak

erosteko eta horiek "brehala" instalatzeko erabakia hartu dute. Orduko hornitzailea desagertu egin da eta Tecuni enpresa kontratatatu dute. Aurrekontua 48.296 euro da –BEZa barne–.

Erdigunea, "gero eta ilunago"

Udalak gogora ekarri du 2014an eta 2015ean alde zaharreko ar-

giteria publikoa aldatu zela eta led sistemako luminariak jarri zirela. Hain justu, honako kale hauetan egin zen aldaketa hori: Bidekurutzeta, Munibe plaza, San Pedro, Mizpildi, Zabalotegi, Komenio, Barrenkalea, Irizar ibilbidea, Artekalea, Arruriaga, Goenkalea, Juan Irazabal pasealekua, Laudantz kantoia,



Brigadako langileak alkatearekin eta teknikari batekin, eguaztenean. TXOMIN MADINA

Lur azpiko edukiontziak beirarentzat

Beirarentzat lur azpiko hiru metro kubikoko bi edukiontzi jartzeko lanetan ari dira Iralan. Edukiontziak Plastic Omnium enpresarenak dira eta abenduaren 21erako lanak amaituta egongo direla espero du Udalak. Lanon aurrekontua 12.332 euro da –BEZa barne–.

Erromagalartza kantoia, Arrese zeharbidea eta San Martin Agirre. Guztira, 103 luminaria-puntu aldatu ziren orduan. Hala, gaur egun luminaria horietatik sei hondatuta daude eta gainerakoetako gehienak arazoak ematen dabilta: "Gero eta argi-fluxu txikiagoa ematen dute, eta kaleak gero eta ilunago daude. Hainbat puntutan egoera eskasa da eta horri buelta eman behar zaio", adierazi dute.

Udaletik argitu dutenez, ezinezkoa da led horiek konpontzea, iraupen-bizitza agortzen ari

zaielako, eta horregatik erabaki dutela plaka berriak jartzea.

Instalazioekin sei aste barru hasiko direla aurreikusten du Udalak, eta lau aste beharko dituzte puntu guztiak aldatzeko. Hamar aste beharko dira guztira, beraz.

**AURREKONTUA
48.296 EURO DA ETA
HAMAR ASTE BARRU
ARGITERIA BERRIA
EGONGO DA JARRITA**



JOKIN BEREZIARTUA

"Punta-puntako" gaztak Uberan

Ereindajan-ek eta Uberako Jaolatza elkarrekin gazta dastatzea antolatu zuten eguazten iluntzerako. Antzuolako Pikunieta baserriko Josebe Blanco eta Aretxabaletako Gazteluko Haitzako Lur Pagoaga gaztagileak gonbidatu zituzten, eta, euren ekoizpenaren gaineko xehetasunen

berri emateaz gain, askotariko eta "punta-puntako" gaztak dastatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Bestalde, Ereindajaneako oso pozik daude Pio XIII. plazako denda-topagunearen funtzionamenduari; gaur egun, 260 bazkide dira: "Oso eskertuta gaude".

Euskal presoek aldeko sinadura bilketa abiatu du Gure Artera-Sarek

Gure Artera eta Sare ekimenek euskal presoek aldeko kanpaina berri bat abiatu dute, hain zuzen, sakabanaketa politikaren amaiera eskatzeko. Mozioa aurkeztuko dute udaletxean, eta, horrez gain, sinadura bilketa abiatu dute, "herritarren aktibazioa" lortzeko: "Denok batera ozen aldarrikatu behar dugu euskal presoek aurkako dispartzio-politika amaitu egin behar dela". Sinadurak Internetez eta Whatsappez zabaldu dituzte, eta baita sinatzeko orriak Arranon eta Pol-Pol tabernetan utzi ere. Herriko eragileen bidez ere zabalduko dute kanpaina; sindikatuen bidez lan tokietan, ikasleen bidez ikastetxeetan...

OHARRAK

Pol-Pol taldea

2019rako federatu txartela egiteko tramiteak abiatu ditu Pol-Polek. Astelehenean, eguenean eta egubakoitzean bulegoan (19:00-20:00) egongo dira eta webgunetik edo telefonoz ere (943 76 48 51) egin daiteke. Bestalde, basoen etorkizunaren gaineko saioa antolatu dute abenduaren 27rako (19:00), euren lekalean. Iñaki Aizpuru eta Kiko Alvarez biologoak egongo dira.

Mus txapelketa

Euskal Herriko Mus Txapelketako Bergarako kanporaketa abenduaren 29an jokatu da Artatsen (16:00). Izena momentuan eman behar da, 20 euro bikoteko.

Musika eskolaren lehen 'flashmob'-a, bihar

Ekintza irekia da eta 13:00etarako egin dute hitzordua, Irala kalean. Asmoa da 'Jesus, joy of man's desiring' pieza jotzea eta grabatutako materialarekin bideo bat egitea. Antolatzaileek esan dute adin askotariko musikariak elkartzea dutela helburu

Larraitx Zeberio BERGARA

"Lehenengo aldia da eta esperimentu bat izango da. Prestatu ditugu umeak eta egin ditugu entseguak, baina, erronka berriekin gertatzen den moduan, unea iritsi arte ez dugu ikusiko emaitza zein den", adierazi du, irribarrez, Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek. Antolatzaileek 200 bat lagun espero dituzte biharko, zapatua, Irala kalean; izan ere, bertan egin dute hitzordua 13:00etarako. Proiektua Jose Miguel Laskurain irakasleak proposatutako eta gauzatutako egitasmoa dela esan du Ugaldek, eta lan-dinamika polita sortu duela eskolan.

Herriar guztiak daude parte hartzera deituta, eta, bereziki, musikarekin lotura dutenak. Orkestra zein Musika Banda ere gonbidatu dituztela jakinarazi du Ugaldek.

Jose Miguel Laskurainek, berriaz, adierazi du garrantzitsua dela neska-mutikoei jendaurrean



Bandako musika taldea. GOIENA

jotzea. "Buruz joko dute, eta kaleak eskaintzen duen ingurune informal horretan. Gainera, ekitaldi ireki bat egiten ahalegindu gara eta horrek sinergia berriak eragin ditzake herriko taldeen artean. Helburu nagusia,

azken finean, ondo pasatzea da", esan du.

Irala kaleko mutur batean hasiko da akzioa eta poliki-poliki mugitzen joango da musikari batzuek hurrengoei lekukoa emanez. Musikariak zein abeslariak izango dira protagonista *flashmob* horretan, baina publikoa eta grabaketa lanak egiteko jendea ere behar da. Animatzen diren guztiak izango dute lekua Irala kalean.

Bach konpositorearen obra bat

Musika eskolako arduradunek J.S. Bach konpositorearen *Jesus, joy of man's desiring* pieza aukeratu dute. "Obra oso ezaguna da. Gainera, alaia da eta egokia abesteko. Instrumentuarekin jo behar dutenendako badu zailtasun tekniko apur bat, baina disfrutatzeko moduko pieza da", azaldu du Laskurainek. Biharko grabaketekin bideo bat egingo du musika eskolak eta Youtube bitartez zabalduko dute.

Aste bukaeran egunero izango dira norgehiagokak frontoian

Gaurko hiru norgehiagoka daude iragarrita eta bihartik aurrera eskolarteko txapelketako partiduak izango dira

L.Z. BERGARA

Aste bukaera honetan izango da zer ikusi Bergarako Udal Pilotalekuan. Gaur, egubakoitza, hiru norgehiagoka jokatu dira, 19:30ean hasita. Lehenengo biak emakume pilotari txapelketako bigarren mailakoak izango dira eta kantzian ariko dira nor bere bikotekidearekin Arrate Bergara eta Uxue Zubizarreta pilotari bergararrak. Zubizarretak Badiola du bikotekide eta Bergarak, Bikario. Hirugarren partidua eskuz banakako gizonen txapelketakoa izango da

eta herriko Eneko Muguruzak jokatu du. Murua da titularra, baina Muguruzak jokatu du Urbietaren kontra.

Biharko, zapatua, benjaminen eskolarteko txapelketako sei partida daude iragarrita. 16:30ean hasita, Bergarako, Antzuolako eta Oñatiko pilotariak ariko dira nor baino nor gehiago.

Domekan, berriz, gaztetxoagoen txanda izango da; izan ere, 2012an, 2008an eta 2007an jaiotako Gabonetako Txapelketako norgehiagokak jokatu dira frontoian, 10:00etan hasita.

Zapatuan, Miriam Moñux eta Leire Ugarte Seminarixoa

Musikeneko bi ikasle bergararren kontzertua 18:00etan izango da, eta Miriam Moñux biolinistak emango dio hasiera. Ignacio Arakistain pianista lagun duela Cecile Chaminaderen *Romanza Appassionata*, Pablo Sarasateren *Romanza Andaluza* eta De Brieren *Scene de Ballet* joko ditu.

Bigarren zatian, Leire Ugarte pianistak garai askotariko piezak eskainiko ditu. Hasteko, Benjamin Britten konpositorearen *Three Character Pieces for Piano* obraren bigarren atala joko du. Jarraian, Ludwig van Beethovenen 5. *Sonata (op. 10)* eskainiko du, eta kontzertuari amaiera emateko Frederic Chopinen *Fantasia Impromptu* obra.

"Elbarriok ez ditugu laguntzak kirola egiteko"

JOSU EGAÑA LAN ISTRIPUAN HANKA GALDU ZUEN OÑATIARRA

ATLETISMOA Urte eta erdian errekupeartzeko lanean ibili eta gero, abenduaren 31n dortsal bat jantziko du ostera ere, Legazpiko San Silvestre lasterketan

Xabier Urzelai ARRASATE

Josu Egaña (Oñati, 1981) erronka batekin agurtu gura du 2018a. Ez du aparteko markarik ezarri gura, ez du podiumera igo gura. Duela urte eta erdi izandako lan istriputik errekupeartzeko bidean beste aurrerapauso bat eman gura du –hanka galdu zuen–, ostera ere dortsal bat jantzi eta kirolaz gozatu gura du. Eta, bide batez, elbarriek kirola egiteko dituzten zailtasunak azaleratu nahi ditu.

Legazpiko San Silvestre proba aukeratu duzu ostera ere dortsal bat jantzeko.

Halaxe da, bai. Legazpin bizi den lagun arrasatear bat dabil lasterketa antolatzeke lanean, Gaizka Romero. Kanean geundela, txantxetan esan nion nik ere parte hartuko nuela, eta bromari jarraipena eman genion. Konturatu orduko, helburu bilakatu da.

Ze helbururekin onartu zenuen erronka?

Gauza bakarra eskatu nion Gaizkari, lasterketa baliatzea elbarriok kirola egiteko ditugun zailtasunak erakusteko. Esan zidan itsulapiko bat jarriko zuela dirua batzeko, eta horrekin korrika egiteko protesi bat erosteko. Baina ez dut halakorik gura, badaudelako ni baino behar



Josu Egaña, aste barruan Arrasaten. XABIER URZELAI

"SAN SILVESTRE PROBAN PARTE HARTZEA LASTERKETA IRABAZTEA BEZALA DA NIRETAKO"

handiagoa duten elbarriak. Gurpil aulkian daudenak, baliabide gutxiago dutenak... Hala, dirua erabiliko dugu halakoei laguntzeko.

Hilaren 31ko lasterketa bereziki prestatu duzu?

Ezin dut korrikarik egin, daukadan protesiak ez duelako korrika egiteko balio. Oinez egingo dut lasterketa, ahalik eta pausorik azkarrenean. Baina ez zait axola azkena izatea. Aipatu moduan, San Silvestre proban azaleratu gura duguna da elbarriok ez ditugula laguntzak kirola egiteko. Korrika egiteko protesi batek, esaterako, lau mila euro balio du. Eta noski, ez du betirako balio, hautsi egiten dira, denborarekin aldatu egin behar izaten dira... Diru asko da hori. Eta horrekin ba-

tera, gure egunerokoan izaten ditugun buruhausteak ere azaleratu gura nituzke, herrietan dauden oztopo arkitektonikoak, elbarrien aparkalekua errespetatzen ez dutenean... Jendeak sentsibilizatuago egon beharko luke.

Lehenago egiten zenuen kirolik?

Bai, beti izan naiz oso kirolzalea. Gaztetan, Aloña Mendiko ziklismo sailean jardun nuen, besteak beste, Markel Irizarrekin, nahiz eta hura urtebete nagusiagoa den. Azken urteotan, berriz, mendian ibiltzen nintzen gustura. Behobia-Donostia hirutan egin dut, eta etorkizunean gurako nuke lasterketan berriro ere parte hartu. Baina horretarako gogor entrenatu beharra dago, protesi egokia izan... Eta ondo errekupeartuta egon behar dut hori egiteko, 20 kilometro dira eta.

Ez da izango erraza halako istripu batetik errekupeartzea.

Ez, prozesu luzea da, eta faseak poliki-poliki gaintzen dira. Onerako ala txarrerako, istripua izan nuen momentuan ez nuen konorterik galdu, eta eskerrak... bestela, akaso, ez nintzatekeelako berriro ere esnatuko. Hau da, hasieratik izan nintzen kontziente hanka galdu nuela, eta, ebakuntzaren ostean, lehenengo hilabeteetan pozik nengoen, bizirik jarraitzen nuelako. Poztasun hori, baina, joan egiten da, eta ze egoeratan zauden konturatzen zara, edozer gauza egiteko zailtasunak izaten dituzu, eta ezintasuna eta etsipena sentitzen dituzu, istripuaren zergatiagatik galdetzen hasten zara... Hor hasten da beste prozesu gogor bat. Oraindik, ametsak izaten ditut. Esaterako, odol usaina barruan geratu zitzaidan, horrek inpresionatu ninduen gehien.

Baina burugogorra zarela ere badakit.

Ehiza maite dut, eta medikuek esan zidaten hobe nuela kontu hori burutik kendu, ezingo nuela oilagorretan ostera ere joan. Nire erantzuna izan zen nire eskuetan zegoena egingo nuela ostera ere ehizan joateko. Baina mendian ibiltzeko ez dago protesi egokirik. Protesi normala oso pisutsua da, eta ez du balio harri artean ibiltzeko, belauneko mugimendua ez da eta egokia... Alegia, halako arloetan oraindik lan handia dago egiteko.



Korrikalari bat, iaz. GOIENA

ATLETISMOA Santamas krosa egingo dute domekan Arrasaten

Domekan egingo dute kuadrillen arteko santamas lasterketa (12:30). Nagusien lasterketaren aurretik, gaztetxoendako probak egingo dituzte. Iaz, Unai Hernandez eta Ane Zabala izan ziren azkarrenak, eta, gainera, hitzordua Jose Ramon Petreñas omentzeko baliatu zuten. Kuadrillen artean, Kakalardoak eta Oinazkarrak izan ziren onenak.



ziklista Oñatiko proban. GOIENA

ZIKLO-KROSA Oñatiko probako 9. edizioa egingo dute domekan

Urrutxuko lurretan izango den lasterketa 09:30ean hasiko dute –elite mailakoak 12:30ean irten-go dira–. Bailarako hainbat ziklista izango dira; tartean, Oñatiko hauek: kadetetan, Aitor Altube, Aimar Erostarbe, Aimar Madina eta Xabat Castaños; juniorretan, Ander Blazquez, Aritz Torres eta Unai Cueva; eta elite mailan, Iñigo Mugarza lehiatuko da.

Alain Irazu patinatzailea, erreferente

Lan istriputik errekupeartzeko bidean, Egaña izandako erreferente nagusietako bat Alain Irazu patinatzaile getariarra izan da: "Ospitaleko langile batek eman zidan Alainen telefonoa, eta segituan etorri zen ospitalera. Lasai egoteko esan zidan, berak egin zitzakeen gauzak nik ere egin nitzakeela sinestarazi zidan, eta oso lagungarria izan zen".



Alain Irazu aurtengo Behobia-Donostiako helmugan. X.U.

Kirol argazkilaritzako 'Oscar'-a, Oñatira

ATLETISMOA Joan den egubakoitzean Monakon egindako IAAF Athletics Awards sari banaketa ekitaldian, Felix Sanchez argazkilari oñatiarraren 'Bedeinkazioa' lana saritu zuten; nazioartean banatzen duten sari nagusienetakoa da

Xabier Urzelai ARRASATE

Ato Boldon 90eko hamarkada amaieran nabarmendu zen abiadura lasterkari moduan. Munduko txapeldun izan zen 1997an -200 metroko proban-, eta Olinpiar Jokoetan lau domina eskuratu zituen. Trinidad eta Tobagoak 9.86an geratu zuen erlojua, Walnut-en (Kalifornia, AEB), 100 metroko proban. Erreferente handia izan da atletismoan.

Hain zuzen, duela astebete Monakon egindako *IAAF Athletics Awards* ekitaldian esatari lanetan zebilen Ato Boltoni egokitu zitzaion Felix Sanchezen izena esatea; epaimahaiak oñatiarraren argazkia aukeratu du urteko kirol argazki onena moduan. Esker oneko berbak esan eta gero, Elgoibarko krosa irabazi eta argazkian protagonista den Selemone Barega atleta etiopiarra igo zen taula gainera: "Sari erdi zurea da", esan zion Sanchezek: Barega jende artetik atera zen, modu espontaneoan,



Felix Sanchez eta Selemone Barega, sari banaketa ekitaldian. FELIX SANCHEZ

eta uste dut ni beste emozionatu zirela aretoan zeuden guztiak. Atletismoko federazioak argazkia oparitu zion, eta hori oso detaile polita iruditu zitzaidan".

Felix Sanchezek aste barruan Goiena telebistan azaldu ditu

Monakon bizi izandakoak: "Gala ekitaldi paregabea izan zen. Atletismoan ezagunak diren izen handiko pertsonak zeuden. Monakoko printzea ere lehen ilaran zegoen eserita, begira eta irribarrez ikusi nuen, txaloka,

beste batzuekin batera; esaterako, Sebastian Coe eta Alberto Juantorena. Eurek ere zoriondu ninduten, eta baita Bruno Hortelano moduko atletek ere; bereziki egin zidan ilusioa azken horrek nirekin erretratu bat egin gura izateak, gustuko du argazkilaritza".

Monakoko esperientzia ahaztezin bilakatu da: "8 urte nituenetik bizi dut atletismoa gertutik eta hori gaindiezina izan zen. Ez dago dirurik hori ordaintzeko. Ez da beste saririk egongo Monakon bizitakoa, sentimentalki, gaudituko duenik".

"Ezberdina zelako bidali nuen"

Oñatikoak badaki argazki bat baloratzea oso subjektiboa dela: "Batzuek gustuko izango dute erretratu jakin bat, beste batzuek bestea. Nik Elgoibarko krosean egindakoa ez nuen bidali bereziki ederra delako, baina bai argazki ezberdina delako. Eta epaimahaiak zeudenek horixe baloratu dute".

Nazioartean halako aitortza jasota ere, hemendik aurrerako bizitza orain artekoa bezalakoa izango dela adierazi du Sanchezek: "Kirol argazkilaritza bigarren lanbide moduan hartzen dut, pasio handiz egiten dudana. Baina prentsan lan egitea oso zaila da gaur egun, ez dago egonkortasunik. Eta gainera, ez Espainian eta ezta Euskal Herrian ere gure lana ez dago ekonomi-

koki oso errekonozituta. Hala, oraingoz, nahiago dut aste barruan nire lanbidean jardun, eta asteburuetan kirol hitzorduetara joaten jarraitu, aldizkariarekin kolaboratzen jarraitu...". Sanchez *Runner's World* aldizkarian hasi zen kolaboratzen, duela 13 urte, eta, gaur egun, *Triathlon* eta *Sportlife* aldizkarietara ere egiten du lan.

Esperientzia, ezinbesteko

Nabarmentzekoa da Monakoko saria ez dela agentzietan dabil-tzan argazkilarietako batendakoa izan. Izan ere, kirol hitzorduetan horiek izaten dituzte lekurik onenak. Eta, hainbat argazkilari izaten dituztenez, errazagoa izaten da argazki original baten bila joatea. Hori horrela, kirol argazki on bat ateratzeko behar denaren gainean ere egin du berba Oñatikoak: "Kirol jardue-ra hori maitatzea garrantzitsua da. Eta horrekin batera, esperientzia ezinbestekoa da: non kokatu, ze lente aukeratu argazki bakoitza egiteko... Niri, esaterako, atletaren sufrimendua erakusten duten argazkiak egitea gustatzen zait, poza edo tris-

"ESPERIENTZIA GARRANTZITSUA DA, NON JARRI, ZE LENTE AUKERATU ARGAZKIA EGITEKO..."

Reala, Eibar eta Debagoiena, Mojategin hilaren 28an

FUTBOLA Emakumezkoen Gabonetako Torneoa Arrasateko futbol zelaian jokatu dute aurten

X.U. ARRASATE

Aldaketekin dator Gabonetako Emakumezkoen Futbol Torneoa. Hamalagarren edizioa izango da, eta, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian jokatu beharrean, Mojategin jokatu dute, Arrasaten. Eguna ere ezberdina izango da, Debagoieneko selekzioak, Realak eta Eibarrek ez dute-eta, ohi moduan, urteko azken egunean jokatu: hilaren 28an izango da hiruko torneo.

Hala, hilaren 27an, kategoria txikietako taldeen partiduak jokatu dituzte. 09:00etan, in-

fantilen txanda izango da; 12:00etan, kadete mailakoa; eta 15:00etan, alebinena; eta nagusiek, berriz, 10:00etan hasiko dute torneo, esandako moduan, 28an: "Urte hauetan emakumezkoen futboleko bilakaera handia izan da. Hasi ginenean, estatu mailan ez zeuden talde asko mailarik gorenarean, eta Euskal Herriko taldeak aitzindariak izan ziren. Egundak, elitean talde mordoa daude, eta futbol mailak ere gora egin du izugarri", adierazi du Arizmendiko ordezkari Gorka Gabilondok.

KARATEA Leire Valorrek brontzea irabazi du Bulgarian

Joan den astean jokatu zuten, Bulgarian, Europako kyokushinkai txapelketa -karate barruan dagoen modalitate gogorrenetakoa da- eta Leire Valor brontzeko domina irabazita bueltatu da etxera. Saioa Karate Klubeko ordezkaria finalerdietan kanporatu zuten, eta pozik geratu da bizi izandako esperientziarekin.

Ez da etxeko ordezkari bakarra izan, Dani Barbero arrasatearra ere txapelketan izan da eta -85 kiloz azpiko kategorian-. Lehenengo borrokaldira kontrarioa ez zen aurkeztu, eta bigarrenarean Jonas Rosin izeneko karateka suediarrek mendean hartu zuen.



OINTXE!

Ointxe!-ri aitortza egin diote

SASKIBALOA Gipuzkoako Kirolarien Gala egin zuten eguaztenean Tabakaleran, eta 50 urte bete dituen Ointxe! saskibalo klubak saria jaso zuen. Argazkian, klubeko ordezkari Jon Basurko aita-semeak -izen bera dute-, Jose Mari Balzategi -morez- eta presidente Oihane Agirre.

"Antzezten jarraitzea gustatuko litzaidake"

AINHOA LARRAÑAGA 'GO!AZEN'-EKO ELI

'Go!azen' antzezlanak markak hausten jarraitzen du, domekan 17:00etan Arrasateko Amaia antzokian emango duten ikuskizunerako sarrerak ere berehala agortu baitira

Amaia Zabala ARRASATE

Ainhua Larrañaga hernaniarra, *Go!azen* telesaileko Eli, Arrasate Irratiko *Igo autobusera* saioan izan da.

Eli zara *Go!azen*-en; nola aurkeztuko zenuke?

Eli oso pertsona mesfidatia da eta ez du ia inorengan sinisten, min egin baitzioten duela asko, eta horregatik ditu piercingak eta irudi hori, bere burua babestu eta minik ez diezaioten egin. Nahiz eta zakarra ematen duen, behin fidatzen denean, ordea, oso pertsona ona eta goxoa da, babesten zaituena.

Eta Ainhua Larrañaga nor da?

Eli baino askoz alaiagoa, baina, aldi berean, nik askoz ahultasun gehiago ditut, eta, bestalde, nahiko sakona naiz hitz egiteko eta pentsatzeko moduan.

Hirugarren denboraldia duzu *Go!azen*-en aktore; zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Eboluzioa izan da, bai nirekiko eta baita nire izaerarekiko ere. Lehenengo denboraldian, nire pertsonaia nahiko txikia zen, baina jendeari gustatu egin zitzaion eta horregatik jarri zidaten lan gehiago; gainera, Gariren eta Eliren arteko erlazioa saldu zuten. Orduan konturatu nintzen benetan gustatzen zaidana antzezte dela; aurrez ez nuen inoiz



Ainhua Larrañaga, *Go!azen*-eko Eli. ETB

antzeztu, guztia lanean ikasi dut eta neure burua telebistan ikustea azterketa baten emaitza bezala izan da. Hirugarren denboraldi hau, gainera, oso serio hartu dut eta nahiz eta badakidan zaila dela, gustatuko litzaidake mundu honetan jarraitu eta eboluzionatzen jarraitzea. Hori dela eta, *casting* ezberdinak egiten ari naiz eta datorren astean, esaterako, lehen aldiz Madrilerara noa proba bat egitera; nahiko urduri nago, egia esan. **Telesailaz gain, herriz herri zabilzate *Go!azen* antzezlanarekin, eta**

sekulako arrakasta ari da izaten, gainera. Zein publikori dagoela zuzendua esango zenuke?

Telesaila haurrei eta nerabeei dago zuzendua eta gai serio eta errealak lantzen dira, baina modu sinplean. Antzezlanak, aldiz, txikienei dago zuzendua eta hauei barre eginaraztea bilatzen da. ***Go!azen* telesailak euskal kultura transmititzen laguntzen duela esatearekin bat zatoz?**

Bai, zeharo bat nator; nire adinekoek ia ez dute euskaraz kontsumitzen. Azkenean, diskoteketara doaz reggaetona entzuterako, ni barne. Beraz, oso garrantzitsua da hainbeste euskal produktu dituen saio bat edukitzea eta, aldi berean, saio horretan identifikatzen zaren pertsonaiak edukitzea.

Nola daramazu ikuskizunen ondoren zaleekin pazientzia galdu gabe banan-banan argazkiak ateratzea eta autografoak sinatzea?

Oraingoz, behintzat, ondo ari gara; batzuetan, nekatuta amaitzen dugu, baina nik, behintzat, plazer guztiarekin egiten dut. Haur bat nire ondora hurbiltzeak nire lana sinistu eta gustatzen zaiola esan nahi du; hori nire azterketaren emaitza da. Gainera, umeek ez dute maltzurkeriarik, eta oso atsegina da beraiek *photocall*-ean argazkiak ateratzea.



Samuele Telari, Djordje Davidovic eta Bartosz Kolsut saria jasotzen. IMANOL SORIANO

Samuele Telarik irabazi du nazioarteko akordeoi lehiaketa

Italiarra garaile asteburuan Amaia antzokian izan den Arrasate Hiria nazioarteko 26. akordeoi txapelketan

Amaia Zabala ARRASATE

Asteburuak akordeoi soinuak izan zuen Arrasaten, Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketa, Gipuzkoako akordeoi txapelketa eta Gipuzkoako akordeoi jaialdia izan baitziren.

Nazioarteko txapelketan maila handia erakutsi dute aurten ere eta denen artean onena Samuele Telari italiarra izan zen. Arrasateko alkate Maria Ubarrerenaren eskutik jaso zuen garaikurrak gain, 4.000 euroko saria eta kontzertu bira irabazi zituen, eta oso pozik agertu zen italiarra: "Oso txapelketa polita izan da, eta esperientzia berezia, etxean bezala sentiarazi naute. Gainontzeko lehiakideak ere itzelak izan dira, akordeoi jole oso onak dira, eta pertsona handiak, plazera izan da".

Bigarren postua Djordje Davidovic serbiarrak eraman zuen eta hirugarrena, berriz, Bartosz

Kolsut poloniarrek. Azken horrek derrigorrezko obraren interpretazio onenaren saria ere jaso zuen eta lehiakide jatorrenaren saria, berriz, Nadezhda Reutovak errusiarrak eraman zuen.

Gipuzkoako akordeoi lehiaketa
Haurren mailan, Gabriel Dominguez, Andrea Loureiro eta Ariad Sofia Escibano izan ziren garaile. Gazteen mailan, berriz, Sofia Ros, Ainhua Quintana eta Alejandro Arbues. Azkenik, helduen mailan, Marta Cubas, Juan Miguel Gonzalez eta Ana Gonzalez.

Gipuzkoako akordeoi jaialdia
Musika eskoletako oinarritzko pedagogiaren osagarri izan zen, eta kantu ezagunak, herrikoiak eta klasikoak, denetarik entzuteko aukera izan zen. Hauspoz elkarteko Aitor Furundarenak aurkeztu zuen ekitaldia

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

JUNE FERNANDEZ, KAZETARIA

LEIRE PALACIOSEK ELKARRIZKETATUTA

ABENDUAREN 14AN, EGUBAKOITZA, 21:30EAN ETA GAUEKO HAMABIETAN

GARBIÑE BIURRUN, EPAILEA

JUAN KRUIZ LAKASTAK ELKARRIZKETATUTA

ABENDUAREN 19AN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.





Bertsozaleendako hainbat hitzordu bailaran

Ainhoa Agirreazaldegi, Julio Soto, Maddalen Arzallus eta Andoni Egaña taula gainean ikusteko aukera egongo da gaur, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean hasita. Gaurkoa doako emanaldia izango da eta Amaia Agirrek jarriko ditu gaiak

MAIALEN REGUEIRO ARRASATE

Gabonetarako bi aste gelditzen dira, eta urtero ohikoa izaten da bailarako hainbat herritan bertso jaialdi, saio zein txapelketak egitea. Hala, gaur, egubakoitza, bertsozaleek lehen hitzorduaz gozatzeko aukera izango dute Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean hasita. Doako emanaldia izango da eta lau bertsolari izango dira agertokian: Julio Soto, Maddalen Arzallus, Andoni Egaña eta Ainhoa Agirreazaldegi. Azken hori elgetarra izanik, bere herritarren aurrean arituko da bertsoak abesten. Laukoteaz gain, Amaia Agirre gaiak jartzen arituko da.

Santamasetako bertso iaialdia

Berto jaialdia ez da faltako aurten ere, eta abenduaren 21ean izango da, Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan hasita. Kasu horretan, Ainhoa Agirreazaldegi elgetarraz gain, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Odei Barroso eta Aimar Karrika bertsolariak taularatuko dira. Emanaldia horretarako sarrerak dagoeneko salgai daude AED elkartearen eta Jai Zale, Irati eta Monte tabernetan.

Urtarrilaren 5ean, Oñatin

Zubikoa kiroldegian urtero izaten da bertso saioa Errege bezperan. Kasu honetan, Aitor Mendiluzeren, Gontzal Belate-

giren, Miren Amurizaren, Andoni Egañaren, Urko Arregiren eta Maialen Lujanbioren bertsuak entzuteko aukera egongo da, 22:30ean.

Herriko txapelketa Bergaran

Gaur, berriz, Bergarako Bule tabernan, herriko bertsolari txapelketaren bigarren finale-dia izango da, 22:30ean hasita. Gari Lopez de Munain, Eñaut Uriarte, Iñigo Arcelus eta Iraitx Artola izango dira finalerdi horretan parte hartuko duten herriko bertsolariak eta Ibon Leibarrek jarriko dizkie gaiak. Hala, txapelketaren final handia abenduaren 28an izango da, Bergarako kartzela zaharrean.

Akordeioia, gitarra eta poetika uztartzeko dituen ikuskitza

Gorka Hermosaren, Jon Maiaren eta 'Pitti'-ren emanaldia,
gaur, Osintxuko Txuringo tabernan, 22:30ean hasita

M.R. BERGARA

Belarrimotzak izeneko abestia-
rekin aurkeztu zuen Durangoko
Azokan *Hezurbeltzak* lana Gorka
Hermosak, Jon Maiak eta
Pitti-k osatutako talde berriak.
Abenduaren 7an kontzertua es-

kaini zuten *Ahotsenean* eta gaur, 22:30ean, doako kontzertua eskainiko dute Osintxuko Txuringo tabernan.

Hiru artista horiek *ELE!* izeneko ikuskizun batean aritu ziren lanean eta oraingo honetan.

akordeoi-joleak, bertsolari, idazle eta abeslariak eta gitarristak bat egin dute hamahiru kanta dituen lana osatzeko.

Lan horrek hainbat gai jorrazten ditu eta horietako bat da miseria dela-eta hegoaldetik alde egiten duten emigratzaileena, poetika, kritika, umorea eta edertasuna uztartuz. Horiek, gainera, atrezzo pertsonalizatuarekin eta giro bakan baten baitan aurkezten dira. Beraz, agertokian ohikoa ez den eskaintza dakar hirukote horrek.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko abenduko sariak!

Telebista

LG 32LJ50 80CM/32

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren zera" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Indarrendagiri: LPT 15/1999 legeraren arabera, jakinarazten ditugu, zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Teletxuen Itxialagiz automatikoki babestuko direla. Datu-bilaketaren helburua bakarra da: erabazpen daguen sustapenean gaitortasunak. Ez duzue inongo datu pertsonalaren hain zuzeneko edo ez zuzeneko helbide honetara bidaltu: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARIO JATETXEARI ESKER

Begiratu **Puntuak** aldizkariako Otorduarri atala eta hartu parte!

943 25 05 05

kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

"Erluntza" antzezlanerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amala Antzokia | Abenduaren 23an | 19:30ean

Arrasateko AED elkarteari esker

"Santamasetako bertso jaialdia" -rako gonbidapenak ditugu.

Arrasate | Amala Antzokia | Abenduaren 21ean | 20:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Erluntza / Bertso" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Indarrendagiri: LPT 15/1999 legeraren arabera, jakinarazten ditugu, zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Teletxuen Itxialagiz automatikoki babestuko direla. Datu-bilaketaren helburua bakarra da: erabazpen daguen sustapenean gaitortasunak. Ez duzue inongo datu pertsonalaren hain zuzeneko edo ez zuzeneko helbide honetara bidaltu: kluba@goiena.eus

Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...

Eta 2019 urte osorako harpidetza ORAIN eginez gero, **2018ko ABENDUA DOAN!!** 2019 urte osoa 56 euro!

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba™
Euskara irabazle, denok irabazle!

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

EZTABAIDA GIDATUKO DU GOIATZ ARANAK

'Harira eztabaida' Egubakoitza, 23:00



GOIENA

AURREKONTUAK EZTABAIDATZEN ARRASATEN

'Osoko bilkura' Zapatua, 22:00 eta domeka, 11:00

EGUBAKOITZA, 14

10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Ahotsenean zuzenekoak
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Elkarrizkettap: Nekane Balluerka
13:00 Kantari Donostia 4
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Albisteak
14:45 Ahotsenea solasaldiak: Unai Iturriaga
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak
16:30 Onein
17:00 Albisteak
17:15 Elkarrizkettap: Nekane Balluerka
17:45 Albisteak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Erreportajea: Lehen eta orain, etorkizuna ikasgai
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Ahotsenean zuzenekoak
21:30 Elkarrizkettap: June Fernandez
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Harira eztabaida

ZAPATUA, 15

09:00 123 Hemen da Miru
09:30 Txantxariak 11
10:00 Kantari Donostia 5
10:30 123 Hemen da Miru
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Harira: Elena Lete
12:30 Elkarrizkettap: Nekane Balluerka
13:00 Ahotsenean zuzenekoak
13:30 Elkarrizkettap: June Fernandez
14:00 Harira eztabaida
15:00 Hemen Debagoiena
